



Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DuvoisinItzulpenak.htm>

BESTE ZENBAIT ITZULPEN

Jean Pierre Duvoisin

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

LAURIER ET CHÊNE, **Cantate sur le mariage de l'Empereur**

Le Génie de la Paix.

Haize beltza mendietan
Baratu da emerik;
Ez-da gure aldapetan
Gehiago elhurrik.
Bildots maiteak, bazketan
Jauzka zaizte gogotik;
Artzaina dago guardian,
Ez-da otso beldurrik!

La Renommée et la Gloire.

Bizkaitik Nafarroara,
Hebrotik Arretara,
Zelhai, mendietan,
Larrain, oihanetan,
Haritzak iharrosi dira hiruretan;
Nafarroako erregen jauregi noblean,
Azantz ozen bat entzun dorreen gainean;
Harmetako salhan
Gathea kraskaka,
Banderak zaflaka,
Panopliak dardaran...
Errazue zer berri den egun munduan?



Les Génies des six Provinces Basques.

Gernikako haritza,
Erronkalgo urritza
Neguan hostatu!
Ezpel eta erramu
Gaur dira loratu!
Jauz zaizte,
Boz zaizte,
Eskaldun zaharrak!
Bota irrintzinak!
Haritzari erramu
Baitzaio xerthatu!!!

Le Génie de la Cantabrie.

Kartagotarrez geroz,
Erromatarrez geroz
Eskaldunak ez-du
Odola ukhatu!
Ipharreko jendaiak, Agotak bentzutu;
Hegoako Mairu beltzak ditu phorroskatu;
Adurreko hegitan Frantsera baratu!
Anibalek Kanen,
Zezarrek Farzalen,
Eskara aditu
Eskalduna maithatu!
Napoleonek gutan andrea bilhatu!!!

Les six Génies.

Gernikako haritza, eta abar.

La Renommée et la Gloire.

Haritzari erramu
Balinbada xerthatu,
Emperadoreak
Eta erregeak
Hari zaizko guziak begira gelditu.

Burutan dabilate gogo eta asmu,
Xertho hunetarik zer behar den gerthatu?..
Gando bat da sorthu,
Ederrik altxatu!
Kantabria boztu!
Zerua da mintzatu!
Asaldutan zirenak batean gozatu!!!

Les six Génies.

Gernikako haritza,
Erronkalgo urritza
Gaur dira loratu!
Ezpel eta erramu
Guzia flokatu!
Jauz zaizte,
Boz zaizte,
Frantsez, Eskaldunak,
Bai et'Erdaldunak
Haritzaren gandoa
Dezagun khoroa!

Tous les Génies réunis.

Goazen beraz, goazen oro
Haren inguratzeraz;
Ageri daite gero
Nor jinen den oldartzera!
Altxa dezagun bandera
Eta ezar ikhara
Gaixtaginen bihotzean!
Dugun kanta batean!
«Biba Emperadorea!
Gure begiratzaillea!
Biba gure Andrea!
Biba gure Printzea!
Biba Frantzia!
Biba Eskal herria!».

Saint-Jean-de Luz, le 16 Octobre 1857



IAUNDONI IOHANE APOSTOLUAREN APOKALIPSA - 1

LEHEN KAPITULUA

1. Iesu-Kristoren Apokalipsa, Iainkoak eman dioena, laster gerthatu behar direnen agertzeko bere zerbitzariei, eta ezagutarazi duena egorririk bere Aingeruaz bere zerbitzari Ioaneri.

2. Zeinak lekhukotasun eman baitio Iainkoaren hitzari, eta Jesu-Kristoren lekhukotasuna ikhusi dituen guziei.

3. Dohatsua profezia huntako hitzak irakurtzen eta aditzen dituen, eta huntan eskribaturik direnak begiratzten dituen, ezen denbora hurbil da.

4. Ioanek Asian diren zazpi elizei, grazia zuei eta bakea denaganik, zenaganik eta ethorriko denaganik, eta haren alkhiaren aitzinean diren zazpi izpirituenganik.

5. Eta Iesu-Kristoganik, zeina baita lekhuko leiala, hiletarik lehen sorthua, eta lurreko erregen nausia, zeinak maithatu baikaitu eta garbitu baikaitu gure bekhatuetarik bere odolean.

6. Eta egin gaitu Iainkoaren eta bere aitaren erresuma eta aphez; hari loria eta nausitasuna menderen mende guzietan. Halabiz.

7. Huna non heldu den hedoeikin; eta ikhusiko dute begi guziek eta hura zilhatu dutenak eta bulharrak ioko dituzte hura ikhustean lurreko populu guziek.

8. Ni naiz alfa eta omega, hastapena eta akhabantza, dio Iainko Iau-nak, denak, eta zenak, eta ethorriko denak, guziz podoretsuak.

9. Ni Ioane, zuen anaia, eta partaliera hersturan eta erresuman, eta pairamenean Iesu-Kristo baithan, izatu naiz Pathmos deitzen den urar-tean, Iainkoaren hitzgatik eta Iesusen lekhukotasunagatik.

10. Izatu nintzen izpirituz altxatua igande egun batez, eta aditu nuen ene giblean botz handi bat tronpetaren idurikoa.

11. Zioena: ikhusten duiana eskriba zak liburu batean, eta egor Asian diren zazpi elizei, Efesan eta Esmirnan eta Pergamon eta Thiatiran, eta Sardesen, eta Filadelfian, eta Laodizian.

12. Eta itzuli nintzen mintzo zitzaudan botzaren ikhusteko. Eta itzu-li nintzeneko ikhusi nituen zazpi urhe kander.

13. Eta zazpi kaneleren erdian gizonaren semea iduri bat, soin gai-neko luze batekin emana, eta urhezko zinto batez inguratua bulharren tokitsuan.

14. Ordean haren burua eta ileak xuri ziren ardi-ile xuria bezala, eta elhurra bezala; eta haren begiek iduri zuten su garra.

15. Eta haren oinek iduri zuten letoin fin, labe gorrian dena, eta haren mintzoak iduri zuen ur handien harrabotsa.

16. Eta bazituen bere eskuineko eskuan zazpi izar, eta haren ahotik atheratzen zen ezpata bat bi aldetarik zorrotza; eta haren begitharteak distiatzen zuen iguzkiak bere indarrean bezala.

17. Eta ikhusi nuenean, erori nintzen haren oinetara hila bezala eta eman zuen bere eskuineko eskua ene gainean, zioelarik: ez izi; ni naiz lehena eta azkena.

18. Eta bizi naizena; eta izatu naiz hila; eta huna non bizi naizen mende mendetakotz; eta nik ditut herioaren eta ifernuko gakhok.

19. Iskriba tzatzu beraz ikhusi ditutzunak, eta direnak, eta haukien ondolik guerthatuko direnak.

20. Huna ene esku eskuinean ikhusi ditutzun zazpi izarren, eta zazpi kaneleren misterioa; zazpi izarrak dira zazpi elizen aingeruak eta zazpi kanderak dira zazpi elizak.

BI GARREN KAPITULUA

1. Eskriba zozu Efesako elizaren aingeruari; huna zer zion zazpi izarra bere esku eskuinean dauzkanak eta zazpi urhe ganderaren erdian dabilanak.

2. Badazkit zure eginak, zure nekhea eta pairamendua, eta gaistoak ez ditzazketzula onhets; eta frogatu ditutzula apostolu direla diotenak, ez direlarik hala, eta gezurti aurkhitu ditutzu.

3. Eta iraupena baduzu eta pairatu duzu ene izenagatik. Eta ez duzu ukhorik egin.

4. Bainan badut zure kontra errateko, hastean zinduen karitatea gal-tzerat utzi duzula.

5. Orhoit zaite beraz nondik erori zaren, eta egizu penitentzia, lotzaita aitzineko obren egiteari, ezen bertzela heldu natzaitzu eta khenduko dut zure kandelera bere tokitik, ez baduzu penitentzia egiten.

6. Baduzu hargatik hau higuin baititutzu Nikolaten egintzak nik ere higuin ditudanak.



7. Beharria duenak adi beza izpirituak zer erraten dioten elizei: garhaitzen duenari emanen diot iatera bizizko arbolatik, zeina baita ene Iainkoaren parabisuan.

8. Eta Esmirnako elizaren aingeruari eskriba zozu: huna zer dion lehena eta azkena denak, hila izan denak eta bizi denak.

9. Badakit zure atsekabea eta behartasuna, bainan aberats zare; eta belzten zaituzte Iudu direla diotenek, eta ez dira hala, bainan dira Satanen biltzarrea.

10. Pairatuko ditutzunetarik deusek ez tzaitzala lotsa; hor doha debrua zuetarik zenbaiten presundegirat egortzera, frogatuak izan zaitezten, eta hersturan izanen zarete hamar egunez. Zaude leial hil arteraino, eta emanen darotzut biziko khoroa.

11. Beharria duenak adi beza, izpirituak zer erraten dioten elizei: garhaitzen duenarentzat ez ditake bi garren heriotzerik.

12. Eta Pergameko elizaren aingeruari eskriba zozu: huna zer dion ezpata bi aldetarik zorrotza duenak:

13. Badakit non zauden, Satanek alkhia duen tokian. Eta badaukazu ene izena, eta ez tuzu ene sinhestea ukhatu. Ez eta egun hetan zeinetan hil baitute Antipas ene lekhuko leiala zuen artean, non baitago Satan.

14. Bizkitartean badut errateko guti bat zuretzat: hor baditutzu Balaamen irakaspena daukatenak, zeinak irakasten batzion Balaki Israelgo umei galbidearen ematen, hek iaterat eta lohikeriazko bekhaturat erakharritz.

15. Baditutzu orobat Nikolaiten irakaspenari darraizkonak.

16. Egizu orobat penitentzia, bertzela heldu natzaizu laster, eta hekien kontra gudukatuko naiz ene ahoko ezpatarekin.

17. Beharrik duenak adi beza izpirituak zer erraten dioten elizei: garhaitzen duenari emanen diot manna gordea, eta emanen diot harri xuri bat, eta harrian izen berri bat iskribatua nihork ezagutzen ez duena izaten duenak baizen.

18. Eta Thiatirako elizaren Aingeruari eskriba zozu: huna zer dion Iainkoaren Semeak zeinaren begiek su garra iduri baitute, eta zeinaren zangoek letoin fina iduri batute.

19. Badakit zure egintzak, eta sinhestea eta zure karitatea, eta zure artha eginbidentzat, eta zure pairamendua, eta zure azken egintzak lehenak baino hobeak.

20. Bainan badut errateko guti bat zuretzat uzten baituzu emakume profeta dela berak dion hori irakastera eta ene zerbitzarien enganatzera,

haun lohikerian eroraraziz, eta haukiei ianaraziz Iainko faltsuei eskainiak diren haragietarik.

21. Eta eman diot ephe penitentzia egin zezan, eta ez da nahi urrikitan sarthu bere bizitze galduaz.

22. Huna non bararaziko dudane ohean; eta horrekin nahastatzen direnak izanen dira atsekabe gaitzean ez badira urrikitan ematen beren egintzez.

23. Horren umeak hilaraziko ditut, eta eliza guziek badakikete ni naitzela errainen eta bihotzen miatzailea; eta bihurtuko diot zuetarik batbederari bere eginen arabera. Zuei aldiz erraten darotzuet.

24. Eta bertze Thiatiran zaretenei irakaspen horri ez darraizkon guziei, ezagutzen ez dutenei, hek dioten bezala, Satanen barnatasuna: ez dut bertze kargarik emanen zuen gainean.

25. Guziagatik duzuen begira zazue ni ethorri artean.

26. Eta garhaitzen duenari eta ene egintzak akhabantzaraino begiratzten dituenari, emanen diot nausitasun populuen gainean.

27. Eta manaturen diote burdinazko zigorrarekin, eta lurrezko untzia bezala porroskatuak ditazke,

28. Neronek nere aitaganik izan dudanaren arabera; eta emanen diot goizeko izarra.

29. Beharria duenak adi beza izpirituak zer erraten dioten elizei.

HIRUR GARREN KAPITULUA

1. Eta Sardeseko elizaren aingeruari eskriba zozu: huna zer dion Iainkoaren zazpi izpirituak, eta zazpi izarrak dituenak: badakit zure eguinak, baduzula bizi zarelako izena eta hila zarela.

2. Izan zaite erne, eta azkar tzatzu bertze hiltzera zohatzinak. Ezen ez ditut aurkhitzen zure egintzak betheak Iainkoaren aitzinean.

3. Orhoit atxikazu beraz zer izan eta aditu duzun, eta begira zazu, eta egizu penitentzia. Ez bazaude beraz atzarria, ethorriko natzaitzu ohoina bezala, eta ez dakikezu zer mugaz ethorriko natzaitzun.

4. Biskitartean baditutzu izen bakhar batzu Sardesen, beren soinak nothatu ez dituztenak; eta ibiliko dira enekin xuritan emanak, zeren gai baitira.

5. Garhaitzen duena, horrela izanen da xuriz, iauntzia, eta ez dut khenduko haren izena biziko liburitik; eta aithortuko dut haren izena nere aitaren aitzinean eta haren aingeruen aitzinean.

6. Beharria duenak, adi beza izpirituak zer erraten dioten elizei.



7. Eta eskriba zozu Filadelfiako elizaren aingeruari: huna zer dion sailduak eta egiazkoak, Dabiten gakhua duenak; zeinak idekitzen baitu eta nihork ez du hetsten; zeinak hetsten baitu eta nihork ez du idekitzen:

8. Badazkit zure egintzak; hona eman dut zure aitzinean athe bat idekia, nihork hets ez dezakena, zeren indar guti baituzu, eta halare begiratu baituzu ene hitza, eta ez baituzu ene izena ukhatu.

9. Huna non emanen daukitzutan Satanen biltzarrekoetarik batzu, ziotenak Iudu direla, eta ez dira hala, bainan gezurra diote; huna non erakharriko ditudan eta emanaraziko ahuspez zure oinetan, eta ezagutuko dute nik maite zaitudala.

10. Begiratu duzulakotz ene pairamenduko hitza, nik ere zu begiratu zaitut frogantzazko orenean, zeina ethortzekoa baita mundu guzira, lurrean bizidirenen frogatzera.

11. Hona non heldu naizen laster; atxik azu duzuna, nihork har ez dezan zure khoroa.

12. Garhaitzen duena emanen diot kolonatzat ene Iainkoaren tenploan; eta ezta gehiago kanporat atherako; eta eskribatuko dut haren gainean ene Iainkoaren izena, eta ene Iainkoaren hiriaren izena Ierusalem berriarena, zeina iautsten baita zerutik ene Iainkoaganik, eta ene izen berria.

13. Beharrik duenak adi beza izpirituak zer erraten dioten elizei.

14. Laodizeko elizaren Aingeruari orobat eskriba zozu: huna zer dion egia denak, lekhuko leialak eta egiazkoak, zeina baita Iainkoan eginen izan bidea.

15. Badazkit zure egintzak, etzarella ez hotza ez beroa; Oxala bazine hotz edo bero!

16. Bainan ephela baitzare, eta ez hotza ez beroa, hasiko naiz zure artikitzen ene ahotik.

17. Erraten baituzu arberats naiz eta nasaitasunean, eta ez naiz nihoeren beharratan (sic), eta ez dakizu zarela dohakabe, eta urrikalgarri eta errumes eta itsu, eta bilhuzia.

18. Zure onagatik erraten darotzut niganik eros dezazun urhe suan garbitua, aberats zaitezentzat eta eman zaiten iaunsdura xuriarekin, ager ez dadien zure bilhuzitasunaren ahalkea, eta begi urez gantzu tzatzu zure begiek ikhus dezazuntzat.

19. Nik maite ditudanei berehobena erraten diotet eta azotatzen ditut. Phitz-zaite beraz eta egizu penitentzia.

20. Huna non nagoen athean, eta jotzen dudana; norbaitek aditzen badu ene oihua eta idekitzen badaut athea, sarthuko naiz hura baithan, eta afalduko naiz harekin, eta hura enekin.

21. Garhaitzen duena iarraraziko dut nerekin nere iartokian, nik ere garhaitu dudana bezala, eta iarri naizen bezala nere aitarekin haren tronuan.

22. Beharrik duenak adibeza izpirituak zer erraten dioten elizei.

LAUR GARREN KAPITULUA

1. Horietarik lekhora begiratu nuen eta hara athe bat zabaldua zeruan, eta lehenbizikorik aditu nuen botzak, tronpeta bat idurikoak, niri mintzo zelarik, zioen: igan zaite hunat eta erakutsiko darozkitut geroan gerthatuko direnak.

2. Eta ordu berean izatu ninzen izpituz (sic) nere baitharik altxatua, eta hara non alkhi bat emana zagoen zeruan, eta norbait alkian iarria.

3. Eta iarria zagoenak iduri zuen harri distiant haintz koloretakoa eta sarduana; eta bazen orzadar bat alkhiaren inguruan iduri baitzuen harri distiant pherdaratsa.

4. Eta alkhiaren inguruan hogoi eta laur iartoki, eta tronuen gainean hogoi eta laur zahar iarriak, xuriz iauntsiak, eta hekien buruetan urhe khorak.

5. Eta tronutik atheratzen ziren ximistak eta oihuak eta ortziak; eta zazpi argi phiztuak ziren tronuaren aitzinean hek baitira Iainkoaren zazpi izpirituak.

6. Eta tronuaren aitzinean berinazko itsaso bat bezala kristailla iduria, eta alkhiaren erdian, eta alkhiaren inguruan laur abre begiz betheak aitzinean eta gibelean.

7. Eta lehenbiziko abreak iduri zuen lehoina, eta bigarren abreak iduri zuen aratxea, eta hirur garren abreak zuen gizon begithartea bezalako bat, eta laur garren abreak iduri zuen hegaldatzen den arranoa.

8. Eta laur abrek bazituzten bakhotxak sei hegal, eta inguruan eta barneko aldean begiz betheak ziren. Eta baratu gabe gabaz eta egunaz zioten: Saindua, saindua, saindua, Iainko Iain guziz podoretsua, zeina baitzen, eta zeina baita, eta zeina ethorriko baita.

9. Eta abre hekiek loria eta ohore eta benedizione bihurtzen ziotelarik tronuan iarria zenari, bizi denari mendeen mendetan.

10. Hogoi eta laur zaharrak ahuspez ematen tronuan iarria zenaren, eta artikitzen zituzten beren khorak tronuaren aitzinera, ziotelarik:



11. Gai zare, gure Iainko Iauna, izateko loria eta ohore eta indar; zeren zuk ez deusetarik egin baitituzu guziak, eta zure nahiaz baitziren, eta eginak izan baitira.

BORTZ GARREN KAPITULUA

1. Eta ikhusi nuen tronuan iarria zenaren esku eskuinean liburu bat barnetik eta kanpotik eskribatua, zazpi zigiloz zigilatua.

2. Eta ikhusi nuen aingeru azkar bat oiuhu handiz erraten zuena: nor da gai dena liburuaren idekitzeko eta zigiloen khentzeko.

3. Eta nihork etzezakean, ez zeruan ez lurrean, ez lurraren azpian, liburua ideki ez hari begira.

4. Eta nik nasaiki nigar egiten nuen, zeren nihor etzen aurkhitu liburuaren idekitzeko, ez haren ikhusteko gai zenik.

5. Eta zaharretarik batek erran zerautan: Ez egin nigarririk; huna garhaitu du Judaren leinuko Lehoinak. Dabiten aldakak, liburuaren idekitze-kotzat eta haren zazpi zigiloen khentzeko.

6. Eta begiratu nuen; eta hara tronuaren eta laur abren erdian eta zaharren erdian non zagoen bildots bat xutik, hil balute bezalako moldean, baitzituen zazpi adar eta zazpi begi, hek dira Iainkoaren zazpi izpirituak, lurraren bazter guzietarat egorriak.

7. Eta ethorri zen, eta hartu zuen liburua tronuan iarria zenaren eskuineko eskutik.

8. Eta noiz ere ideki batzuen liburua, laur abreak eta hogoi eta laur zaharrak ahuspez eman ziren bildotsaren aitzinean, batzuek eta bertzek bazituztelarik harpa eta urhezko untzi batzu usain onez betheak, hek baitira sainduen othoitzak.

9. Eta khantatzen zuten kantika berri bat, ziotelarik: Gai zare, Iauna, liburuaren hartzeko, eta haren zigiloen barriatzeko, zeren hila izatu baitzare, eta erosi bakaitutzu Iainkoarentzat zure odolaz leinu eta mintzaire, eta populu eta iendeki guzietarik.

10. Eta egin gaitutzu errege eta aphez gure Iainkoarentzat, eta erre-ginatuko dugu lurraren gainean.

11. Eta beguiratu nuen eta aditu nuen tronuaren, eta abreen, eta zaharren inguruan aingeru askoren botza, eta baziren miletan milaka,

12. Oihuz erraten zutenak: gai da hila izatu den bildotsa, izateko ahal, eta Iaintasun, eta zuhurtzia, eta indar, eta ohore eta loria, eta benedizio-ne.

13. Eta aditu nituen kreatura guziak zerukoak, eta lurraren gainekoak, eta lurraren azpikoak, eta itsasoan daudenak, eta han diren gauzak,

guziak aditu nituen ziotela: tronuan iarria denari, eta bildotsari, benedizio-ne, eta ohore, eta loria, eta podore dela mendeen mendetan.

14. Eta laur abrek erraten zuten: halabiz. Eta hogoi eta laur zaharrak lurrean ahuspez eman ziren, eta adoratu zuten bizi dena mendeen mendetan.

SEI GARREN KAPITULUA

1. Eta ikhusi nuen bildotsak ideki zuela zazpi zigiloetarik bat, eta aditu nuen laur abretarik bat, erraten ortzia bezalako oiuhu batekin: Zato eta ikhus azu.

2. Eta begiratu nuen; eta hara zamari xuri bat, eta haren gainean iarria zenak bazuen balezta bat, eta eman zioten khoro bat, eta garhaitzale guan zen garhaitia bilha.

3. Eta ideki zuenean bi garren zigiloa, aditu nuen bigarren abrea erraten: zato eta ikhus azu.

4. Eta athera zen bertze zamari bat gorrhasta baitzen, eta haren gainean iarria zenari eman zioten ahala lurretik bakearen khentzeko, gizonek elgar hiltzeaten, eta eman zioten ezpata handi bat.

5. Eta ideki zuenean hirur garren zigiloa, aditu nuen hirur garren abrea erraten: zato eta ikhusazu. Eta hara zamari beltz bat, eta haren gainean iarria zenak bazuen balantza bat bere eskuan.

6. Eta aditu nuen botz bat laur abren erditik bezala erraten: bi libera ogik denario bat balia, hirur libera garagarrek denario bat balia, arnoa eta olioia beude diren bezala.

7. Eta ideki zuenean laur garren zigiloa, aditu nuen laur garren abrea mintzoa, zioela: zato eta ikhusazu.

8. Eta hara zamari herio kolore bat, eta haren ganean iarria zenaren izena zen herioa, eta ondotik zarraikon ifernua, eta hari eman zioten ahala lurraren laur aldetan, ienden hiltzeko ezpataz, goseteaz, izurriteaz, eta bassa ihiziez.

9. Eta ideki zuenean bortz garren zigiloa, ikhusi nituen aldare azpian Iainkoaren hitzagatik eta haren lekhuko izateagatik bizia eman zutenen arimak.

10. Eta goraki oihuz zauden, ziotela: Iauna, Saindua eta egiatiarra, noiz artekan zaude zuzen dena egiteko eta lurrean diren hekiei pairarazteko gure odolarentzat zor dutena?

11. Eta eman ziozkaten soingaineko xuri bedera, eta errana izan zitzaioten zaudetezen deskantsu oraino denbora guti bat, bethe zadien



arkhan hekien lagunen eta hekien anaia, hek bezala hilen zituztenen, khondua.

12. Eta ikhusi nuen, sei garren zigiloa ideki zuenean, eta horra non izatu zen lurikhara handi bat, eta iguzkia belz bilhakatu zen zurdazko sako bat bezala, eta ilhargia dena odola bezalakatu zen.

13. Eta izarrak zerutik lurrerat erori ziren, hala nola phiko ondo batek bere phikoak pherderik ixurtzen baititu, haize handi batek inharosten duenean.

14. Eta zerua bistatik guan zen liburu inguratuz bildu bat bezala; mendi guziak, eta urarteak bere tokietarik higituak izatu ziren.

15. Eta lurreko Erregeak, eta handiak, eta soldado aitzindariak, eta aberatsak eta indar handitakoak, eta gizon gathiboak eta bere buruen nausi zirenak, guziak gorde ziren lurreko zilho barnetan eta mendietako harroka artetan.

16. Eta erran zioten mendiei eta harrokei: eror zaitezte gure gainerat eta gorde gaitzatzue tronua gainean iarria denaren begitarteari, eta geriza bildotsaren hasarretik.

17. Zeren ethorri baita hekien hasarrearen egun handia. Eta nork ihardokiren du?

ZAZPI GARREN KAPITULUA

1. Horietarik lekhora ikhusi nituen laur aingeru lurraren laur izkine-tan zaudenak, lurreko laur haizeak atxikitzen zituztenak, etzezarentzat haize egin ez lurraren ganerat, ez itsaso gainerat, ez suhaitz batetarat ere.

2. Eta ikhusi nuen bertze aingeru bat iguzki atheragiatik igaten bere-kin zuena Iainko biziaren marka. Eta oiuhu handi bat egin zioten laur ain-geruei, lurrari eta itsasoari kalte egiteko indarra izan zutenei,

3. Zioelarik: ez egin kalterik lurrari eta itsasoari, ez eta zuhaitzei, gure Iainkoaren zerbitzariak bere kopetetan markatu dituzkegun artean.

4. Eta aditu nuen zenbat ziren markatuak; ehun eta berrogoi eta laur mila baziren markatuak Israelgo leinu guzietarik.

5. Judaren leinutik hamabi mila markatuak; Rubenen leinutik, hamar mila markatuak; Gaden leinutik hamabi mila markatuak;

6. Aseren leinutik hamabi mila markatuak; Neftaliren leinutik hama-bi mila markatuak; Manaseren leinutik hamabi mila markatuak;

7. Simeonen leinutik hamabi mila markatuak; Leviren leinutik hama-bi mila markatuak; Isakarren leinutik hamabi mila markatuak;

8. Zabulonem leinutik hamabi mila markatuak; Iosefen leinutik hamabi mila markatuak; Benyaminen leinutik hamabi mila markatuak.

9. Honen ondotik ikhusi nuen oste handi bat, nihork khonda etza-kena iendaki eta leinu, eta populu eta mintzaire guzietarik; xutik tronua-ren aitzinean eta bildotsaren aitzinean, soin xuriz iauntsiak, eta garhaiti seinhaleak, hekien eskuetan.

10. Eta gora gora oihuz zauden ziotela: bethiko egun on gure Iain-koari tronu gainean iarria dagoenari, bai eta bildotsari.

11. Eta aingeru guziak xutik zauden tronua-ren, eta zaharren eta laur abren inguruan; eta ahoz behera erori ziren tronua-ren aitzinean eta ado-ratu zuten Iainkoa,

12. Ziotelarik: Bai. Benedizione, eta ospe eta zuhurtzia, eta esker eta ohore, eta ahal handi eta indar gure Iainkoari mendeen mendetan. Hala-biz.

13. Eta zaharretarik bat mintzatu zen, eta erran zerautan: nor dire soin xuriz iauntsiak diren hauk, eta nondik ethorriak dire?

14. Eta ihardetsi nion: nere Iauna, zuk dakizu; eta erran zerautan: hauk dire ethorri direnak deboilamendu handi batetarik, eta bere soinak garbitu dituztenak eta xuritu dituztenak bildotsaren odolean.

15. Horrengatik dire Iainkoren tronua-ren aitzinean, eta zerbitzatzen dute gau eta egun haren tenploan; eta tronuan iarria dena egonen da hekien buruzagi.

16. Ez dute izanen goserik ez egarririk gehiago; ez iguzkiak ez edo-zein berok ez ditu erreko.

17. Zeren bildots tronua-ren erdian denak zainduko baititu eta era-manen bizizko ur ithurburuatarat; eta xukhatuko ditu Iainkoak nigarrak osoki hekien begietarik.

ZORTZI GARREN KAPITULUA

1. Eta ideki zuenean zazpi garren zigiloa, ixiltasuna izan zen zeruan, oren erdi baten ingurua.

2. Eta ikhusi nituen Iainkoaren aitzinean dauden zazpi, eta emanak izan zitzaizkoten zazpi tronpeta.

3. Eta ethorri zen bertze aingeru bat, eta baratu zen xutik aldare aitzinean, eskuan zuelarik urhezko gisentsatzeko bat, hari eman zioten gisentsu asko eman zezantzat Saindu guzien othoitzetarik urhezko alda-rearen gainean, zeina baita Iainkoaren tronua-ren aitzinean.

4. Eta igan zen sainduen othoitzetarikako gisentsuen khea aingerua-ren eskutik Iainkoaren aitzinera.



5. Eta hartu zuen aingeruak gisentsatzekoa, eta bethe zuen aldareko sutik; eta artiki zuen lurrerat; eta izan ziren ortziak, eta oihuak, eta xismistak, eta lur ikhara handi bat.

6. Eta zazpi aingeru zazpi tronpetak zituztenak tronpeta iotzeko molduran eman ziren.

7. Eta lehen aingeruak io zuen tronpeta eta egin zen harri eta su odol-lestatua, eta artikia izatu zen lurrerat, eta lurraren herena erre zen eta zuhaitzen herena erre zen eta belhar pherde guzia suntsitua izatu zen.

8. Eta bigarren aingeruak io zuen tronpeta, eta mendi handi sutan zena bezalako bat artikia izan zen itsasorat, eta itsasoaren hiruretarik bat odol bilhakatu zen.

9. Eta hil zen itsasoan bizia zuten kreaturen herena eta untzien here-na galdu zen.

10. Eta hirur garren aingeruak tronpeta io zuen; eta erori zen zerutik izar handi bat, gabaz argitzeko bat bezala su garretan zena eta erori zen ur handien hiruretarik bat, eta ithurburuetara.

11. Eta izar hura deitzen da arxintxo; eta uren herena arxintxo bilhakatu zen eta ur hekiek gizon asko hilarazi zuten khiratstuak zirelaketz.

12. Eta lau garren aingeruak tronpeta io zuen; eta iguzkiaren herenak kolpe bat izan zuen bai eta ilhargiaren herenak bai eta izarren herenak, halako moldez non hekien hiruretarik bat ilhundu baitzen eta egunak eskas baitzuen hetarikako argiaren hiruretarik bat, eta gabak orobat.

13. Eta ikhusi nuen eta aditu nuen zeruaren erditik hegaldaka zohan arrano baten botza, zeinak borthizki oihu egiten baitzuen: zorigaitz, zorigaitz, zorigaitz lurrean bizi direnei bertze hirur aingeru tronpeta iotzekoa dutenen botzetarik.

BEDERATZI GARREN KAPITULUA

1. Eta bortz garren aingeruak io zuen tronpeta, eta ikhusi nuen izar bat erori zela zerutik lurrerat, eta emana izan zitzaion lezeko phutzuaren gakhua.

2. Eta ideki zuen lezeko ziphua; eta altxatu zen phutzuko khea labe handia batekoa bezala, eta iguzkia eta airea ilhundu ziren phutzutikako khez.

3. Eta ziphuko khetik athera ziren lurrerat larrapotak, eta eman zitzaizoten ahala lurreko haruliek duten bezalako.

4. Eta manatu zitzaizoten etzezen kalterik egin lurreko belharrari, ez edozen gauza pherderi, ez zuhaitz bati ere; baina bakharrak Iainkoaren marka kopetan etzuten gizonei.

5. Eta ahala eman zitzaizoten, ez hekien hiltzeko, baina hekiei pairarazteko bortz hilabetez; eta hek egin mina zen, haruliak gizona asikitzean egiten dion mina bezalako.

6. Eta egun hetan gizonek herioa bilhatuko dute eta ez dute hatze-manen; eta hil nahiko dira, eta herioak ihes egiten diote.

7. Eta larrapoten karak iduri zuen zaldi gudura guateko antolatuen; buruan bazituzten urhe khorak bezalako batzu, eta hekien muthurrak gizon begithartea bezalakoak ziren.

8. Eta bazituzten ileak emazte ileak idurikoak eta hekien hortzak lehoin hortzak bezala ziren.

9. Eta bazituzten soiburniak, burdinazko soiburniak iduriak eta hekien hegalek harrabotsak iduri zuen, asko zaldik gudura galupan daramatzen organ harrabotsa.

10. Eta buztanak zituzten harulienak idurikoak, eta eztenak baziren hekien buztanetan; eta hekien ahala zen gizonei kalte egiten haritzeko bortz hilabetez eta beren buruan zuten.

11. Erregetzat leze handiko aingerua zeinaren izena baita hebreoz Abaddon, Grekoz aldiz Apollion, latinez deitzen da Etsterminans (erran nahi da, guziak erhautsten dituen).

12. Zorigaitz bat iragan da, eta horra non ondotik heldu diren oraino bi zorigaitz.

13. Eta sei garren aingeruak io zuen tronpeta, eta aditu nuen botz bat Iainkoaren begien aitzinean den urhezko aldarearen laur ezkinetarik,

14. Zerreen Sei garren aingeru tronpetadunari: desamarra tzatzu Eufrateko ur handi handian amarratuak diren laur aingeruak.

15. Eta desamaratuak izatu ziren laur aingeruak zeinak molduraturik baitzauden oreko eta eguneko, eta hilabetez eta urteko, gizonen herenaren hiltzera.

16. Eta zaldidun armadaren zenbatea zen hogoi miletan hamar mila, ezen aditu nuen hekien zenbatea.

17. Eta hunela ikhusi nituen zaldiak ikhuskarian, eta hekien gainean iarriak zirenek bazituzten soiburniak susko moredin harritzko eta sofrezkoa eta zamarien buruak lehoin buruak bezalakoak ziren; eta ahotik bazarrioten sua eta khea eta sofrea.

18. Eta gizonen herena hil zen hirur zauri horietaz, hekien ahotik atheratzen ziren su eta khea eta sofrea.

19. Ezen zamari hekien podorea hekien ahoan da eta hekien buztanetan; ezen hekien buztaneko iduri dute sugeak, badituzte buruak eta hekiek kolpeak egiten dituzte.



20. Eta zauri horiek hil etzituzten bertze gizonek etzuten urrikirik izan beren eskuen obrez etziren gibelatu debruen adoratzetik ez eta urhezko, eta zilharrezko, eta metalezko, eta harrizko, eta zurezko idurien, zeinek ez baitezakete ez ikhus ez adi ez urhatsik egin.

21. Eta etzuten penitentzia egin beren gizon hilzez, ez phozoinda-tzez, ez beren lohikeriez, ez eta beren ohointzez.

HAMAR GARREN KAPITULUA

1. Eta ikhusi nuen bertze aingeru azkar bat zerutik iautsten, hedoi batez inguratua, eta ortzadar bat bere burugainean; eta haren begitharteak iduri zuen iguzkia, eta haren zangoek susko koloma batzu.

2. Eta bazuen bere eskuan liburutxo bat zabaldua; eta eman zuen eskuineko zangoa itsasso gainean eta ezkerrekoa lurraren gainean.

3. Eta egin zuen oihu deiadar handi bat, lehoinak orroa egiten duenean bezala; eta oihu egin zuenean zazpi ortzik adiarazi zituzten beren botzak.

4. Eta adiarazi zituztenean zazpi ortziek beren mintzoak, ni eskribatzera nindohan; eta aditu nuen botz bat zerutik erraten zerautana: zigila tzatzu zazpi ortziek erran dituztenak, eta hek ez eskriba.

JAUN DONE JOANI APOSTOLUAREN APOKALIPZA - 2

LEHENBIZIKO KAPITULUA

1. Jesu-Kristoren Apokalipza, Jainkoak eman dioena, laster gerthatu beharrak direnen agertzekotzat bere zerbitzariei; eta ezagutza eman dio, bere aingerua igorritz Joani bere zerbitzariari,

2. Zeinak Jainkoaren hitzari lekhukotasun bihurtu baitio, eta Jesu-Kristoren lekhukotasuna hura ikhusi izan duten guziei.

3. Dohatsu profezia hunetako hitzak, irakurtzen eta entzuten dituen, eta hunetan iskribatuak daudezinak begiratzen dituen, ezen tenorea, hurbildua da.

4. Joanik Asian diren zazpi elizei. Grazia eta bakea zuei denaganik, eta zenaganik, eta ethorriko denagatik; eta haren tronuaren aitzinean daudezin zazpi izpirituenganik.

5. Eta Jesu-Kristoganik, zeina baita lekhuko leiala, hiletarik lehenbiziko sorthua, eta lurreko erregeen buruzagia, gu maithatu gaituena eta garbitu gure bekhatuetarik bere odolean,

6. Eta gu egin izan gaitu Jainkoaren eta bere Aitaren erresuma eta aphez, hari gloria eta buruzagitasuna menderen mendetan. Halabiz.

7. Huna non heldu den hedoiekin, eta edo-zein begik ikhusiko du, eta hura zilhatu dutenek ere bai. Eta hura ikhustean, lurreko jendaia guziek joko dituzte bulharak. Bai. Halabiz.

8. Ni naiz alfa eta omega, hastea eta akhabantza, dio Jainko Jaunak; denak, eta zenak, eta ethorriren denak, guziz ahaldunak.

9. Ni, Joani, zuen anaia eta laguna atsekabean, eta erresuman, eta jasaitean Jesu-Kristo baithan; izatu naiz, Patmoze deitzen den irlan Jainkoaren hitzagatik eta Jesusi egin lekhukotasunagatik.

10. Igande egun batez, gogotan eraikia izan nintzen, eta aditu nuen ene giblean mintzo gaitz bat, hala-nola turutarena,

11. Zioena: Ikhusten dukana ezar zazu iskribuz liburu batean, eta bidal zazu Asian diren zazpi elizei, Efesan, eta Esmirnan, eta Pergamen, eta Thiatiran, eta Sardesen, eta Filadelfian, eta Laodizean.

12. Eta itzuli izan nintzen ikhustekotzat niri hari zitzaitan mintzoa; eta itzuli nintzenean, ikhusi nintuen urhezko zazpi gandereilu.



13. Eta zazpi gandereilu urhezkoen erdian Gizonaren-Semea iduri zuen norbait, soineko luze bat jauntzia eta urhezko gerriko batez bulhar azpian tinkatua.

14. Haren burua berriz eta ileak xuriak ziren ardi ilea bezala eta elhurrar bezala; eta haren begiekugarra iduri zuten.

15. Eta haren oinek iduri zuten letoina, labe gorrian bezala, eta haren mintzoak iduri zuen ur handien orroa.

16. Eta bazaduzkan zazpi izar bere esku eskuinean, eta haren ahotik ilkhitzen zen ezpata bat bi aldeetarik zorroztua, eta haren begitharteak argitzen zuen hala-nola iguzkiak bere indarrean.

17. Eta hura ikhusi nuenean, erori nintzen hila iduri haren oinetara. Eta bere esku eskuina gainean ezarri zarotan, zioelarik: Etzaitezela izi, ni lehena naiz eta azkena.

18. Eta bizi naizena, eta hila izatu naiz eta huna non bizi naizen menderen mendetan, eta nik daduzkat heriotzearen gakhoak eta ifernukoak ere.

19. Ezartzkitzu bada iskribuz ikhusten ditutzunak, eta direnak, eta haukien ondotik gerthatu behar direnak.

20. Huna ene esku eskuinean ikhusi ditutzun zazpi izarren misterioa, eta zazpi gandereiluena, zazpi izarak dira zazpi elizen aingeruak, eta zazpi gandereiluak, zazpi elizak dira.

BIGARREN KAPITULUA

1. Iskriba zozu Efesako elizaren Aingeruari: Huna zer dioen zazpi izarrek bere esku eskuinean daduzkatzenak, eta zazpi urhezko gandereiluen artean dabilanak.

2. Badakizkit zure eginak, eta nekheak, eta egartzeak, eta nola gaixtaginak ezin jasan ditzazketzun, eta haztatu ditutzula apostolu zirela erraileak, hala etzirelarik, eta gezurretan atzeman ditutzu.

3. Eta jasankor zare, eta egarri izan duzu ene izenagatik, eta ez duzu ukho egin.

4. Bainan badut zuretzat erraiteko bat, zeren eta bazterrerat utzi duzun zure leheneko karitatea.

5. Orhoit zaite beraz nondik zaren erori, eta egizu penitentzia, eta bihur zaite leheneko egintzetara. Ezen bertzela, heldu natzaitzu, eta kenderuko darotzut zure gandereilua bere lekhitik, ez baduzu egiten penitentzia.

6. Hau ordean baduzu, higuin dituzu alabainan Nikolatiarren egitateak, zeinak hastio baititut nik ere.

7. Beharrik duenak entzun beza Izpirituak elizei diotena: Garhaileari emanen diot jan dezan bizitzeko zuhaitzetik, zeina baitago ene Jainkoaren pharabisuan.

8. Eta Esmirnako Elizaren aingeruari iskriba zozu: Huna zer dioen lehena eta azkena denak, hil izan eta bizi denak:

9. Badakizkit zure atsekabea eta behartasuna, bainan zare aberats, eta zuretzat gaizkika mintzo dira Juduak direla erraiten dutenak, eta hala ez direlarik, bainan bai Satanen biltzar direnak.

10. Jasaitera zohazenez ez izan beldurrik batere. Huna non debruak zuetarik zenbait sartuko dituen presondegian, gaizkirat tarritatuak izan ditezentzat, eta atsekabe izanen duzue hamar egunez. Zaude gogor heriotzeraino, eta nik emanen darotzut bizitzeko khoroa.

11. Beharrik duenak entzun beza Izpirituak elizei diotena: Garhaile atherako denak ez du bidegaberik izanen bigarren heriotzetik.

12. Eta iskriba zozu Pergamako elizari: Huna zer dioen bi aldeetarik zorrozturikako ezpata dadukanak.

13. Badakit non duzun egoitza, S

atanen alkhia dagoen tokian dela, eta ihardukitzen duzu ene izena, eta ez duzu ukhatu ene sinhestea. Ez-etare egun hekietan zeinetan Antipas, ene aithorle leiala hila izan baitzen zuen artean, non baitaduka Satanek bere egoitza.

14. Bainan badut zure alderat erraiteko zerbait; zeren hor baditutzun dadukatenak Balaamen irakaspenarentzat, zeinak Balaki irakasten baitzioen galbide atheratzin Israelgo semeen aitzinera, sori etziren gauzetarik janarazten, eta lerrarasten lohikeriarat.

15. Hala-hala eta zuk oraino badituzu Nikolatiarren irakaspenarentzat dadukatenak.

16. Orobat egizu penitentzia, bertzela horrako natzaitzu laster, eta hekiei gudu emanen diotet ene ahoko ezpatarekin.

17. Beharrik duenak entzun beza Izpirituak elizei diotena: garhaizea daramanari emanen diot mana gordea eta harri xuritto bat emanen diot, eta harriaren gainean iskribatua izen berri bat, hartzaileak baizik, nihork ez dakiena.

18. Eta iskriba zazu Thiatirako elizaren aingeruari: Huna zer dioen Jainkoaren Semeak, zeinak baititu begiak su-garraren pareko, eta zangoak letoina iduriak.

19. Ezagutzen ditut zure eginak, eta sinhestea, eta zure karitate eta erabiltzea, eta zure jasankortasuna, eta zure azkeneko eginak lehenekoak gainditzen dituztenak.



20. Bainan badut zure alderat erraiteko zerbait: uzten duzulakotz Jesabel, emazteki profetatzat bere burua ematen duen bat, irakhaspen egitera, eta ene zerbitzarien enganatzera, hekiek lohikerietan erorraztera, eta Jainkoaizunei eskainietarik janaraztera.

21. Eta eman izan diot penitentzia egiteko astia, eta ez du nahi bere lohikeriaz urrikitar ehorti.

22. Huna bada jarraziren dut ohaturik, eta harekin khutsatu direnak, hesturarik gaitzanean izanen dira, baldin ez badute beren tzarkeriez penitentzia egiten.

23. Eta haren semeak heriotzez hilen ditut, eta eliza guziak jakintsun eginen dira, ni naizela galtzarrak eta bihotzak ondoraino haztatzen ditudana, eta zuetarik bat-bederari eginen diot bere egiteen arabera. Zuei berriz, erraiten darotzuet,

24. Eta gainerako Thiatiran zaretenei: Irakaspen huntan ez dauden guziak, eta ezagutu ez dutenak Satanen maltzurkerien handia, berek dioten bezala, ez darotzuet bizkarrera emanen gehiagoko kargarik.

25. Bainan behintzat, dadukazuena begira zazue ni ehorti bizkitartean.

26. Eta garai atherako denari eta ene egintzak azkeneraino begiratu ditukeenari nausitasuna emanen diot jendaiei gainean,

27. Eta erabiliko ditu burdinazko zigorraz, eta lurrezko untzi bat bezala izanen dira zathikatuak,

28. Nik ere ene Aitarenganik hartu izan dudana bezala, eta emanen diot goiztiriko izarra.

29. Beharrik duenak entzun beza izpirituak elizei diotena.

HIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta iskriba zozu Sardeseko elizaren Aingeruari: Huna zer dioen Jainkoaren zazpi izpirituak eta zazpi izarrak daduzkanak: Badakizkit zure eginak, baduzula bizi zarelako izena, eta hila zarela.

2. Zaude atzarri, eta gothur zazu bertze hiltzera zihoazenak: ez ditut ezen zure egintzak betheak aurkitzen ene Jainkoaren aitzinean.

3. Gogoan har zazu beraz zer izan eta zer aditu duzun, eta begira zazu, eta penitentzia egin. Ez bazaude ordean atzarria, ehortriko natzaitzu ohoina bezala eta ez duzu jakinen zein orduz ehortriko natzaitzun.

4. Hargatik Sardesen badituzu izen bakhar batzuek beren soinekoak zikhindu ez dituztenak; eta hetxek enekin ibiliko dira soineko xuritan, zeren mereztun baitira.

5. Garhaizia eramanen duena horrela izanen da soineko xuriz jaunzia, eta haren izena ez dut bizitzeko liburitik ezeztatuko, eta aithortuko dut haren izena ene Aitaren aitzinean, eta haren aingeruen aitzinean.

6. Beharrik duenak entzun beza Izpirituak elizei diotena.

7. Eta iskriba zozu Filadelfiako elizari: Huna zer dioen Sainduak eta Egatiak, Dabiten gakhua dadukanak, zeinak idekitzen baitu, eta nihork ez du hersten; zeinak hersten baitu, eta nihork ez du idekitzen.

8. Badakizkit zure eginak. Huna non aitzinean idekirik ezarri darotzutan nihork herts ez dezakeen sarbidea; indar guti duzulakotz, eta ene hitza duzulakotz, begiratu, eta ez duzulakotz ukhatu ene izena.

9. Huna non Satanen bilkhotik emanen darozkitzutan Juduak direla erraile batzuek, eta ez dira hala, bainan gezurrez dira mintzo. Huna non ehortraraziko ditudan, eta khurtuko dira zure aitzinean, eta jakintsun eginen dira nola zaitudan maite.

10. Begiratu duzulakotz ene jasanpeneko hitza, nik ere begiraturen zaitut frogetako orduan, zeina ehortzekoa baita mundu guzira lurrean bizi direnen frogatzera.

11. Huna non heldu naizen berehala, idukazu eskuan duzuna, nihork har ez dezan zure khoroa.

12. Garhaile atheratzen denaz habe bat eginen dut ene Jainkoaren tenploan, eta ez da gehiago kanporat ilkhiren; eta haren gainean iskribatuko dut ene Jainkoaren izena, eta ene Jainkoaren hiriaren izena, Jerusalem berriarena, zerutik jausten dena ene Jainkoaganik, eta ene izen berria.

13. Beharrik duenak entzun beza Izpirituak elizei diotena.

14. Eta iskriba zozu Laudizeako elizaren aingeruari: Huna zer dioen Egiak, lekhuko leial eta egiazkoak, zeina baita Jainkoaren kreaturen hasburua.

15. Badakizkit zure eginak, etzutela ez hotza ez beroa, balinba bazine edo hotz edo bero.

16. Bainan ephela zarelakotz, eta etzarelakotz ez hotza ez eta beroa, hasiko natzaitzu arthikitzen ene ahotik.

17. Erraiten baituzu: Aberats naiz, eta onthasundun, eta ez naiz, nihoren behar; eta ez dakizu zarela erromes, eta urrikaltzeko, eta behar, eta itsu, eta buluz.

18. Sinhets nezazu, eros dizadazut suan garbiturikako urhea, aberats zaitezentzat, eta jauntz detzatzuntzat soineko xuriak ager ez dadien zure buluztasunaren ahalkeria, eta uronez busti zatzu zure begiak ikhuz dezauntzat.



19. Nik ene maiteak larderiatsen ditut eta azotutzen. Erna zaite beraz, eta egizu penitentzia.

20. Huna non nagoen athe aitzinean, eta jotzen dut; nihork aditzen badu ene hela, eta idekitzen badarot athea, sarthuko naiz harengana, eta afalduko naiz harekin eta hura enekin.

21. Garhaile atherako dena jarraraziko dut enekin ene tronuan, nik ere garhaitu izan dudana bezala, eta jarri izan naizen bezala ene Aitarekin haren tronuan.

22. Beharrik duenak entzun beza Izpirituak elizei diotena.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Gero ikhusi izan nuen; eta huna athe bat idekia zeruan; eta turuta bat bezala niri mintzatzen lehenbizian aditu izan nuen mintzoak erran zarotan: Igan zaite hunat eta erakutsiren darozkitzut horien ondoan gert-hatu behar direnak.

2. Eta ordu berean gogotan eraikia izan nintzen; eta huna jarlekhu bat ezarria zen zeruan, eta jarlekhuen gainean norbait jarriarik.

3. Eta jarria zagoenak iduri zuen jaspe eta zardoniz harria, eta jarlekhuen inguruan bazen ortzadar bat esmeralda iduri zuena.

4. Eta jarlekhuen inguruan baziren bertze hogoi eta lau jarlekhu, zeinen gainean hogoi eta lau zahar jarriak eta soineko xuritan jauntziak, eta hekien buruetan urhezko khorok.

5. Eta tronutik ilkhitzen ziren simistak, eta garrasiak, eta ortziarik; eta tronuen aitzinean baziren zazpi argi biztuak, zeinak baitira Jainkoaren zazpi izpirituak.

6. Eta bazen tronuen aitzinean berinazko itsaso bat bezala kristaila iduri, eta jarlekhuen erdian eta jarlekhuen inguruan zauden lau abere aitzin-gibetan begiz betheak.

7. Eta lehenbiziko abereak iduri zuen lehoina, eta bigarrenak aratxea, eta hirugarren abereak zuen begitharte bat gizonarena bezalakoa, eta laugarren abereak iduri zuen hegaldaka dohan arranoa.

8. Eta lau abereak bazituzten seira hegal, eta inguruan eta barneko aldean betheak ziren begiz. Eta ez gabaz, ez egunaz, atsik hartu gabe, erraiten zuten: Saindu, Saindu, Saindua Jainko Jauna, guziz ahalduna, zeina baitzen, eta zeina baita, eta zeina ethorriko baita.

9. Eta abere hekiek haritzen zirenean gloria, ohore eta benedizione ematen tronuen gainean jarria zagoenari, menderen mendetan bizi denari,

10. Ahuspez erortzen ziren hogoi eta lau zaharrak tronuan jarria zagoenaren aitzinean eta adoratzen zuten menderen mendetan bizi dena eta beren khorok tronua aitzinera arthikitzen zituzten, ziotelarik:

11. Badagokizu gure Jainko Jauna, bihur dakizun gloria, eta ohore, eta indarra: Zeren Zuk egin baitituzu guziak, eta Zure nahiz baitziren, eta eginak baitira.

BORTZGARREN KAPITULUA

1. Eta ikhusi nuen tronuan jarriarik zagoenaren esku eskuinean liburu bat barnetik eta kanpotik iskribatua, eta zazpi zigiluz joa.

2. Eta ikhusi nuen aingeru borthitz bat goraki oihu egiten: liburua-zen zabaltzea eta zigiluen urratzea dagokioenik nor da?

3. Eta nihor etzen ez zeruan, ez lurlean, ez luphean ere, liburua zabal zezakeenik, ez-etare hari begira.

4. Eta ni nigar minetan nindagoen nihor etzelakotz gai aurkhitu liburua-zen zabaltzeko, ez-etare haren ikhusteko.

5. Eta zaharretarik batek erran zarotan: Ez egin nigarrik; huna non Judaren tribuko lehoinak, Dabiten semeak, irabazi duen liburua-zen zabaltzeko eta zigiluen urratzeko botherea.

6. Eta ikhusi nuen; eta huna tronua-zen erdian, eta lau abereen artean, eta zaharren erdian, Bildots bat xutik, hila iduri; bazituen zazpi adar eta zazpi begi, zeinak baitira Jainkoaren zazpi izpirituak, lur guzira igorriak direnak.

7. Eta ethorri zen, eta hartu zuen liburua tronuan jarria zagoenaren eskuineko eskutik.

8. Eta liburua zabaldu izan zuenean, lau abereak, eta hogoi eta lau zaharrak ahuspez eman ziren Bildotsaren aitzinean, guziek eskuetan zaduzkatelarik maniurrak eta untzi batzuek betheak usain onez, zeinak baitira sainduen othoitzak.

9. Eta kantatzen zuten kantika berri bat, ziotelarik: Badagokiozu, Jauna, liburua-zen zabaltzea eta hartako zigiluen urratzea, zeren izan baitzare heriotzez hila, eta Jainkoarentzat zure odolaz erosi baikaituzu leinu, eta mintzaia, eta populu, eta jendaki guzietarik.

10. Eta egin izan gaituzu gure Jainkoarentzateko errege, eta aphez, eta erreginaturen gare lurraren gainean.

11. Eta ikhusi nuen, eta aditu hainitz aingeruen boza tronua-zen, eta abereen, eta zaharren inguruan, eta hekien ostea mila-milinenetara igaiten zen,



12. Goraki oihuz ziotelarik: Badagokio hila izan den Bildotsari ardiestea berthutea, eta Jainkotasuna, eta zuhurtzia, eta indarra, eta ohorea, eta gloria, eta benedizioea.

13. Eta zeruan, eta lurraren gainean, eta luphean diren guziei, eta itsasoan eta haren barnean direnei, orori aditu nioten erraiten: Tronuan jarria dagoenari, eta Bildotsari: Benedizioe, eta ohore, eta gloria, eta bothere menderen mendetan.

14. Eta lau abereek erraiten zuten: Halabiz. Eta hogoi eta lau zaharrak ahuspez erori ziren, eta adoratu zuten menderen mendetan bizi dena.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta ikhusi nuen Bildotsak ideki zuela zazpi zigiluetarik bat, eta aditu nuen lau abereetarik bat, ortziraren boza bezalako batekin: zato eta ikhus zazu.

2. Eta ikhusi nuen, eta huna zaldi zuri bat, eta haren gainean jarria zenak bazuen balazta bat eta eman zioten khoro bat, eta garaitzaile garaitzerat athera zen.

3. Eta ideki zuenean bigarren zigilua, bigarren aberea aditu nuen erraiten: Zato eta ikhus zazu.

4. Eta athera zen bertze zaldi bat gorra, eta haren gainean jarria zenari emana izan zitzaioen bakea lurretik khentzea, eta gizonak beren artean hilka hariaraztea, eta emana izan zitzaioen ezpata handi bat.

5. Eta ideki zuenean hirugarren zigilua, hirugarren aberea aditu nuen erraiten: Zato eta ikhus zazu. Eta huna zaldi beltz bat, eta haren gainean zenak balantza bat eskuan bazadukan.

6. Eta aditu nuen boz bat bezala lau abereen artetik erraiten: Erregu ogia otxinean eta hiru erregu garagar otxinean, eta arnoari, eta olioari ez uki.

7. Eta ideki zuenean laugarren zigilua, aditu nuen laugarren aberearen boza erraiten: Zato eta ikhus zazu.

8. Eta huna zaldi hits bat, eta haren gainean jarria zenak izena zuen Herioa, eta zarraikioen ifernua, eta eskua emana izan zitzaioen lurraren lau bazterretan jendea hilarazteko ezpataz, eta gosetez, eta izurritez, eta lurreko abere basez.

9. Eta ideki zuenean bortzgarren zigilua, ikhusi nituen aldarepean, Jainkoaren hitzagatik, eta ekharri zuten lekhukotasunagatik hilak izan zirenen arimak.

10. Eta deihadar handitan hari ziren, ziotelarik: Noiz arteo, Jauna, (saindu eta egiati zarena) egonen zare zuzenari bere bidea emateko, eta gure odolari asperkunde lurrean bizi diren horietarik?

11. Eta bakhotxari emana izan zitzaioen soineko xuri bat, eta errana izan zitzaioten igurik zezaten aphur bat oraino, bethe zedin artekan hekien zerbitzari-lagun eta anaia, hekiek bezala hiltzekoak zirenen mol-tzoa.

12. Eta ikhusi nuen, ideki zuenean seigarren zigilua; eta huna lur-ikhara handi bat egin izan zen, eta iguzkia belztu zen ilezko zakhu bat bezala, eta ilhargia dena odola bezala egin izan zen.

13. Eta izarrak zerutik erori ziren lurrera, pikondoak bere pikoak ixurtzen dituen bezala, haize handi batek iharrostean duenean.

14. Eta zerua bildu zen, liburu bat biribilkatzen den bezala, eta mendi guziak eta irlak jauzi izan ziren beren tokitarik.

15. Eta erregeak, eta buruzagiak, eta soldadu aitzindariak, eta aberatsak, eta botheredunak, eta gathibu guziak eta hala etzirenak, gorde ziren oro harziloetan eta mendietako harkadietan.

16. Eta erraiten zioten mendiei eta harkadiei: Eror zaitezte gure gainera, eta gorde gaitzatze tronuan jarria dagoenaren ikhusmenetik eta Bildotsaren haserretik,

17. Zeren ethorri baita hekien hasarrearen egun gaitza; eta nork irau-nen duke?

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Horietarik lekhora, ikhusi nituen lau aingeru lurraren lau izkinetan xutik, lurreko lau haizeak atxikitzen zituztela, eman etzezatentzat lurraren gainera, ez-eta itsasora, ez-eta-ere zuhaitz bakhar baten gainera.

2. Eta ikhusi nuen bertze aingeru bat iguzki-sortzetik igaiten, Jainko biziaren seinalea zadukala, eta lurrari eta itsasoari bidegabe egiteko eskua zuten lau aingeruei oihu handi bat egin zioten,

3. Erraiten ziotelarik: Ez egin lurrari, ez itsasoari, ez-eta zuhaitzei kalterik kopetetan hatz bat ezar dezotegun artean Gure Jainkoaren zerbitzariei.

4. Eta aditu nuen zenbatekoa zen hatzaz joak izan zirenen ostea, ehun eta berrogoi-ta-lau mila hatzaz bereziak Israelen semeen ondore guztitarik.

5. Judaren leinutik hamabi mila hatzaz bereziak: Rubenen leinutik, etc.; Gaden leinutik, etc.;



6. Aserren leinutik, etc.; Neftalien leinutik, etc.; Manazeen leinutik, etc.;
7. Zimeonen leinutik, etc.; Lebien leinutik, etc.; Isakharren leinutik, etc.;
8. Zabulonon leinutik, etc.; Josepen leinutik, etc.; Benjaminen leinutik hamabi mila hatzaz bereziak.
9. Ikhusi nuen gero, nihork khonda etzezakeen oste handi bat jendaki, eta leinu, eta populu, eta mintzaia orotarikakoa, tronuaaren eta Bildotsaren aitzinean xutik, soineko xuritan eta palmak eskuetan.
10. Eta goraki oihuz zauden, erraiten zutelarik: Agur gure Jainko tronuan jarria dagoenari eta Bildotsari.
11. Eta aingeru guziak xutik zauden tronuaaren, eta zaharren, eta lau abereen inguruan; eta ahuspez erori ziren tronuaaren aitzinean, eta adortu zuten Jainkoa,
12. Ziotelarik: Biz, benedizioa, eta ospea, eta zuhurtzia, eta esker-rra, eta ohorea, eta botherea, eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Halabiz.
13. Eta zahar bat mintzatu zen eta erran zarotan: Nor dira soineko xuritan dauden horiek? eta nondik ethorri dira?
14. Eta ihardetsi nioen: Jauna, badakizu zuk. Eta erran zarotan: Horiek dira atsekabe handien artetik hunat ethorri direnak, eta beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu eta xuritu dituztenak.
15. Hargatik daude Jainkoaren tronuaaren aitzinean, eta gau eta egun hura zerbitzatzen dute bere tenploan; eta tronuaaren gainean jarria dena hedatuko da horien gainera.
16. Ez dute gehiago ez goserik ez egarririk ikhusiko; eta horien gainean ez dute joko ez iguzkiak, ez bero baterek.
17. Zeren tronuaaren erdian dagoen Bildotsa izanen baita horien artzain, eta edaranen baititu bizitzeko ithur-uretan, eta Jainkoak horien begietan xukhatuaren baititu nigar guziak.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta ideki izan zuenean zazpigarren zigilua, zerua ixilik gelditu zen oren erdi baten ingurua.
2. Eta ikhusi nituen Jainkoaren aitzinean xutik dauden zazpi aingeruak, eta zazpi turuta eman izan zitzaizkoten.
3. Eta ethorri zen bertze aingeru bat, eta aldarearen aitzinean gelditu zen isentsatzeko untzi bat eskuan, eta eman zioten isentsu hainitz, ezar

zitzantzat saildu guzien othoitzak Jainkoaren tronu aitzinean den urhezeko aldarearen gainean.

4. Eta sailduen othoitzetarikako isentsuen khea Jainkoaren aitzinean izan zen aingeruaren eskutik.
5. Eta aingeruak hartu zuen isentsarioa, eta bethe zuen aldareko sutik; eta lurraren gainera arthiki zuen, eta athera ziren ortziriak, eta deihadarrak, eta simistak, eta lur-ikhara handi bat.
6. Eta zazpi aingeru, zazpi turutak zituztenak, turuta jotzeko eginbidetan eman ziren.
7. Eta lehenbiziko aingeruak jo zuen turuta; eta harria suarekin eta odolarekin nahaste egin izan zen, eta arthikia izan zen lurraren gainera, eta lurraren herena errea izan zen, eta zuhaitzen herena kiskaili izan zen, eta belhar ferde guzia xigortu izan zen.
8. Eta turuta jo zuen bigarren aingeruak; eta mendi handia bezalako bat, su-garra zarioela, arthikia izan zen itsasora, eta itsasoaren hirugarrena odol bilhakatua izan zen.
9. Eta itsasoan bizia zuten kreaturen hirugarrena hil izan zen, eta galdu izan zen untzien hirugarrena.
10. Eta hirugarren aingeruak turuta jo zuen; eta zerutik erori izan zen izar handi bat, su-garretan zuzi bat bezala, eta erori izan zen hibaien herenera eta ithur-uretara.
11. Eta izarraren izena zen Azantzioa; eta uren herena azantzio bilhakatu izan zen eta hainitz gizon hilak izan ziren ur hekietaz, khirestu zirelaketz.
12. Eta laugarren aingeruak turuta jo zuen; eta joak izan ziren iguzkiaren herena, eta ilhargiaren herena, eta izarren herena halako moldez non ilhundu baitzen hekien hirugarren phartea, eta heren harek argirik ez baitzuen gehiago ematen egunari, ez-etare gauari.
13. Eta ikhusi izan nuen, eta entzun zerua barna hegaldaka zihoan arrano baten boza, zeinak oihuz goraki baitzioen: Zorigaitz! zorigaitz! zorigaitz lurrean bizi direnei, turuta jotzekotan diren bertze hirur aingeruakgatik.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Bortzgarren aingeruak turuta jo zuen. Eta ikhusi nuen izar bat zerutik lurrerat erori zela, eta emana izan zitzaioen lezeko phutzuaren gakhua.



2. Ideki zuen lezeko phutzua, eta phutzuko khea, igan zen goiti hara nola labe handi batena; eta iguzkia, eta airea ilhundak izan ziren phutzuko kheaz.

3. Eta xartalak phutzuko khetik athera ziren lurrera, eta ahal bat emana izan zitzaieten lurreko harrobiek duten bezalakoa.

4. Manua zuten etzezaten bidegaberik egin ez lurreko belharrari, ez-eta ferde ziren gauzei, ez-eta zuhaitz bakhar bati ere, baina bai Jainkoaren hatza kopetan izaten etzutenei.

5. Eta eskua eman izan zitzaieten ez hekien hiltzekoa, baizik ere hekiei borts hilabetez oinhaze ematekoa; eta heketarikako oinhazeak dira harrobiak gizona asikitzen duenean bezalako oinhazeak.

6. Eta egun hekietan, gizonek heriotzea bilhatuko dute, eta ez dute aurkhituren; eta nahiko dute hil, eta herioak ihez eginen diote.

7. Eta xartala bezalako hekiek iduri zuten gerlakotzat aphaindurika-ko zaldiak; eta buruan bazituzten khorak bezalako batzuek, urhezkoak iduriz, eta hekien begithartea gizon begithartea bezalakoa zen.

8. Eta zituzten ileak emaztekieen idurikoak; eta hekien hortzek lehoinenak iduri zuten.

9. Eta bazituzten bulharretakoak burdinazkoak iduri eta hekien hegalean harrabotsak zaldi hainitzekin gerlara dihoazen guri lasterren harrabotsa iduri zuen.

10. Eta zituzten buztanak harrobienak iduri; eta eztenak bazituzten buztanetan; eta zuten gizonei kalte egiteko ahala borts hilabetez; eta beretaz gorago zuten.

11. Erregetzat lezeko aingerua deithen (sic) dena Hebraraz Abaddon, Grekaraz Apollion, Latinez Exterminans.

12. Zorigaitz bat iragan da, eta huna non haren ondolik heldu diren oraino bertze bi zorigaitz.

13. Eta seigarren aingeruak turuta jo zuen, eta Jainkoaren aitzinean den aldarearen lau izkinetarik aditu nuen boz bat,

14. Erraiten seigarren aingeru turutadunari: Ufrateko hibai handian estekatuak diren lau aingeruen lokharriak urra zatzik.

15. Eta deslothuak izan ziren lau aingeruak, zeinak eginbidetan baitzauden orenoko, eta eguneko, eta hilabeteheko, eta urtheheko, hiltzekotzat gizonetarik herena.

16. Eta hogoi miletan hamar miletara igaiten zen zaldizkoen armada hura; aditu nuen ezen zenbat ziren.

17. Eta hula ikhusi nituen zaldiak ikhusaldi hartan; hekien gainean jarriak zaudenek bazituzten suzko, hiazintazko eta sufrezko bulharreta-

koak; eta zamarien buruak ziren lehoin buruak bezalakoak, eta hekien ahotarik ilkhitzen ziren sua, eta khea, eta sufrea.

18. Eta hirur izurri hauetaz, ahotarik atheratzen zitzaizkoten su, khea eta sufreak hila izan zen gizonetarik herena.

19. Ezen zamari hekien ahala datza ahoan eta buztanean; ezen hekien buztanak sugeen idurikoak, buruekin dira eta buru hekiez zauritzen dute.

20. Eta izurri hauiek hil izan etziren bertze gizonak etziren beren eskuetako egintzez urrikitan sarthu, ez gehiago adoratzekotzat debruak, urhezko, zilharrezko, letoinezko, harritzko eta zurezko jinkordeak, zeinek ezin baitezakete ez ikhusi, ez adi, eta ezin ibil baititazke.

21. Eta etzuten penitentziarik egin beren gizon hiltzeketez, ez phozindatzeez, ez lizunkeriez, ez-etare beren ohoinkeriez.

HAMARGARREN KAPITULUA

1. Ikhusi nuen gero bertze aingeru hazkar bat zerutik jausten hedoi batez inguraturik, eta ortzadar bat buru gainean; eta haren begithartea zen iguzkia iduri, eta haren zangoak suzko habe batzuek bezala.

2. Eskuan bazuen liburutto bat zabaldua. Eskuineko zangoa ezarri zuen itsasoaren gainean eta ezkerrekoa lurraren gainean,

3. Eta borthizki oihu egin zuen, lehoinak marruma egiten duenean bezala. Eta oihu egin izan zuenean, zazpi ortzirik beren bozak mintzara-zi zituzten.

4. Eta zazpi ortzirien zazpi bozak mintzatu ziren ondoan, ni iskribatzeraz nindohan; baina zerutik aditu nuen boz bat erraiten zarotana: Zigila zatzu zazpi ortzirien erranak, eta ez horiek iskriba.

5. Eta itsasoaren eta lurraren gainean xutik ikhusi izan nuen aingeruak eskua zerura goititu zuen,

6. Eta zin egin zuen menderen mendetan bizi denaz, zerua eta hartan direnak, lurra eta hartan direnak, itsasoa eta hartan direnak egin izan dituenaz, Gargoro etzela, denborarik izanen,

7. Baina zazpigarren aingeruaren mintzatzeko egunetan, turuta abiatzean, betheko dela Jainkoaren misterioa, jakitera eman izan duen bezala bere zerbitzari profeten ahoz.

8. Eta zeruko boza aditu nuen niri berriz mintzaten eta erraiten: Zohaz, eta itsasoaren eta lurraren gainean xutik dagoen aingeruaren esku-tik har zazu zabaldua den liburua.

9. Goan natzaioen beraz aingeruari erraiten nioelarik, eman lezadan liburua. Eta ihardetsi zarotan: Har zazu eta irets zazu eta kharatz eginen darotzu sabela, baina zure ahoan ezia bezala gozo izanen da.



10. Hartu nuen bada liburua aingeruaren eskutik, eta iretsi nuen; eta ene ahoan gozoa zen ezta bezala; eta iretsi izan nuenean kharastu zen ene sabelean.

11. Eta erran zarotan: Oraino ere behar duzu profetisatu jendakiei eta populuei, eta mintzaiei, eta errege askori.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

1. Eta eman zarotetan khanabera bat, neurtzeko makhila iduri, eta errana izan zarotan: jaiki zaite, eta neur zazu Jainkoaren tenploa, eta alda-rea, eta hor adoran daudezinak.

2. Sorioa berriz, tenploko kanpoaldean dena, bego kanpo, eta ez dezazula neur; zeren eta jendaki atzei utzia izan zaiote, eta hekiek berroi eta bi hilabetez zangopean erabiliko dute hiri saildua.

3. Bainan ene bi lekhukoei emanen diotet eskubide, eta zakhutan jauntzirik profeziak adiaraziko dituzte mila berrehun eta hirur hogoi egu-nez.

4. Hekiek dira Jainkoaren aitzinean dauden bi olibondo eta bi ganderailuak.

5. Eta norbaitek gaizkirik egin nahi badiote, sua atherako da hekien ahotik, eta iretsiko ditu hekien etsaiak; eta norbaitek bidegabe ekharri nahi badiote, hainak hola izan behar du hila.

6. Badute zeruaren herstekeo eskua, uririk eror ez dadientzat berak profesia egiten hariko diren egunetan; eta eskua badute uren gainean hekiek odol bihurrarazteko, eta lurra edo-zein izurritz jotzeko, nahiko duten aldi guziz.

7. Eta akhabatu duketenean beren lekhukotasuna, lezetik igaiten den basabereak gerla emanen diote, eta garhaituko ditu, eta hilen.

8. Eta hekien gorphutzak etzanak egonen dira Zodoma eta Ejiptoan ispiritualki deitzen den hiri handiko plazetan, non ere hekien Jauna gurutzeari izan baita josia.

9. Eta asko tribuetakoek, eta populu, eta mintzaia, eta jendakietakoek hekien gorphutzak ikhusiren dituzte hirur egun et-erdiz, eta ez dituzte hobian ehorztera utziko.

10. Eta lurrean bizi direnak bozkariatuko dira hekien heriotzeaz, eta gozo hartuko dute; eta elkharri emaitza bidaltzen hariko dira, bi profeta hekiek atsekabetan ezartzen zituztelakotz lurrean bizi zirenak.

11. Bainan hirur egun eta egun erdi baten buruan biziko hatsa Jainkoaganik hekien baithan sarthu zen. Eta xutitu ziren zangoen gainean, eta izialdura handi bat lothu zen hekien ikhusei.

12. Eta aditu zuten boz handi bat zerutik hekiei erraiten: Igan zaitzte hunat. Eta beren etsaien begietan, zerura igan ziren hedoi baten gainean. Eta ikhusi zituzten beren etsaiak.

13. Eta ordu berean egin izan zen lur-ikhara handi bat, eta hiriaren hamargarrena lehertu izan zen; eta lur-ikhara hartan hil izan ziren zazpi mila gizon; eta bertzeak laztuak gelditu ziren, eta gloria bihurtu izan zioten Jainkoari.

14. Bigarren zorigaitza iragan da; eta huna laster ethorriko dela hirugarren zorigaitza.

15. Zazpigarren aingeruak jo zuen turuta, eta zeruan egin izan ziren boz handi batzuek, erraiten zutenak: mundu hunetako erreinua Jaunarena egin da eta haren Kristorena, eta erreginaturen du menderen mendetan. Halabiz.

16. Eta hogoi-ta-lau zaharrak, Jaunaren aitzinean beren alkhiatan jarririk daudezinak, ahuspez erori ziren, eta Jainkoa adoratu izan zuten, ziotelarik:

17. Eskerrak bihurtzen darozkitzugu, Jainko Jaun guziz ahalduna, zarena, eta zinena, eta ethorriko zarena; zeren hartu duzun zure indar handia, eta erreginatzen baituzu.

18. Eta jendaia hasarretu dira, eta ethorri da zure hasarredura, eta hilen juiatzeko ordua, eta saria bihurtzeko zure zerbitzari profetei, eta sailduei, eta zure izenaren beldur direnei, ttipiei eta handiei, eta lurra gaizkindu dutenen kalitzekoa.

19. Eta ideki izan zen Jainkoaren tenploa zeruan, eta han ikhusi izan zen patuko arkha, eta egin izan zen simista, eta oihu, eta lur-ikhara, eta harrite handia.

HAMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta sendagail handi bat agertu zen zeruan: andre bat zen iguzkiaz inguratua, eta haren oinen azpian ilhargia, eta haren buruaren gainean hamabi izarrezko khoro bat.

2. Eta sabelean haurdun baitzen, oihuz hari zen haur minetan, eta oinhazetan zen erditzekotzat.

3. Eta agertu izan zen bertze ikhuskari bat ere zeruan; eta huna erainsuge handi gorra bat, zazpi buru eta hamar adar zituen, eta zazpi belharreko zazpi buruetan.



4. Eta bere buztanarekin herrestatzen zuen zeruko izarretarik here-na, eta erorrarazi zituen lurraren gainera, eta erainsugea gelditu zen haurminekin zagoen andrearen aitzinean; hura erditzen zenean irestekotzat haren semea.

5. Eta bizia eman zioen muthikoki bati, zeinak burdin zigorreakin manatuko baititu jendaia guziak; eta haur hori eraiki izan zen zerura, Jainkoagana eta haren tronuaren ondora.

6. Eta andreak ihes egin izan zuen toki baztertu batera non baitzuen Jainkoak xuxendurikako lekhu bat, han hazia izatekotzat mila berrehun eta hirur hogoi egunez.

7. Eta egin izan zen gudu handi bat zeruan: Migelek eta bere aingeruek gudu eman zioten erainsugeari, eta erainsugea gudukatzen zen eta haren aingeruak ere bai.

8. Eta etziren nausitu, eta etzen gehiago hekientzat zeruan tokirik aurkhitu.

9. Eta arthikia izan zen erainsuge handi hura, suge zaharra, deitzen dena debrua eta satan, gizon guziak enganutzen dituen; eta anbidua izan zen lezerat, eta haren aingeruak harekin batean izan ziren eragotziak.

10. Eta aditu nuen boz handi bat zeruan erraiten zuela: osatuak dira orai salbamendua, eta indarra, eta gure Jainkoaren erreinua, eta haren Kristoren botherea, zeren anbidua izan baita gure anaiei iratxikitzaile gaixto zena, eta gau eta egun hekiei Jainkoaren aitzinean gaizki iratxekitzen zuena.

11. Eta berek garhaitu dute hura Bildotsaren odolaz eta beren lekhu-kotasunaren hitzaz, eta beren biziak ez dituzte maithatu herioari ihes egi-teraino.

12. Hargatik bozkaria zaitezte, zeruak eta han zaudeztenak. Zorigaitz lurrari, eta itsasoari, zuetara jautsi baita debrua hasarre handitan, zeren baitaki ephea labur duela.

13. Eta erainsugeak bere burua ikhusirik lurrera arthikia, jazarri zioen haurra egin izan zuen andreari.

14. Bainan arrano handi baten bi hegal emanak izan zitzaizkon andreari, hegaldia zadiantzat mortuko bere tokira, non hazia baita denbora bat, eta denboretan, eta denbora baten erdia, sugearen ikhusmenetik kanpo.

15. Eta sugeak bere ahotik ura arthiki zioen hibaia bezala andreari gibeletik, uharrak eraman zezangatik.

16. Bainan lurrak andreari ekharri zioen laguntza, eta bere ahoa idekirik iretsi izan zuen sugeak ahotik igorrikako hibaia.

17. Eta erainsugea andreari sumindu zitzaioen, eta goan zen gudu ematera haren odoletikako bertze semeei, Jainkoaren manuak begiratzen eta Kristori lekhu-kotasun ekhartzen diotenei.

18. Eta baratu zen itsasoko legarraren gainean.

HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta ikhusi nuen itsasotik igaiten basabere bat zazpi buru eta hamar adar zituen, eta hamar adarren gainean hamar belharreko, eta zazpi buruetan arneguzko izenak.

2. Eta ikhusi nuen basabereak iduri zuen lehoinabarra: Aztaparrak hartzarenak zituen eta ahoa lehoinarena. Eta erainsugeak eman zioen bere indarra eta bere ahal handia.

3. Eta ikhusi izan nuen haren buruetarik bat joa hiltzekotan bezala; eta haren heriozko sakhia sendatua izan zen. Eta lur guziak ederretsi zuen eta eman zen basaberearen ondotik.

4. Eta adoratu izan zuten erainsugea, basabereari ahala eman ziola-kotz, eta basaberea ere adoratu zuten, erraiten zutelarik: nor da basaberearen iduriko? eta nork eginen ahal dio gudu?

5. Eta emana izan zitzaioen aho bat espantu handi egilea eta arnegu arthikitzailea; eta emana izan zitzaioen gaizki egiteko ahala berrogoi-ta-bi hilabetez.

6. Eta ahoa ideki izan zuen arneguka haritzekotzat Jainkoari, eta haren izenari, eta haren tabernakleari, eta zeruan daudezinei.

7. Eta emana izan zitzaioen sainduei gerla egiteko eta hekien garhaitzeko ahala. Eta leinu, eta populu, eta mintzaia, eta jendaki guziren gainean esku emana izan zitzaioen.

8. Eta adoratu zuten lurreko egoiliar hainek orok, zeinen izenak ez baitira munduaren hastapenetik iskribatuak izatu hila izan den Bildotsaren bizitzeko Liburuan.

9. Eta nihork beharrik balinbadu adi beza.

10. Gathibu eramaile dena, bera gathibu goanen da; ezpatatz hiltzaile dena, bera ezpatatik goan behar da. Huntan dago sainduen jasanpena eta fedea.

11. Eta ikhusi nuen bertze basabere bat lurretik igaiten, eta bazituen bi adar bildotsarenak bezalakoak, bainan erainsugea bezala mintzo zen.

12. Eta lehenbiziko basaberearen bothere bera erabili zuen haren aitzinean; eta lurrari eta hartan daudenei adorarazi zioten lehenbiziko basaberea, zeinari sendatu izan baitzitzaioen heriozko sakhia.



13. Eta egin zituen sendagaila handiak, zerutik sua jautsarazteraino-koan gizonen aitzinean.

14. Eta liluratu zituen lurreko egoiliarrak, basaberearen aitzinean egi-teko ahala zuen sendagailen ariaz, erraten ziotelarik lurreko egoiliarrei, ezpataren sarraskia izanik bizi zen basaberearen mustra bat egin zezaten.

15. Eta basaberearen mustrari bizia emateko ahala emana izan zitzaioen, eta mustra hura mintzaraztekoa, eta mustra adoratuko etzuten guziak hilaraztekoa.

16. Eta eginen du izan dezaten guziek, ttipiek, eta handiek, eta abe-ratsek, eta beharrek, eta beren buruen jabe direnek eta hala ez direnek basaberearen hatza esku eskuinean edo belharrean.

17. Eta nihork saltzerik edo erosterik ez dezan egin-ahal, ez balinba-du basaberearen hatza, edo izena, edo izenaren zenbatekoa.

18. Huntan da zuhurtzia. Duenak adimendu berez beza zenbat den basaberearen zenbatekoa. Ezik gizon baten hanbatekoa da; eta haren han-batekoa sei ehun eta hirur hogoi-ta sei.

HAMALAU GARREN KAPITULUA

1. Eta ikhusi nuen; eta huna Bildotsa xutik zagoela Ziongo mendia-ren gainean, eta baziren harekin ehun eta berrogoi-ta lau mila haren izena eta haren Aitarena belharrean iskribaturik zakhartenak.

2. Eta zerutik aditu nuen boz bat, ur handien harrabotsa iduri eta ortziri handi baten karraska bezala. Eta nik aditu nuen boza zen maniu-rrarien maniurak hari direnean bezalakoa.

3. Eta jarlekuaren, eta lau abereen, eta zaharren aitzinean kantatzen zuten kantika bat bezala, eta nihork ezin eman zezakeen kantu hura ehun eta berrogoi-ta lau mila lurretik erosiak izan ziren hekiek baizik.

4. Horiek dira emaztekiekin khutsatu ez direnak, ezen diran birjina. Horiek dira Bildotsari jarraitzen direnak nora-nahi goan dadien. Horiek gizonetarik erosiak izatu dira, Jainkoari eta Bildotsari pikain bezala.

5. Eta horien ahoan ez da aurkhitu gezurra. Alabainan thonarik gabe dira Jainkoaren tronua aitzinean.

6. Eta ikhusi izan nuen bertze aingeru bat zeru erdia gaindi hegaldaka zihoala, Ebanjelio bethierekoa zadukalarik irakhasteko lurrean daude-zinei, eta jendaki, eta leinu, eta mintzaia, eta populu guziei,

7. Erraiten zuelarik goraki: Zaitetzen Jaunaren beldur, eta ohore ekhar zozue, ezen ethorria da haren erabakietako orena, eta adora zazue zeru, lurren, itsaso eta ithur-uren egilea.

8. Eta ondotik ethorri zen bertze aingeru bat erraiten zuela: Erori da, erori Babilona handia, jendaia guziei edanarazi diotena beren linburkerien arno hasarrea.

9. Eta hirugarren aingeru bat agertu zen bertzeen ondotik, erraiten zuelarik goraki: Nork ere adoratu baituke basaberea, eta haren mustra, eta hartu belharrean edo eskuan haren hatza,

10. Hainak edanen du Jainkoaren hasarrezko arnotik, haren hasa-rrezko untzian huts-hutsa xuxendua denetik, eta suaz, eta sufrez oinhaz-tatua izanen da aingeru sailduen aitzinean eta Bildotsaren aitzinean.

11. Eta hekien oinhazeetako khea iganen da menderen mendetan, eta ez egunaz, ez gauaz onik ez dute izanen basaberea eta haren mustra ado-ratu duketenek, eta ekharri duketenek, haren izenaren hatza.

12. Huntan da Jainkoaren manamenduak eta Jesusen fedea begira-tzen dituzten sailduen jasainpena.

13. Eta zerutik boz bat aditu nuen, eta erraiten zarotan: Iskriba zazu: Dohatsu hilak Jauna baithan hiltzen direnak. Oraidanik, dio Izpirituak, beren nekhetarik hats har dezaten, ezen jarraitzen zaizkote beren egin-tzak.

14. Eta ikhusi nuen, eta huna hedoi zuri bat, eta hedoiaren gainean jarriarik norbait gizonaren Semearen idurikoa, urhezko khoro bat buruan eta sega zorrotz bat eskuan.

15. Eta bertze aingeru bat athera zen tenplotik, goraki oihu egiten zuela hedoiaren gainean jarria zagoenari: Arthik zazu zure sega, eta ebak zazu, zeren ethorria baita ephai-aroa, ezen zorhitu dira lurreko uztak.

16. Eta hedoi gainean zenak lurrera arthiki zuen sega eta ebakia izan zen lurra.

17. Eta bertze aingeru bat ilkhi zen zeruan den tenplotik, hura ere sega zorrotz bat eskuan.

18. Eta athera zen aldaretik bertze aingeru bat suaren gainean esku zuena; eta oihu egin zioen hazkarki sega zorrotza zadukanari, eta erran zioen: Erabil zazu zure sega zorrotza eta ebak zatzu lurreko mahastiko molkhoak, ezen onthuak dira hango mahatsak,

19. Eta aingeruak hedatu zuen bere sega zorrotza lurrera, eta bildu zituen lurreko mahatsak, eta arthiki zituen Jainkoaren hasarreko dolhare handira.

20. Eta hiriz kanpoan oinkatua izan zen dolharea eta handik athera zen odola zaldien kabereustueta-raino mila eta sei ehun estaden eremuan.



HAMABORTZGARREN KAPITULUA

1. Eta zeruan ikhusi nuen bertze seinale bat handia eta ederresgarria zena, zazpi aingeru azkeneko zazpi izurriak zaduzkatenak, hekien bidez baita akhitzten Jainkoaren hasarrea.

2. Eta ikhusi izan nuen berinazko itsaso bat bezala suarekin nahasia; eta basaberearen, eta haren mustraren, eta haren izeneko zenbataren garhaitzaileak xutik berinazko itsasoaren gainean, Jainkoaren maniurrak eskuetan.

3. Eta kantatzen zuten Moise Jainkoaren zerbitzariaren kantika, eta Bildotsaren kantika, ziotela: Handi eta ederresgarri dira zure egintzak Jainko Jaun guziz-ahalduna; zuzenak eta zinak dira zure bideak, oi mendeetako Erregea.

4. Nor ez da zure beldur izanen, Jauna? eta nork ez du goretsiren zure izena? Ezen zu zare bakharrik urrikalmendutsua, eta jendaki guziak ethorriko dira eta adoran emanen dira zure aitzinean, agertuak direlaket zure erabakiak.

5. Eta gero ikhusi nuen, eta horra non lekhukotasuneko idukolharen tenploa idekia izan zen.

6. Eta tenplotik ilkhi ziren zazpi izurriak zaduzkaten zazpi aingeruak, liho-harizko soin xuri eta garbiak jauntzirik, eta urhezko gerrikoz bulharretan tinkaturik.

7. Eta lau abereetarik batek zazpi aingeruei eman ziotzaten zazpi urhezko untzi, Jainko menderen mendetan bizi denaren hasarreaz betheak.

8. Eta tenploa khez bethe zen Jainkoaren handiagatik eta haren indarragatik; eta tenploan nihor ezin sar zaitekeen, zazpi aingeruen zazpi izurriak iragan artean.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta aditu nuen boz handi bat tenplotik erraiten zazpi aingeruei: Zohazte eta lurraren gainera ixur zatzue Jainkoaren hasarrearen untziak.

2. Eta goan zen lehenbizikoa, eta lurraren gainera hustu zuen bere untzia, eta basaberearen hatza zutenei eta haren mustra adoratzan zutenei egin izan zitzaioten zauri gogor eta ezin gehiago gaixtoa zen bat.

3. Eta bigarren aingeruak ixuri zuen bere untzia itsasora, eta jarri zen hil baten odola bezala, eta itsasoan bizia zuen guzia hil izan zen.

4. Eta hirugarren aingeruak bere untzia ixuri zuen hibaletara eta ithur-uretara, eta odol egin ziren.

5. Eta aditu nuen uretako aingerua erraiten: Zuzena zare, Jauna, zarena eta zinena; saindua zare huneletan erabakitzen duzuna.

6. Ixuri dutelaket sainduen eta profeten odola, odola eman diozute edatera zuk ere, ezen hala zuten merezi.

7. Eta aditu nuen bertze bat aldaretik erraiten: Bai, Jainko Jauna eta guziz ahalduna, zinak eta zuzenak dira zure erabakiak.

8. Eta laugarren aingeruak ixuri zuen bere untzia iguzkira, eta eskua emana izan zitzaioen gizonak oinhazetan ezartzeko beroaz eta suaz.

9. Eta beroaren handiak kiskaili zituen gizonak, eta burhoztatu zuten Jainko izurri haukien gainean ahala duenaren izena, eta etzuten penitentzia egin hari gloria bihurtzeko.

10. Eta bortzgarren aingeruak bere untzia hustu zuen bazaberearen jarlekhura, eta ilhundu zen hunen erresuma, eta gizonak, minen minez, beren mihiak jan izan zituzten.

11. Eta burhoka haritu zitzaizkon zeruko Jainkoari beren oinhaze eta zauriakgatik, eta beren egitatez etzuten penitentziarik egin.

12. Eta seigarren aingeruak bere untzia hustu zuen Ufrateko hibai handi hartara, eta agortu zuen hango ura, bidea aphaintzekotzat, iguzki sorthaldeko erregeei.

13. Eta ikhusi nituen erainsugearen ahotik, eta basaberearen ahotik, eta profetaizunaren ahotik hirur izpiritu lohi atheratzen igelen itxuraren azpian.

14. Hekiek dira ezen debruen izpirituak, harritzeko sendagailak egin dituztenak, eta goaten dira lurreko errege guzien gana, hekiek gudura biltzera, Jainko guziz-ahaldunaren egun handikotzat.

15. Huna non heldu naizen ohoina bezala. Dohatsu atzarri dagoena, eta soinekoak soinean begiratzen dituen, bulusirik ibil ez dadien, eta ikhus ez dezaten itsusi den bezala.

16. Eta bilduko ditu hebraraz Armagedon deitzen den tokira.

17. Eta zazpigarren aingeruak airera hustu zuen bere untzia, eta boz hazkar bat athera zen tenploko tronutik, erran zuena: Egin da.

18. Eta jauzi ziren simistak, eta deihadarrak, eta ortziririk; eta egin izan zen lur ikhara handi bat, eta hain handia, non halakorik ez baitzen egundaino gerthatu gizonak lurraren gainean bizi zirenaz geroztik.

19. Eta hiri handia egin izan zen hiru zathitan, eta jendaien hiriak lehertu ziren. Eta Jainkoa orhoitu zen Babilona handiaz hari emateko bere hasarre gaitzituaren edanuntzia.

20. Eta irla guziek ihes egin zuten, eta mendiak etziren aurkhitu.



21. Eta harrite handi bat, pikorra talendua bezalakoa, zerutik erori zen gizonen gainera, eta gizonek burhoztatu zuten Jainkoa harrizko izurriagatik, izurri ikharagarri gaitza baitzen.

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta ethorri zitzaitan zazpi untiak zaduzkaten zazpi aingeruetarik bat, eta mintzatu zitzaitan, zioelarik: Zato, ur handien gainean jarria dagoen ematzar handiaren kondenamendua erakhutsiko darotzut,

2. Zeinarekin khutsatu baitira lurreko erregeak, eta horditu lurrean daudezinak haren linburkeriako arnoaz.

3. Eta gogotan eraiki ninduen mortura. Eta emazteki bat jarria ikhusi nuen basabere gorri baten gainean, zeina burhozko izenez bethea baitzen, eta zeinak baitzituen zazpi buru eta hamar adar.

4. Eta emaztekoa zagoen purpuraz eta eskarlatez inguraturik, eta urhez, eta harri baliosez, eta perlaz aphaindurik, eta eskuan zadukan edateko untzi bat urhezkua, dena izigarrikeriez eta bere linburkeriako lohiz bethea.

5. Eta bere belharrean izena iskribatua zuen: Misterioa: Babilona handia, linburkerien eta lurreko izigarrikerien ama.

6. Eta ikhusi nuen emaztekoa sainduen odolaz eta Jesusen martiren odolaz horditua. Eta hura ikhustez gogorki lastua gelditu nintzen.

7. Eta erran zarotan aingeruak: Zertako lasten zare? Nik erranen darozkitzut emaztekiaren egia gordea, eta hori degarkan basabere zazpi buru eta hamar adar dituenarena.

8. Ikhusi duzun basaberea izatu da, eta ez da, eta igaitekoa da lezetik, eta hiltzera goan da; eta lurrean bizi direnak, zeinen izenak ez baitira munduaren hastetik bizitzeko Liburuan iskribatuak, harrituko dira ikhustez basaberea bazela, eta gehiago ez dela.

9. Eta huna erran-nahi den gauza zuhurtziaduna: Zazpi buruak dira zazpi mendi zeinen gainean baitago jarririk emaztekoa, eta erregeak ere zazpi dira.

10. Bortz eroriak dira, bat badago, eta bertzea ez da oraino ethorria, eta etorri-ta guti egon behar du.

11. Eta basaberea, zena, eta ez dena, bera da zortzigarren, eta zazpietarikakoa da, eta heriotzera dihoa.

12. Eta ikhusi dituzun hamar adarrak, dira hamar errege, oraino erre-sumarik izatu ez dutenak, baina ardietsiko dute botherea errege bezala oren ber-batean basaberearen ondolik.

13. Horiek xede ber-bat dute guziek, eta beren indarra, eta ahala basabereari emanen diozkite.

14. Horiek Bildotsarekin gudukatuko dira, baina garhaituko ditu Bildotsak, zeren jaunena Jauna baita, eta erregeen Erregea, eta harekilakoak dira deithuak, hautetsiak, eta leialak.

15. Eta erran zarotan: Ikhusi dituzun urak, zeinen gainean jarririk baitago ematzarra, dira populuak, eta jendaiak, eta mintzaia.

16. Eta basaberean ikhusi dituzun hamar adarrek gaitzetsiren dute linburra, eta atsekabe guzietan erabiliren dute, eta buluz-garririk ezarriren dute, eta janen dituzte haren haragiak, eta bera suan erreko.

17. Ezen Jainkoa bihotzean ezarri diote egin dezaten harek nahi duena, eman dezaten beren erresuma basabereari, Jainkoaren hitzak bethe ditezen artean.

18. Eta ikhusi duzun emaztekoa da hiri handia, erregeen gainean erreginatzen dena.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gero ikhusi nuen bertze aingeru bat, ahal handitakoa, eta lurra, guzia argitan jarri zen haren gloriaz

2. Eta indarrekin oihu egin zuen erraiten zuelarik: Erori da, erori Babilona handia, eta debruen egonlekhu egin da, eta izpiritu linbur guzien geriza, eta hegastin zikhin eta higuigarri guzien zilhoka;

3. zeren haren linburkeriaren hasarrezko arnotik jendaia guziek edan baitute, eta lurreko erregeak harekin khutsatu baitira, eta lurreko tratulariak aberastu baitira haren gozokerietako indarretik.

4. Eta aditu nuen bertze boz bat zerutik erraiten: Ikhi zaite hortik, ene populua, sar etzaitzen horren gaizkietan, eta atzeman ez dezazun horren gaitzetarik.

5. Ezen horren bekhatuak zeruraino heldu izan dira, eta Jauna horren gaixtakeriez orhoitu da.

6. Bihur zazue berak bihurtu darotzuen bezala, eta bietan egiozue bere behingo eginen arabera; edatera eman izan darotzueten untzian, bietan edanaraz zozue.

7. Zenbat ere goretsi baitu bere burua, eta izan baita gozokoerietan sarthua, hanbat errepika zotzue oinhazeak eta damu minak, erran duela-kotz bere bihotzean: Erregina jarria nago, eta ez naiz alhargun, eta dolurik ez dut ikhusiko.



8. Hargatik, egun ber-batean ethorriko dira horren gaitzak, heriotzea, eta dolua, eta gosea, eta erreko da suan, zeren hori juiatuko duen Jainkoa indardun baita.

9. Eta nigarrez eta heiagoraz deithoratuko dute horrekin khutsatu eta atseginkerietan bizi izan diren erregeek, ikhusiko dutenean horren erretzeko suaren khea.

10. Eta haren oinhazeek lasturik, urrunera xutik daudela, erranen dute: Zorigaitz! zorigaitz Babilona, hiri handi, hiri hazkar horri, zeren oren batik barnean ethorri baita hire galtzeko erabakia.

11. Eta lurreko tratulariek nigar eta auhen eginen dute haren gainean, zeren nihork ez baititu erosiko gehiago hekien salgaiak.

12. Eta urhezko, eta zilharrezko, eta harri baliosezko, eta perlazko, eta liho mehezko, eta sedazko, eta purpurazko, eta eskarlatazko saltzekoak, eta zur usain-gozodun guziak, eta bolizko untzi guziak, eta harri baliosezko untzi guziak, eta letoinezkoak, eta burdinazkoak, eta marmolazkoak;

13. eta zinamoma, eta baltsamuak, eta usain onak, eta isentsua, eta arnoa, eta olio, eta irin lorea, eta bihia; eta zamariak, eta ardiak, eta zaldiak, eta gurdi lasterrak, eta gathibuak, eta giz-arimak.

14. Eta hire arimaren irritseko fruituak goan dituk higanik; gauza gori eta eder guziak galdu zaizkik, eta ez dira gehiago aurkhituko.

15. Horietako tratuaz aberastu diren tratulariak horren ganik urrun, auhen eta nigarretan egonen dira horren oinhazeek lastuak,

16. Eta erraiten dutelarik: Zorigaitz! zorigaitz! hiri handi hori, liho mehez, eta purpuraz, eta eskarlatez jauntzia, eta harri baliosez, eta perlaz aphaindurik zagoena,

17. Nola oren batik barnean gabetu da hanbateko aberastasunez? Eta lemazain guziak, eta urean dabilzan guziak, eta itsasturiak, eta itsasoko lanetan hari direnak urrunetik begira gelditu dira.

18. Eta oihuz hasi dira ikhustearekin horren erre-lekhua, diotelarik: Zein hiri izatu da egundaino hiri handi hunen bardin?

19. Eta herrautsez estali dituzte beren buruak, eta heiagoraka haritu dira, nigar eta auhenetan diotelarik: Zorigaitz! zorigaitz! hiri handi hori, itsasoan untzirik zituzten guziak bere ontasunez aberastu dituen, nola den bera aphur batez herraustua!

20. Horretaz boz zaite, zerua, bai-eta zuek ere, Aphostolu saildu eta profetak, zeren Jainkoak horri dioen jazarri zuei eginikako gaizkiagatik.

21. Eta aingeru hazkar batek goititu zuen harri bat, ihara-harri handi bat bezalakoa, eta itsasora arthiki zuen, erraiten zuelarik: Hunen muthiri-

ki erauzia izanen da Babilona, hiri handi hori, eta ez da gehiago aurkhitu-
ren.

22. Eta maniurrarien, eta kantarien, eta xirolarien, eta turutarien otsik ez da gehiago entzunen hi baithan; eta ez da gehiago hitan aurkhituren niholazko langilerik niholazko lanetan; eta ihara-harriak ez du gehiago bere harrabotsa adiaraziko hi baithan;

23. Eta olioaren argiak ez du gehiago argituko hitan; eta gaurgero senhar-emazteen bozik ez da hitan entzunen, zeren hire tratulariak baitziren lurreko buruzagi, eta hire sorginkeriez enganatu baitituk jendaia guziak.

24. Eta hartan aurkhitu da sailduen eta profeten odola, eta lurrean heriotzez hilak izatu diren guziena ere.

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Gero aditu nuen oste handi baten boza bezalako bat zeruetan erraiten: Aleluia: agurra eta gloria, eta indarra gure Jainkoari,

2. Zeren egiazkoak eta zuzenak baitira haren erabakiak, juiatu baitu puta handia lurra bere tzarkeriaz galarazi duena, eta aspertu baitu bere zerbitzarien odola haren eskuek ixuri izan dutena.

3. Eta berriz ere erran zuten: Aleluia. Eta haren erretzeko khea igaiten da menderen mendetan.

4. Eta hogoi-ta lau zaharrak eta lau abereak erori ziren lurrera, eta adoratu zuten tronuaren gainean jarria dagoen Jainkoa, erraiten zutelarik: Biz, aleluia.

5. Eta tronutik boz bat ilkhi zen zioena: Ospa zazue gure Jainkoa, haren zerbitzari zareten guziek, eta haren beldur zareten ttipi handiek.

6. Eta aditu nuen oste handi baten boza bezala, eta ur handien harrabotsa bezala, eta ortziri gaitzen boza bezala, erraiten: Aleluia, zeren erre-ginatu duen gure Jainko Jaun guziz ahalduak.

7. Boz gaitezen eta jauz gaiten bozkarioz, eta bihur diozogun gloria, zeren ethorri baitira Bildotsaren eztaiak eta hekietarakotz aphaindu baita haren andrea.

8. Eta emana izan zaio liho mehe, xuri, distiantez jauntzia izatea. Ezen sailduen egitate zuzenek egiten dute liho mehezko jauntzia.

9. Eta erran zarotan: Iskriba zazu: Dohatsu Bildotsaren eztaietako afarira deithuak izan direnak; eta erran zarotan: Jainkoaren hitz haukiek egiazkoak dira.

10. Eta erori nintzen haren oinetara haren adoratzeko. Eta erran zarotan: Begira zaite hortarik: Zure zerbitzari laguna naiz, eta zure anaia



Jesusen lekhukotasuna daukatenena. Jainkoa adora zazu, ezen Jesusen lekhukotasuna profeziazo izpiritua da.

11. Eta zerua ikhusi nuen idekia, eta huna zaldi zuri bat, eta haren gainean jarririk zagoena, deitzen zen Leiala eta Egatia, zuzenki erabakitzen duena eta gudukatzen dena.

12. Haren begiak berriz ziren su-garra iduri, eta buruan bazituen asko belharreko, eta bazuen iskribatua izen bat, berak baizik nihork ez dakiena.

13. Eta haren soinekoa odoleztatua zen, eta haren izena zen Jainkoaren hitza.

14. Eta zeruetan diren armadak zaldi zuritan jarraitzen zitzaizkoen, liho mehezko soin xuri eta garbiak jauntzirik.

15. Eta haren ahotik atheratzen zen ezpata bat bi aldeetarik zorroz-tua, hartaz jotzekotzat jendaiak. Eta berak hotsemanen diote burdin-zigorrekin, eta berak oinkatzen du Jainko guziz-ahaldunaren hasarredura gaitzaren arnoko dolharea.

16. Eta du iskribaturik soinekoan eta ixterrean: Erregeen Erregea, eta jaunen Jauna.

17. Eta bertze aingeru bat ikhusi izan nuen iguzkian xutik zagoela, eta oihi egin zuen goraki, erraiten ziotelarik zeru erdia gaindi hegaldaka zabilzan hegastinei: Zatozte, eta bil zaitezte Jainkoaren afari handira,

18. Jan detatzuentzat erregeen haragiak, eta Armadetako aitzindarien haragiak, eta hazkarren haragiak, eta zaldien haragiak, eta zaldien gainean direnen haragiak, eta beren buruen jabe direnen haragiak, eta hala ez direnenak, eta ttipienak, eta handienak.

19. Eta ikhusi izan nituen basaberea eta lurreko erregeak eta hekien armadak bildurik gudu egitekotzat zaldi zuriaren gainean jarria zagoenari eta haren armadari.

20. Bainan harrapatua izan zen basaberea eta harekin batean profetaizuna, zeinak haren beraren aitzinean sendagailak egin baitzituen, eta hekien bidez enganatu basaberearen hatzaren hartzaileak, eta haren musta adoratu zutenak. Horiek biak izan ziren bizirik arthikiak sufrez irakitzaren dagoen osinera.

21. Eta bertzeak hilak izan ziren zaldi gainean jarririk zagoenaren ahotik atheratzen zen ezpataz, eta hegastin guziak ase ziren hekien haragiaz.

HOGOIGARREN KAPITULUA

1. Eta ikhusi nuen zerutik jausten aingeru bat, lezeko gakhoa eta gathe handi bat eskuetan.

2. Eta atzeman zuen erainsugea, suge zaharra, zeina baita debrua, eta Satan, eta estekatu zuen mila urtherentzat.

3. Eta anbidu zuen lezera, eta han hertsu zuen, eta haren gainean athea zigilatu zuen, jendaiak gehiago engana etzezantzat mila urtheak bethe artekan; eta gero aphur batentzat deslotheta izan behar da.

4. Eta ikhusi nituen jarlekhuak, eta jarri ziren hekien gainean, eta hainei emana izan zitzaioten erabakitze eskua; eta ikhusi nituen Jesusen lekhukotasunagatik, eta Jainkoaren hitzagatik buru moztuak izatu zirenen arimak, adoratu etzutenak basaberea, ez-etare haren musta; eta haren hatza belharretan edo eskuetan hartu izan etzutenak; eta bizi izan ziren eta erreginatu Kristorekin mila urthez.

5. Bertze hilak etziren bizitzean berriz sarthu mila urtheak iragan artean, hau da lehenbiziko birphiztea.

6. Dohatsu eta saindu lehenbiziko birphiztean pharte izanen duena; ez du bigarren heriotzeak halakoen gainean eskurik, bainan Jainkoaren eta Kristoren aphez izanen dira, eta harekin erreginatuko dira mila urthez.

7. Eta mila urtheak betheak izanen direnean, deslotheta izanen da satan, eta bere presondegitik atherako da eta enganatuko ditu lurraren lau izkinetako jendaiak, Gog eta Magog, eta bilduko ditu gudukotzat, eta hekien ostea izanen da itsasoko legarrarekin bardin.

8. Eta hedatu ziren lurraren zabaltasunean eta inguratu zituzten sainduen kanpak eta hiri maitea.

9. Eta zerutik jautsi zen sua Jainkoaganik, eta iretsi zituen; eta debrua, hekien enganatzailea, arthikia izan zen suzko eta sufrezko osinera, non basaberea ere.

10. Eta profetaizuna izanen baitira gau eta egun, menderen menderen oinhazetatuak.

11. Eta ikhusi nuen tronu zuri handi bat, eta haren gainean jarririk zagoena, zeinaren aitzinetik ihes egin zuten zeru-lurrek, eta hekien tokirik ere etzen aurkhitu.

12. Eta ikhusi izan nituen hilak, ttipi-handiak, tronuaren aitzinean xutik; eta liburuak zabalduak izan ziren, eta zabaldua izan zen bertze Liburu bat ere, zeina baita bizizkoa. Eta juiatuak izan ziren liburuetan iskribatua zenetik, nor bere eginen arabera.



13. Eta itsasoak bihurtu zituen berekin zaduzkan hilak, herioak eta ifernuak beren hilak, berekin zaduzkatenak; eta juiatuak izan ziren nor bere eginen arabera.

14. Eta ifernua eta herioa arthikiak izan ziren suzko osinera. Hori da bigarren heriotzea.

15. Eta bizitzeko Liburuan iskribatua aurkhitu etzena suzko osinera arthikia izan zen.

HOGOI-ETA-BATGARREN KAPITULUA

1. Eta ikhusi izan nituen zeru berri bat eta lur berri bat, ezen lehenbiziko zerua eta lehenbiziko lurra suntsitu ziren, eta ez da gehiago itsasorik.

2. Eta nik, Joanik, ikhusi izan nuen hiri saildua, Jerusaleme berria, zerutik jausten Jainkoaganik, aphaindua hala-nola andre ezkondu-berri bat bere senharrarentzat aphaintzen baita.

3. Eta boz handi bat aditu nuen erraiten tronutik: Huna Jainkoaren gizonakilako egonlekhoa, eta hekiekin egonen da. Eta izanen dira haren populu, eta Jainkoa bera hekien artean izanen da hekien Jainko.

4. Eta Jainkoak nigar oro hekien begietan xukhatuko du, eta ez da gehiago izanen hiltzerik, ez-eta nahigaberik, eta marraskarik, eta oinhazerik, zeren lehenbizikoak behin-bethikotz iragan baitira.

5. Eta tronuan jarria zagoenak erran zuen: Huna non gauza guziak berri egiten ditudan. Eta erran zarotan: Iskriba zazu, ezen hitz haukiek osoki dira zinak eta egiak.

6. Eta erran zarotan: Egin da. Ni naiz alfa eta omega, hastera eta akhabantza. Nik urrurik emanen diot egarri denari bizitzeko uraren ithurritik.

7. Garaitiar atherako denak horiek izanen ditu, eta ni izanen naiz haren Jainko, eta hura izanen da ene seme.

8. Uzkurrek berriz, eta sinhestegabeek, eta gaitzesgarriek, eta gizon-hiltzaileek, eta lohiek, eta jainkoaizuntiarrek, eta gezurti guziek beren puska izanen dute suz eta sufrez irakitzen hari den osinean, hau baita bigarren heriotzea.

9. Eta azken zazpi izurriez untziak betherik zaduzkaten aingerueta-rik bat ethorri izan zen, eta mintzatu zitzaitan zioelarik: Zato, eta erakhusiko darotzut ezkonberria Bildotsaren emaztea.

10. Eta gogotan eraiki ninduen mendi handi eta gora batetara, eta erakhusi zarotan hiri saildua, Jerusaleme, zerutik jausten Jainkoaganik,

11. Jainkoaren argiaz argitua; eta haren argia zen harri balios batena iduri, hala nola jaspe harria, kristaila bezain arraso.

12. Eta inguruan bazuen harrasi handi eta gora bat, hamabi atherekin; eta atheetan hamabi aingeru, eta iskribatuak izen batzuek, zeinak baitziren Israelgo semeen hamabi leinuen izenak.

13. Hirur athe ziren iguzki-atheratzetik; eta hirur ipharretik; eta hirur hegoatik; eta hirur iguzki-sartzetik.

14. Eta hiriko harrasiak bazituen hamabi asentu, eta hamabi hekietan Bildotsaren apostoluen hamabi izenak.

15. Eta enekin mintzo zenak bazuen urhe kanaberazko neurri bat, hiriaren, eta hango atheen, eta harrasiaren neurtzeko.

16. Eta hiria lau izkinekilakoa zen, eta haren luzetasuna zabaltasunaren bethe zen. Eta neurtu zuen urhe kanaberaz hiria hamabi mila estada; eta luzetasuna, eta zabaltasuna, eta goratasuna bardinak dira.

17. Eta neurtu zuen harrasia ehun eta berrogoi-ta-lau beso, gizon neurri, zeina baitzen aingeruarena ere.

18. Eta harrasia egin zen jaspe harritz; berriz hiria bera zen urhe garbia, berina arraso iduri.

19. Eta hiriko harrasiaren asentuak harri balios orotaz berreginduak ziren. Lehenbiziko asentua zen jaspea; bigarrena zafirra; hirugarrena kaltzedonia; laugarrena esmeralda;

20. Bortzgarrena zardoniza; seigarrena zardioa; zazpigarrena krizolitoto; zortzigarrena beriloa; bederatzigarrena krizoprasa; hamekagarrena hiazinta; hamabigarrena ametista.

21. Eta hamabi atheak hamabi perla dira, bakhoxka; athe bakhotxa perla bakhotx batez egin; eta hiriko plaza zen urhe garbiz, berina argia bezalakoz.

22. Eta ez nuen bertan tenplorik ikhusi. Ezen Jainko Jaun guziz ahal-duna eta Bildotsa dira hango tenplo.

23. Eta hiriak, argitua izateko, ez du ez iguzki, ez ilhargi beharrik. Ezen Jainkoaren argiak argitzen du, eta Bildotsa da haren zuzia.

24. Eta ibiliko dira jendaki guziak haren argitara; eta lureko erregeek harat ekharriko dituzte beren ospea eta ohorea.

25. Eta hango atheak ez dira egunaz hertsiko, eta han ez da gaurik izanen.

26. Eta harat ekharriko dute jendaian ospea eta ohorea.

27. Eta ez da han sarthuko deus khutsaturik ez-eta itsuskeria-egilerik, ez-eta gezurtirik, baizik ere Bildotsaren Liburuan iskribatuak direnak.



HOGOI-TA-BIGARREN KAPITULUA

1. Eta erakhutsi zarotan ur biziaren hibaia, kristaila bezain argi, Jainkoaren eta Bildotsaren jarlekhotik atheratzen dena.
2. Hango plazaren erdian, eta hibaiaeren bi aldeetarik dago bizitzeko zuhaitza, zeinak ekhartzen baititu hamabi fruitu, hilabete oroz ekhartzen duelarik bere fruitua, eta zuhaitzaren hostoak jendaien sendatzeko dira.
3. Eta ez da izanen gehiago niholazko madarizionerik, baina Jainkoaren eta Bildotsaren jarlekuak han izanen dira, eta bere zerbitzariak zerbitzatuko dute.
4. Eta ikhusiren dute haren begithartea, eta haren izena ekharriko dute beren belharretan.
5. Eta ez da gehiago gaurik izanen, eta ez dute kandel-argirik behar, zeren Jainko Jaunak argi egiten baitiote, eta errege izanen dira menderen mendetan.
6. Eta erran zarotan: Hitz horiek osoki dira zinak eta egiak. Eta profeten izpirituen Jainko Jaunak igorri izan du bere aingerua bere zerbitzariari erakhustera zer gerthatu behar den laster.
7. Eta huna non heldu naizen zalhuki. Dohatsu, liburu hunetako profesiaren hitzak begiratuko dituen!
8. Eta Joani naiz ni, horiek aditu eta ikhusi ditudana. Eta aditu eta ikhusi ondoan, erori naiz lurrera adoratzekotzat, horiek erakhutsi zaizkidan aingueraren oinetan.
9. Eta erran zarotan: Begira zaite hortarik, zeren zure zerbitzari laguna bainaiz, eta zure anaia profetena, eta liburu huntako profeziako hitzak begiratzeko dituztenena. Jainkoa adora zazu.
10. Eta erran zarotan: Ez zigila liburu huntako profeziako hitzak, ezen hurbil da denbora.
11. Bidegabe egiten duenak, oraino ere egin beza, eta lohikerian dagoena lohi bedi oraino; eta zuzena dena, zuzen bedi oraino; eta xahua dena, xahu bedi oraino.
12. Ezen huna non heldu naizen laster, eta ene saria enekin dut, nori berari bihurtzekotzat bere eginen arabera.
13. Ni naiz alfa eta omega, lehena eta azkena, hastea eta akhabantza.
14. Dohatsu beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituztenak, zuzen izan dezatentzat bizitzeko zuhaitzean, eta atheetarik sar ditezat hirian.

15. Kanporat zakhurrak, eta phozoindatzaileak, eta lohiak, eta gizon-hiltzaileak, eta jainkoaizuntiarak, eta gezurra maite eta egiten duten guziak.

16. Nik, Jesusek, bidali dut ene aingerua horien lekhukotasuna zuei egitekotzat elizetan. Ni naiz Dabiten aldaska, eta ethorkia, izar argia, eta goizeko izarra.

17. Eta izpirituak eta andre Esposak diote: Zato. Eta bethor egarri dena, eta urrurik izan beza nahi duenak bizitzeko uretik.

18. Baina hitz diot liburu huntako profeziako hitzak aditzen dituen edo-zeini: Baldin norbaitek iratxikitzen badiote, Jainkoak joko duela liburu huntan ezarriak diren izurriez.

19. Eta nihork gutitzen badu liburu huntako profeziaren hitzetarik, Jainkoak hura khenduko duela bizitzeko Liburutik, eta hiri saindutik, eta liburu huntan iskribatuak direnetarik.

20. Haukien lekhukotasuna egiten duenak dio: Bai, heldu naiz laster. Halabiz. Zato, Jesus Jauna.

21. Jesu-Kristo gure Jaunaren grazia izan bedi zuekin ororekin. Halabiz.



BENEDICITE

Jaunaren egintza guziak, Jauna benedika zazue; ospa eta mendeetan oroz-gainetik gorets zazue.

Jaunaren aingeruak, Jauna benedika zazue; ortziak, benedika zazue Jauna.

Ortzi-gainetako ur guziak, Jauna benedika zazue; Jaunaren dohain guziak, benedika zazue Jauna.

Iguzkiak eta ilhargiak, Jauna benedika zazue; ortziko izarrak, benedika zazue Jauna.

Zareten uri-ihintzak, Jauna benedika zazue; Jaunaren izpiritu guziak, benedika zazue Jauna.

Suak eta khaldak, Jauna benedika zazue; hotzak eta beroak, Jauna benedika zazue.

Ihintz-izotzak, Jauna benedika zazue; hormateak eta hotzak, benedika zazue Jauna.

Hormak eta elhurak, Jauna benedika zazue; gauak eta egunak, benedika zazue Jauna.

Argiak eta ilhunbeak, Jauna benedika zazue; simistak eta hedoiak, Jauna benedika zazue.

Lurak Jauna benedika beza; ospa beza eta oroz gainetik gorets mendeetan.

Mendi eta mendixkak, Jauna benedika zazue; lurraren gaineen muskiltzen zareten guziak, benedika zazue Jauna.

Ithur-urak, Jauna benedika zazue; itsasoak eta hibaia, benedika zazue Jauna.

Arrain eta urpetan erabiltzen zareten guziak, Jauna benedika zazue; airetako hegastin guziak, Jauna benedika zazue.

Abere eta aziendak, benedika zazue Jauna; giza-semeak, Jauna benedika zazue.

Izraelek benedika beza Jauna; ospa eta oroz gainetik gorets beza mendeetan.

Jaunaren aphezak, benedika zazue Jauna; Jaunaren zerbitzariak, Jauna benedika zazue.

Izpirituak eta zuzenduruen arimak, benedika zazue Jauna; sainduak eta bihotzez aphaletsiak zaretenak, Jauna benedika zazue.

Ananias, Azarias, Misael, benedika zazue Jauna; ospa eta oroz gainetik gorets zazue mendeen-mendetan.

Benedikatzen ditugu Aita eta Semea, Izpiritu Sainduarekin batean; ospatzen eta oroz gainetik goستن ditugu mende guzietan.

Benedikatua zare, Jauna, zeruetako ortzian; ospagarri eta handiesgarri zare, eta oroz gainetik goretsia zare mendeetan.

Benedikatua zare, Jauna, zure erreinuko jar-lekhuan, goresgarri zare oroz gainetik, eta goretsia zare mendeen-mendetan.

Donibane-Lohitzun uztailearen 29 1856

J. Duvoisin

Ezpeletarra



ARRANGOITZEKO DOTRINA

Arcangues

**Giixtino Dotrina Aita Gazpar Aztete Jesuixtak
erdaraz ixkiatuia eskuaraat itzulia Iruñako Dionesako
Jaun Bikario batek, emendatuik zenbeit othoitzez eta bertze gau-
zez,**

Giixtino fidelen ixtruzioneko

Behar den premisioniaakin

**Iruñan
Gartziaen inprimerian
1853**

Irakurtzaileai

Nahiz hainitz gisetaa itzulia kausitzen den eskuaraz aita Gazpar Astete Jesuixtak, erdaraz ixkiibatu Giixtino Dotrina, bada oino Iruñako dionesako zenbeit eskualdun herri konpreni ez dezaketenak liburu hetako eskuara guzia, mintzatzeko manera hainitz difeenta delakotz batzuietaik bertzetaa, eta nola nesesario beita Giixtino guziak salbamenduia in izaiteko izan ditzen behar den bezala ixtruituiak Jinkoaen Lege Sainduian, publikatzen da dotrina hau herri hetan eta bertze hainitzetan mintzatzea kostumatzen den eskuaraz, lekhu hautako Giixtinoak errexkioo ixtruituiak izaiteko Erlixioneko einbidetan, zeintan atxemaen baitie emendatuik zenbeit othoitze eta gauza bertze dotrinako liburuetan eztenak. Ikhasen bauzu ongi dotrina seindu hau, eta apartatuz bekhatu eiteko okasione guzietak, segitzen hunek iakusten dautzun bidea, izaan duzu zeruko loria, baita desiratzen dautzuna zure zerbitzari humilak.

1. Il semble que la femme interrogée p<rononce>, bien des fois aitain pour aitaen. N<éanmoins> si on lui demande explication, elle répond toujours par aitaen.

2. Il en est de même pour Jinkoan et Jinkoen. Je crois être sûr cependant que souvent elle prononce aan.

3. Elle prétend qu'il faut dire haen (haren), mais harren lui échappe aussi dans la conversation.

4. Elle m'a dit zaa, zaalaik. Toutefois, elle est convenue à la fin que c'est zae.

5. Elle prononce indifféremment gue et gure.

6. De même baita et beita, eiten et iten de préférence eiten.

7. Quand elle dit bekhatuyan, zeruyan etc. elle prononce comme en français euyan. Il s'agit du son indéfinissable eu des Basques.

8. J'ai souligné parfois des lettres dans les mots pour faire voir que c'est avec intention que j'ai écrit ainsi.

9. J'ai réuni par un trait deux voyelles formant diphtongue. J'ai également marqué d'un trait l'a final dans des noms verbaux où il a été prononcé long et non double comme dans ikustéa, ikusteat pour ikhustera, ikusterat; quand j'ai écrit haat (harat) etc., c'est qu'alors les deux voyelles étaient sensibles.

Bekhatore guzientzat abis ona

Utzazu, bekhatorea,
Gaur beretik bekhatuia;
Urrun zaite okasionetik
Zeintan baitzaa sarthua.

Izan deitake gaurko gauean
Zure ohean hiltzea,
Bai eta bihar baino lehen
Ifernuian sartzea.

Utz detzaun bizio hek
Zeinek baikauzkate galduik,
Eta galdein barkhamendu
Jinkoai damu einik.

Liburu huntan erraiten dena
Sinets eta eizu,
Izanez zeruko loria



Guutze senduiain seinaliain gatik gure etsaietaik libra getzatzu, gure Jauna eta Jinkoa.

Aitain eta Semeain eta Izpiitu Seinduiain izenean. Halabiz.

Gure Aita

Gure Aita zeruetan zaudena erail bedi seinduki zure izena, ethor bedi zure erresuma, ein bedi zure boondatea, zeruiain bezala lurrean ee. Iguzu egun gure eguneko ogia; barkha zaützu gure zorrak, guk gure ganat zordun dienei barkhatzen dioteun bezala eta ez getzatzula utz tentamen-dutan erortze'a, baizik libra gaitzatzu gaitzetik. Halabiz.

Agur Maria

Agur, Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin, benedikatuia zaa emazte guzien artean, eta benedikatuia da zure sabeleko fruituia Jesus.

Maria seindua Jinkoan ama eizu othoitz gu bekhatorosentzat orai eta gure heriotzeko orenean. Halabiz.

Kredoa

Sinesten dut Jinko Aita bothere guzia dinaen baithan zeruiain eta lurrain kreatzailean eta Jesu Kristo haen seme bakhar gure Jaunain bait-han, zeina kontzebitu baitzen Izpiitu seinduiain berthutez, sorthu zen Maria Birjinaen ganik, pairatu zin Pontzio Pilatusen manuiiaan azpian; guutzefikatu zuten, hil-t-zen eta ehortzi zuten, jautsi zen ifernuietaa, hiru-garren egunean jeiki zen biziik hilen artetik, igan-t-zen zeruietaa, han dao jarriik Jinko aita bothere guzia dinaen eskuinean, handik ethorriko da bizien eta hilen juiatze'a. Sinesten dut Izpiitu Seinduiain baithan, Eliza katoliko seinduiain, seinduiain kominionean, bekhatuien barkhamenduiain, haragiaen phiztean, bethi iraunen din bizitzean. Halabiz.

Salbe

Agur, Erregina, miserikordiaan ama, gure bizitze, eztitasun eta espeantza, agur. Zuri oihuz gaude, Ebaan ume desterratuak zure gana gauzi suspiraka, auhen eta nigarretan, nigarrezko lekhu huntan. Eia bada, andrea, gure aartekoa, itzul-t-zatzu gure gana zure begi urrikalmendutsu hoik. Eta desterru hunen ondoan iakuts dezauzu Jesus, zure sabeleko fruitu benedikatuia. Oi barkhamendutsuia! Oi pietateduna! Oi Birjina Maria ezta! Othoitz eizu guetzat, Jinkoan ama seindua, izan gaiten dine ardiesteko Jesu Khristoen aintzak. Halabiz.

Koosio jeneala

Ni bekhatooa koosatzen natzaio Jinko Aita bothere guzia dienai, Maria Birjina dohatsuia, Mikael arkanjelu dohatsuia, Joanes Batixta dohatsuia, Petri ta Paulo apostolu seinduiei, seindu guziei, eta zuri, ene Aita, zeen ein beitut bekhatu gogoz, hitzez eta obraz, ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hortakotz eiten diot othoitz Maria bethi birjina dohatsuia, Mikael arkanjelu dohatsuia, Joanes Batixta dohatsuia, Petri ta Paulo apostolu seinduiei, seindu guziei, eta zuri ene Aita, ein dezozuien othoitz gure Jinko Jaunai.

Kontrizionezko ata

Jesu-Kristo, ene Jauna, Jinko eta gizon egiazkoa, ene Kreatzaile eta erredemtorea. Zu zaenaen gatik eta zeen maithatzen zaitudan gauza guzien gainetik, damu-ut, Jauna, bihoz guzitik, zu ofentsatuik, hartze-ut boondate fermu at ez gehiao bekhatuik eiteko, koosatzeko eta emaen zau-tan penitentziaen konplitzeko eta apartatzeko bekhatu eiteko okasione guzietaik. Eskeintzen dazkitzut ene bizi, obra eta nekheak, ene bekha-tuien satisfazionetan, konfiatzen naiz zure ontasun eta miserikordia finik gabekoan barkhatuko dazkidatzula zure odol preziatu, pasione eta herio-tzean meezimenduien gatik eta emaen dautazula grazia hobeki bizitzeko eta irauteko zure zerbitzu seinduiain heriotzeko oreneaino. Halabiz.



Kontrizionezko ata Frantziako gisan

Ene Jinko maitea, barkhamendu eske nautzu humilki ene bekhatu guziez, damu-ut eta urriki, zure amorea katik, zeen guziz ona zaalaik ofentsatu zaitudan eta harte-ut boondate fermu at ez gihiao bekhatu eiteko zure graziaikin batean; halaber hartze-ut boondate ene bekhatu guzien osoki koosatzeko eta ematen zautan penitentziaen konplitzeko. Halabiz.

Hamar Manamenduiak

Jinkoaen legeko manamenduiak die hamar. Lehenbiziko hiruak Jinkoaen ohoreai doazkonak eta bertze zazpiak protsimo lagunaen prootxuiak.

Lehenbizikoa. Jinkoa maithatzea gauza guzien gainetik.
 Bigarrena. Haen izen seinduiatz jumentu ez eitea banoki.
 Hirugarrena. Igandeak eta bestak santifikatzea.
 Laugarrena. Aitaen eta amaen ohoratzea.
 Bosgarrena. Nihor ez hiltzea.
 Seigarrena. Lohikeriaik ez eitea.
 Zazpigarrena. Ez ebastea.
 Zortzigarrena. Lekhukotasun faltsuik ez eitea ez eta gezurrik erraita.

Bedeatzigarrena. Bertzeen esposik ez desiratzea.
 Hamargarrena. Bertzeen gauzaik ez desiratzea.

Manamendu berak Frantziako gisan

1. Jinko at adora zazu,
Halaber Maitha osoki.
2. Jumentuik zuk eztuzu
Ez zinik einen banoki.
3. Igandeak beira zatzu,
Jauna ee zerbitza deboki.
4. Aita eta ama ohora zatzu
Bizi zaiten luzeki.
5. Nihor obraz hilen eztuzu

- Ez boondatez gaixtoki.
 6. Pallardizaik einen eztuzu
Obraz ez gogoz likhiski.
 7. Bertzeena ebatsiko eztuzu
Ez atxikiko injustuki.
 8. Lekhukotasunik eztuzu
Ez hitz erraen faltsuki.
 9. Bertzeen esposik eztuzu
Desiratuko lizunki.
 10. Gutizia izaen eztuzu
Bertzeen onaen gaizki.

Hamar manamendu hauk zerratzen die bietan; Jinkoaen zerbitzatzea eta maithatzea gauza guzien gainetik, eta protsimo launa geonen buruiak bezala. Halabiz.

Fedezko artikuluiak

Fedezko artikuluiak die hamalau, lehenbiziko zazpiak Jinkotasunai doazkonak, eta bertze zazpiak Jesu-Kristo Jinko eta gizon egiazkoan Gizontasun seinduiak.

Jinkotasunai doazkonak die hauk:
 Lehenbizikoa: Sinestea Jinko bakhar botheretsu batean.
 Bigarrena: Sinestea Aita badela.
 Hirugarrena: Sinestea Semea badela.
 Laugarrena: Sinestea Izpiitu Seinduia badela.
 Bosgarrena: Sinestea Kreatzailea dela.
 Seigarrena: Sinestea Salbatzailea dela.
 Zazpigarrena: Sinestea Lorifikatzailea dela.

Gizontasun seinduiak die hauk:
 Lehenbizikoa. Sinestea Jesu-Kristo gure Jauna gizon bezala izan zela kontzebituia Izpiitu Seinduiak obraz eta graziaz.
 Bigarrena. Sinestea sorthu zela Birjina Maria seinduiak ganik, gelditzen zelaik hau Birjina erdi aintzinean, erditzean eta erdi ondoan.



Hirugarrena. Sinestea errezebitu zitila heriotzea eta pasionea gu bek-hatorosen salbatzea atik.

Laugarrena. Sinestea jautsi zela ifernuietaa eta athaa zitila haen ethortze seinduaen beira zauden arimak.

Bosgarrena. Sinestea piztu zela hilen artetik hirugarren egunean.

Seigarrena. Sinestea igan zela zeruietaa eta daola jarriik Jinko Aita guziz botheretsuaen eskuineko aldean.

Zazpigarrena. Sinestea jeen dela bizien eta hilen juiatze'a, onei emai-teko loria, zeen beiratu zituzten haen manamendu seinduiak, eta gaixtoei sekulako pena, zeen etzituzten beiratu.

Giixtino Dotrina

Giixtino dotrinaen deklaazionea galdeinez eta ihardetsiz

GALDEITE-DUT: Giixtinoa zaa?

I HARDESTE-UT: Ba, Jinkoan graziaz.

G. Noen ganik izan zinin giixtinoaen izen seindu hoi?

I. Jesu-Kristo gure Jaunaen ganik.

G. Zer erra-nahi da giixtinoa?

I. Kristoen gizona.

G. Zer aitze-uzu Kristoen gizonaz?

I. Jesu-Kristoen fedea dina bathaioan errezibituik eta obligatua dena haen zerbitzu seindura.

G. Zein da giixtinoaen seinalea?

I. Guutze seindua.

G. Zetako?

I. Zetako beita Kristo guutzefikatuiaen itxura, zeintan erosi beikin-tin.

G. Zenbat gisetaa Giixtinoak eiten du seinale hoi?

I. Bietaa, Jauna.

G. Zein die?

I. Eta zeinatea.

G. Zer da ...?

I. Eskuineko erhi pototsaz hiru guutze eitea, lehenbizikoa kopetan, bigarrena ahoan, hirugarrena bulharretan mintzatzen gaalaik gure Jinko Jaunaekin.

G. Iakuts nola?

I. Guutze seinduaen seinaleaen gatik etsaietaik libra gaitzatzu, gure Jauna eta Jinkoa.

G. Zetako ... zaa kopetan?

I. Jinkoak libra gaitzan pentsamendu gaixtoetaik.

G. Zetako ahoan?

I. Jinkoak libra gaitzan hitz gaixtoetaik.

G. Zetako bulharretan?

I. Jinkoak libra gaitzan obra eta desio gaixtoetaik.

G. Zer da zeinata?

I. Eskuineko eskuko bi erhiez guutze-at eitea kopetatik bulharretai-na, ezkerreko soinetik eskuinekoraino, mintzatzen gaalaik Trinitate guziz seinduaekin.

G. Iakuts nola?

I. Aitaen eta Semeaen eta Izpiitu Seinduaen izenean. Halabiz.

G. Noiz ein behar duzi guutzearen seinale hoi?

I. Zerbeit obra on eiten hasten gaenean edo kausitzen gaenean behar, tentamendu edo lanjeretan; partikulazki ohetik jeikitzean, etxetik athaatzean, elizan sartzean, jateakoan, eta lokhartzeakoan.

G. Zetako hanbertz'aldiz?

I. Zeen lekhu eta denbora guzietan gure etsaiek atakatzen eta per-tsegitzen baikaituzte.

G. Zer etsai die hoik?

I. Mundaia, debrua eta haragia.

G. Beez guutzeak berthute badu etsai hoiien kontra?

I. Ba-Jauna.

G. Nondik du berthute hoi?

I. Jesu-Kristok bere heriotzeaz guutzean garaitu zitilakotz.

G. Adoratze-uzunean guutzea, nola erraiten duzu?

I. Adoraten zituu Kristo eta benedikatzen, zeen zure guutze sein-duiaz erosi beitzu mundaia.

Giixtino dotrinaen beezkuntza

Ikusi duu giixtinoa zaela giixtinoaen izen eta seinaleaz, erran dezaa-zu orai.

G. Zenbat gauzen jakite'a obliatua da giixtinoa heltzen delaik adi-mendutaa?

I. Lau gauza.



G. Zein die?

I. Jakitea zer behar din sinetsi, zer galdein, zer obratu eta zer erreze-bitu.

G. Nola jakien du zer behar din sinetsi?

I. Jakinez kredoa eta fedezko artikuluiak.

G. Nola jakien du zer behar din galdein?

I. Jakinez Gure Aita eta Elizaen bertze othoitzak.

G. Nola jakien du zer behar din obratu?

I. Jakinez Jinkoaen legeko manamenduiak, Eliza Ama Seinduiaenak eta miserikordiazko obrak.

G. Nola jakien du zer behar din errezebitu?

I. Jakinez Elisa ama seinduiaren sakramenduiak.

Dotrinaen lehenbiziko phartea

zeintan iakusten beitie kredoa eta fedezko artikuluiak

G. Errazu: Nok erran-t-zin kredoa?

I. Apostoluek, Jauna.

G. Zetako?

I. Gu fede seinduiatz argitzeko.

G. Eta zuk zetako erraite-uzu?

I. Giixtinoek duun fede hunen aithorraen eiteko.

G. Zer da fedea?

I. Ikusi eztuunaen sinestea.

G. Ikusi zinin Jesu Kristo sortzen?

I. E-Jauna.

G. Ikusi zinin hiltzen edo zeruiataat igaiten?

I. E-Jauna.

G. Sineste-uzu?

I. Ba-Jauna, sineste-ut.

G. Zetako?

I. Zeen Jinkoak ezautazki beiti Eliz'Ama Seinduiak eta hunek hala erakusten guri.

G. Zer gauza die giixtino bezala dauzkatzunak eta sinesten ditutzu-nak?

I. Erromako Eliz'Ama Seinduiak dauzkanak eta sinesten-tinak.

G. Zer gauza die zuk eta hark dauzkatzinak eta sinesten ditutzinak?

I. Fedezko artikuluiak printzipalki, kredoa dauden bezala.

G. Zer gauza die fedezko artikuluiak?

I. Hek die fedeaen mixterioik printzipalenak.

G. Zetako die fedezko artikuluiak?

I. Ezautzeko gure Jinko Jauna eta Jesu-Kristo gure erredemtorea.

G. Nor da Jinkoa?

I. Hura da gauzaiek etselentena eta miragarriena, erran eta pentsa ez ditakena; Jaun bat guziz ona, botheetsua, jakintsuna, justua, gauza guzien hastapena eta akhabantza.

G. Nor da Trinitate Seinduiak?

I. Hura da Jinko bera, Aita, Semea eta Izpiitu Seinduiak, hiru presuna distingatuak, eta egiazko Jinko at bakharra.

G. Aita Jinko da?

I. Ba-Jauna.

G. Semea Jinko da?

I. Ba-Jauna.

G. Izpiitu Seinduiak Jinko da?

I. Ba-Jauna.

G. Hiru Jinko die?

I. E-Jauna, Jinko egiazko bakhar bat baizik.

G. Aita Semea da?

I. E-Jauna.

G. Izpiitu Seinduiak Aita da, edo Semea?

I. E-Jauna.

G. Zetako?

I. Zeen presuna distingatuak beitie, nahiz dien Jinko bakhar bat.

G. Nolaz da Jinkoa guziz botheetsua?

I. Zeen bere bothereaekin bakharrak eiten beitu nahi din guzia.

G. Nolaz da kreatzailea?

I. Zeen ez deusetaik ein baitzitin gauza guziak.

G. Nolaz da salbatzailea?

I. Zeen emaiten beitu grazia eta barkhatzen bekhatuiak.

G. Nolaz da lorifikatzailea?

I. Zeen emaiten baitu loria haen grazian irauten dinai.

G. Jinkoak badu guk bezala gorphutz itxuraik?

I. Jinko bezala ez, zeen Izpiitu hutsa beita, bainan bai gizon bezala.

G. Trinitateko hiru presunetaik zein ein-t-zen gizon?

I. Bigarrena, zeina baita Semea.

G. Aita eintzen gizon?

I. E-Jauna.



G. Izpiitu Seindua ein zen gizon?
 I. E-Jauna.
 G. Zein bada?
 I. Bakharrik Semea, zeina gizon einik deitzen baita Jesu-Kristo.
 G. Beez hau, nor da Jesu-Kristo?
 I. Hau da Jinko biziaen semea guri bizitzen iakustea-atik eta gure erospaen eiteko, gizon ein-t-zena.
 G. Zer erran-ahi du Jesusek?
 I. Salbatzailea.
 G. Zertaik salbatu gintin?
 I. Gure bekhatutik eta debruaen esklabotasunetik.
 G. Zer erran-ahi du Kristok?
 I. ... konplitua edo gantzutua.
 G. Zertaz izan zen bethea?
 I. Izpiitu Seinduaen dohainez eta graziez.
 G. Jesu-Kristo gure Jauna nola izan-t-zen kontzebitua, eta sorthu zen Ama birjinaen ganik?
 I. Jinkoak obratuz surnatualki eta miakuluzki.
 G. Nola izan-t-zen obra miakuluzko hura?
 I. Izpiitu Seinduiak Ama Birjinaen errailetako odolik garbienetik formatu zin gorphutz bat, ez deusetaik kreatu zin arima-at; arima eta gorphutz hura elkharrekin batuik juntatu zien Trinitateko bigarren presunai eta ordu arteo Jinko beizik etzena gelditu zen Jinko eta gizon einik.
 G. Kristoen Ama bethi bizi izan-t-zen Birjina?
 I. Ba-Jauna, bethi Birjina.
 G. Zetako Kristok hil nahi izan-t-zin guutzean?
 I. Gu bekhatutik eta heriotzetik libratzea-atik.
 G. Zer aitze-uzu Jesu-Kristo hitz hautaz: hil ondoan jautsi zen ifer-nuiaz?
 I. Eztut aitzen kondenatuik dauden lekhu hura, beizik ee justuak zauden Linboa, deitzen beita Abrahamen galtzarra.
 G. Nola jautsi zen?
 I. Arima juntatuik Jinkotasunai.
 G. Eta haen gorphutza nola gelditu zen?
 I. Juntatuik Jinkotasun beraekin.
 G. Nola phiztu zen hirugarren egunean?
 I. Haen gorphutza eta arima loriaz betheak juntatzen zielarik elkharrekin, behinee ez hiltzeko.
 G. Nola igan-t-zen zeruietaat?

I. Bere Berthutez.
 G. Zer erra-nahi du «Han jarriik daola Aita eternalaen eskuineko aldean?».
 I. Jinko bezala aitak bezanbat loria badila eta gizon bezala bertze guziek baino gutiao.
 G. Noiz jeen da bizien eta hilen juiatze'a?
 I. Munduaen akhabantzan.
 G. Eta orduian behaute hil guziek berriz piztu?
 I. Ba-Jauna, izan zuzten gorphutz eta arima berekin.
 G. Zer sineste-uzu erraite-uzunean «Sineste-ut seinduien kominio-nean?».
 I. Giixtino fidel guziek bautela pharte bertzeen onthasun ispiitualetan gorphutz baten menbroek bezala gorphutz hura baita Eliza.
 G. Zer da Eliza?
 I. Hura da giixtino guzien junta zeinen buruia baita Erromako Aita Seinduaia.
 G. Nor da Aita Seinduaia?
 I. Hura da Erromako aphez nausia, lurraen gainean Kristoen bika-rioa, zeini guziak baikie obligatuik obeditze'a.
 G. Kredoaz eta artikuluiez bertzalde sineste-uzu bertze zenbeit gauza?
 I. Ba-Jauna, Ixkiitura seinduien den guzia eta Jinkoak bere Elizai agertu dion guzia.
 G. Zer gauza die hoik?
 I. Hoi ez niri galdein, zeen iñoranta bainaiz. Eliz'Ama Seinduiak baitu dotorrek jakine-utenak ihardesten.
 M. Ongi diozu dotorrei zaiotela eta e-t-zuri kontu emaitea fedezko gauza guziez. Aski da zuetzat fedezko artikuluiez emaitea kredoan dien bezala.

Dotrinaen bigarren phartea zeintan iakusten baitie zer behar den galdein eta Eliz'Ama Seinduaen othoitzak

Ikusi duu nola dakizun zer behar den sinetsi, hura baita lehenbiziko gauza; goazin bigarrenera, zeina baita jakitea zer behar den galdein.
 G. Errazu: Nok erran-t-zin Gure Aita?
 I. Jesu-Kristok, Jauna.



G. Zetako?
 I. Guri othoitz eiten iakusteko.
 G. Zer da othoitz?
 I. Hura da Jinkoai bihotza altxatzea eta fogoreak galdeitea.
 G. Gure Aita erraitan noekin mintzo zaa?
 I. Gure Jinko Jaunaekin.
 G. Non da gure Jinko Jauna?
 I. Lekhu guzietan, partikulazki zeruian eta aldareko sakramendu seinduian.
 G. Zein da othoitzetan hobeena?
 I. Gure Aita, Jauna.
 G. Zetako?
 I. Zeen Jesu-Kristok berak erran baitzin bere ahoz, apostoluiek galdeinik.
 G. Zetako gihioo?
 I. Zeen baititu zazpi galde kaitatean gainean jarriak.
 G. Zein die?
 I. Lehenbizikoa, erail bedi seinduki zure izena.
 G. Zer galdeite-uzu galde hortan?
 I. Jinkoan izena izan dailala ezautuia eta ohoratuia mundu guzian.
 G. Zein da bigarrena?
 I. Ethon bedi zure erresuma.
 G. Zer galdeite-uzu galde hortan?
 I. Jinkoa erreina dailala hemen lurrean gure arimetan graziaz eta gero eman dezaüla bere loria.
 G. Zein da hirugarrena?
 I. Ein bedi zure borondatea zeruian bezala lurrean ee.
 G. Zer galdeite-uzu galde hortan?
 I. Jinkoan boondatea ein dezaula lurrean gaudenek zeruian doha-tsuiek eiten duten bezala.
 G. Zein da laugarrena?
 I. Iguzu egun gure eguneko ogia.
 G. Zer galdeite-uzu galde hortan?
 I. Eman detzaula Jinkoak gorphutzeko komeni den mantenuia, ari-mako grazia ispiitualak eta Sakramenduak.
 G. Zein da bosgarrena?
 I. Barkha ditzautzu gure zorrak guk gure ganat zordun dienei barkhatzen daizte-un bezala.
 G. Zer galdeite-uzu galde hortan?

I. Jinkoak barkha ditzaula geonen bekhatuiak, hala nola guk barkhatzen baitiozkateu gure gaizki-eilei.
 G. Zein da seigarrena?
 I. Ez gaitzatul'utz tentamendutan erortzeat.
 G. Zer galdeite-uzu galde hortan?
 I. Jinkoak ez gaitzala utz erortze'a ez etare kosentitze'a, debruiak bekhatuian erorraaztea gatik ekhartzen daukun pentsamendu eta tentazione gaixtoetan.
 G. Zein da zazpigarrena?
 I. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik.
 G. Zer galdeiteuzu galde hortan?
 I. Jinkoak libra gaitzala arimako eta gorphutzeko lanjer eta gaitz guzietak.
 G. Zetako erraite-uzu lehenik «Gure Aita zeruietan zaudena?».
 I. Jinkoai bihotzaen altxatzeko eta galdeiteko humilitate eta konfientziaakin.
 G. Zer erra-nahi du «amen» azkenean erraite-uzun hitz hark?
 I. Hala izan dailala.
 G. Zer othoitz eiten diozu printzipalki Ama Birjinari?
 I. Agur Maria eta Salbe.
 G. Nok errantzin Agur Maria?
 I. Aingeru San Grabielek jin zenean Ama Birjinai agur eitera.
 G. Nok erran-t-zin Salbe?
 I. Eliz'Ama seinduiak du errezebituia.
 G. Zetako?
 I. Ama Birjinai fogore galdeiteko.
 G. Agur Maria edo Salbe erraiteuzunean noekin mintzo zae?
 I. Birjina Maria seinduiakin.
 G. Nor da Birjina Maria seinduia?
 I. Hura da andre at berthutez bethea, Jinkoan ama dena eta daona zeruian.
 G. Eta aldarean daona nor da?
 I. Hura da zeruian daonaen itxura eta imajina-at.
 G. Zetako dao aldarean?
 I. Hura ikusteaekin orhoit gaiten zeruian daonaz, eta harren itxura eta iduria delakoz, ekhar dezoun agur.
 M. Bada, hau bera ein beha-uzu bertze seinduian imajinei eta erlekiei.
 G. Ein behar duu othoitz aingeruei eta seinduiei?



- I. Ba-Jauna, gue aartekoei bezala.
 G. Zer gauza die aingeruiak?
 I. Hek die Izpiitu dohatsu batzu, Jinkoaz zeruian gozatzen daudenak.
 G. Zetako Jinkoak kreatu zitin?
 I. Eternitate guzian harren laudatzeko eta benedikatzeko.
 G. Zetako gihioo?
 I. Haen minixtro bezala goorna dezaten Eliza eta gizonak beira.
 G. Beez zuk bauzu aingeru beiralea?
 I. Ba-Jauna, eta bakhotxak badu berea.
 M. Bada, debozione handia izan dezozu eta hari gomenda zaite egun guziez.

Dotrinaen hirugarren phartea

zeintan iakusten baita zer behar den obratu

- Ikusi duu zer beha-uzun sinetsi eta galdein; ikuz dezaun orai zer beha-uzun obratu.
- G. Errazu: Zein da Jinkoen legeko lehenbiziko manamendua?
 I. Jinko-at adora zazu, halaber maitha osoki.
 G. Nok maithatzen du Jinkoa osoki?
 I. Haen manamenduiak beiratsen ditinak.
 G. Zer da Jinkoaren maithatzea osoki?
 I. Nahiao izaitea gauza guziak galdu ezen Jinkoa ofentsatu.
 G. Zertaa gihioo obliatzen gaitu manamendu hunek?
 I. Haen bakharrrik adoratzet'a gorphutzeko eta arimako errespetuik handienaz, sinetsiz eta espeantza hartuz haen baithan fede biziaakin.
 G. Nok bekhatu eiten du manamendu hunen kontra?
 I. Sinesten edo adoratsen ditinak idolak edo Jinko faltsuiak.
 G. Nok gihioo?
 I. Supertizione edo sorginkerietan sineste hartzen dinak eta hetaz baliatzen.
 G. Zein da bigarrena?
 I. Juamentuik zuk ez-t-uzu, ez zinik einen banoki.
 G. Nok eiten du juamentu banoki?
 I. Juamentu eiten dinak egiaik, justiziaik eta beharrik gabe.
 G. Eta bekhatu da kreaturen gatik juamentu eitea banoki?
 I. Ba-Jauna, zeen hetan eiten zaion juamentu Kreatzaileari.
 G. Zer erremedio da juamentu banoik ez eiteko?

- I. Kostumatzea erraitera ez, edo bai, Jesu-Kristok iakusten daukun bezala.
 G. Zein da hirugarrena?
 I. Igandeak beira zatzu, Jauna ee zerbitza deboki.
 G. Nok beiratsen-tu igandeak eta bestak?
 I. Meza osoa entzuten dinak eta beharrik gabe lanean hai eztenak.
 G. Zein da laugarrena?
 I. Aita eta Ama ohora zatzu, bizi zaiten luzeki.
 G. Nok ohoratsen-tu aita eta ama?
 I. Obeditzen, launtzen eta errespetatsen ditinak.
 G. Nor bertzeik aitze-uzu ait'amen izenean?
 I. Nausiao dienak adinean, ..., eta gobernuian.
 G. Zein da bosgarrena?
 I. Nihor obraz hilen eztuzu, ez boondatez gaixtoki.
 G. Zer manatsen da manamendu huntan?
 I. Nihoi gaizkiik ez eitea ez hitzez, ez obraz ez etare desirez.
 G. Zein da seigarrena?
 I. Pallardizaik einen eztuzu obraz ez gogoz likhiski.
 G. Zer manatsen da manamendu huntan?
 I. Izan gaitela garbiak eta ... hitzez obraz eta pentsamenduz.
 G. Zein da zazpigarrena?
 I. Bertzeena ebatsiko eztuzu ez atxikiko injustuki.
 G. Zer manatsen da manamendu huntan?
 I. Ez khentzea, ez idukitzea ez etare nahi izaitea bertzeen gauza jabeaan boondateen kontra.
 G. Zein da zortzigarrena?
 I. Lekhukotasunik eztuzu ez hitz erraen faltsuki.
 G. Zer manatsen da manamendu huntan?
 I. Ez arinki protsimo launaz gaizki juiatzea, ez erraitea, ez etare aitzea haen faltak.
 G. Nok bekhatu eiten du manamendu hunen kontra?
 I. Arrazoinik gabe juiamendu gaixtoak eiten ditinak, fama khentzen, segretuia agertzen eta gezurra erraiten.
 G. Zer debekatzen da bedeatzigarren eta hamargarren manamenduian?
 I. Haragizko plazer eta bertzeen onthasunen gutizia gaixtoak.

Eliz'ama seinduiaen manamenduiak die bortz

Lehenbizikoa: Igande eta bestetan meza osoan entzutea.



Bigarra: Urthean behin bedeen koosatzea edo lehenao heriotzeko lanjerik uste badu, edo kominiatu behar badu.

Hirugarrena: Bazko gaizumetan kominiatzea.

Laugarrena: Eliz'Ama seinduiak manatzen dinean barur eitea.

Bosgarrena: Detxumak eta pikainak Jinkoan Elizai pagatzea.

Manamendu berak Frantziako gisaa

1. Meza seinduiak entzun zazu

Besta igandetan deboki.

2. Bekhatuiak koosa zatzu

Urthean behin osoki.

3. Gorphutz seinduiak errezebi zazu

Bazkoz bedeen humilki.

4. Gartha bixiliak barur zatzu

Gaizuma ee osoki.

5. Detxumak eta pikainak paga zatzu

Elizai xuxenki.

G. Zetako die manamendu hauk?

I. Jinkoan legekoe hobeki beiratzeko.

Miserikordiazko obrak hamalau die; zazpi ispiitualak edo arimai doazkonak, eta bertze zazpi korpoalak edo gorphutzai doazkonak

Zazpi ispiitualak edo arimai doazkonak hauk die:

Lehenbizikoa: Eztakienai iakustea.

Bigarra: Behar dinai kontseilu on emaita.

Hirugarrena: Gaizki dailanaen korreitzea.

Laugarrena: Afrontuinen barkhatzea.

Bosgarrena: Triste dienen kontsolatzea.

Seigarrena: Protsimo launaen faltak eta flakeziak pazientziaekin sofritzea.

Zazpigarrena: Hilez eta biziez Jinkoi othoitz eitea.

Zazpi korpoalak edo gorphutzai doazkonak hauk die:

Lehenbizikoa: Erien bisitatzea.

Bigarra: Gose denai jateat emaita.

Hirugarrena: Egarri denai edateat emaita.

Laugarrena: Esklaboak gibelat erostea.

Bosgarrena: Biluzien beztitzea.

Seigarrena: Probe eta pelegrinei ostatu emaita.

Zazpigarrena: Hilen ehorztea.

G. Zetako deitzen die miserikordiazko obrak?

I. Zeen ezpaitie zor justiziaz.

G. Noiz obligatuko dute bekhatuiaen azpian?

I. Gizon jakintsunek behar handia dela juiatze-utenean.

Dotrinaen laugarren phartea zeintan iakusten baitie errezebitu behar dien sakramenduiak

Ikusi duu zer beha-uzun sinetsi, galdein eta obratu; ikus dezaun oai zer beha-uzun errezebitu.

G. Errazkitzu sakramenduiak.

I. Eliz'Amaen sakramenduiak die zazpi: lehenbiziko bortzak beharrezkoak die, obraz edo desirez errezebitu dienak, zeinak-abe gizona ezin salba baititake, uzten baitu mexprezioz; bertze biak boondatezkoak die.

Lehenbizikoa: Bathaioa.

Bigarra: Konfoimazionea.

Hirugarrena: Penitentzia.

Laugarrena: Kominionea.

Bosgarrena: Anontzioa.

Seigarrena: Ordena.

Zazpigarrena: Ezkontza.

G. Zer die sakramenduiak?

I. Hek die seinale ageri batzu Jesukristok ezarriak, hetaz emaiteko guri bere grazia eta berthuteak.

G. Zer da grazia?

I. Izaite dibino-at eiten dina gizona Jinkoan seme eta zeruko premu.

G. Zer berthute emaiten-tuzte sakramenduek graziaekin batean?

I. Printzipalki hiru teologalak eta dibinoak.

G. Zein die?

I. Fedea, espeantza eta kaitatea.

G. Zer da Fedea?

I. Ikusi eztuunaen sinestea, Jinkoak hala ezautaaazi dilakotz.

G. Nok bekhatu eiten du Fedeen kontra?



I. Gure erlixioneko egia guziak sinesten ez ditinak, edo bere faltaz ikhasten ez ditinak.

G. Zer da espeantza?

I. Zeruko loriaen espeantza izaitea Jinkoaren graziaen eta gure obra onen medioz.

G. Nok bekhatu eiten du espeantzaen kontra?

I. Jinkoaren baithan espeantza galtzen dinak, zeruiaen iraazteat entseiatzen eztenak; eta Jinkoa urrikalmendutsuia delakotz bekhatu eiten dinak.

G. Zer da kaitatea?

I. Jinkoaren maithatzea gauza guzien gainetik, eta protsimo launa gure buruiak bezala, heki einez hek guri eitea nahi ginukena.

G. Zetako da bathaioko sakramendua?

I. Bekhatu orixinalaen khentzeko eta bertze edozein bekhatu kausitzen dienen bathaiatzen denaen baithan.

G. Zer da bekhatu orixinala?

I. Hura da gure aita Adanen eta ama Ebaen ganik heldu zaikun bekhatu bat.

G. Nor nahik bathaia dezake behar orduian?

I. Ba-Jauna.

G. Zer ein behar du ontsa bathaiatzeko?

I. Ur natuala ixuri behar du bathaiatuia izan behar denaen buruiaen gaineat, erraiten delaik denbora berean: Nik bathaiatzen zaitut Aitaen, eta Semeaen eta Izpiitu Seinduaen izenean. Halabiz.

G. Zetako da konfoimazioneko sakramendua?

I. Hura da konfoimatzeko eta borthizteko errezebitu ginin fedean.

G. Zetako da penitentziako sakramendua?

I. Bathaiatuz geoztik ein bekhatuien barkhatzeko.

G. Zer bekhatu die hoik?

I. Hoik die mortalak eta benialak.

G. Zer da bekhatu mortala?

I. Hura da erraitea, eitea, phentsatzea edo desiratzea Jinkoaren legeaen kontra gauza handian.

G. Zetako deitze-uzu mortala?

I. Zeen hiltzen baitu eiten dinaen arima.

G. Zer pharte ditu Penitentziako sakramenduak bekhatu mortalaen khentzeko?

I. Hiru, Jauna.

G. Zein die?

I. Bihotzeko dolorea, ahozko koosioa eta obrazko satisfazionea.

G. Bekhatu mortalean erortzen den aldi guziez koosatu behar othe da berehala bekhatuia barkhatzekotz?

I. On leiteke, bainan ez da nesesario.

G. Zer ein behar da beez?

I. Izan behar da bere bekhatuiaz egiazko urriki-at, hobeki bizitzeko delibeazioneaakin eta koosatzeko Eliz'Ama seinduiak manatzen din denboran.

G. Zer da bekhatu beniala?

I. Hura da erraitea, eitea, phentsatzea edo desiratzea Jinkoaren legeaen kontra gauza ttipian.

G. Zetako deitzen da beniala?

I. Zeen hartan gizona aise erortzen baita eta aise barkhatzen baitzaio.

G. Zenbat gauzaz barkhatzen zaio?

I. Bedeatziz, Jauna.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: Meza entzuteaz.

Bigarra: Kominioneaz.

Hirugarrena: Ni bekhatooa erraiteaz.

Laugarrena: Aphezpikuiaen benedizioneaz.

Bosgarrena: Ur benedikatuiaz.

Seigarrena: Ogi benedikatuiaz.

Zazpigarrena: Gure Aita erraiteaz.

Zortzigarra: Prediku aitzeaz.

Bedeatzigarrena: Bulharrak joz Jeinkoai barkhamendu galdeiteaz.

G. Zetako da kominioneko sakramendua?

I. Errezebitzen delaik dineki, izan dain gure arimen hazgarri, eta emenda dezan grazia.

G. Zer errezebitze-uzu kominioneko sakramendu seinduian?

I. Jesu-Kristo, Jinko eta Gizon egiazkoa, aldareko sakramendu seinduian errealki daona.

G. Zetako da anontzioko sakramendua?

I. Hiru gauzetako.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: Bekhatuiaen tatxa eta khutsuien khentzeko.

Bigarra: Arimai indar emaitako etsaiaen tentazionen kontra.

Hirugarrena: Gorphutza osasunaen emaitako komeni bazaio.

G. Zetako da ordenako sakramendua?



I. Ordenatzeko eta kontsekratzeko Elizako ministroak hala-nola baitie aphezak, diakreak eta sudiakreak.

G. Zetako da ezkontzako sakramendua?

I. Ezkontzeko eta ezkonduen graziaen emaitako bizi daiten elkarrekin bakean eta umeak haz detzaten zerukotzat.

Bekhatu kapitalak zazpi die

Lehenbizikoa: Urgulua.

Bigarrena: Abarizioa.

Hirugarrena: Lohikeria.

Laugarrena: Kolera.

Bosgarrena: Gormandiza.

Seigarrena: Inbidia.

Zazpigarrena: Alferkeria.

G. Zetako deitzen-tuzu kapitalak gihienetan mortalak deitzen dien zazpiak?

I. Deitzen die kapitalak, dielakotz hautik sortzen dien bizioen buruiak, ithurriak eta erroak bezala; ez-tohakote ongi mortalak deitzea, zein hainitz aldiz ezpaitie benialak baizik.

G. Noiz die mortalak?

I. Dienean Jinkoan eta protsimo launaen kaitatean kontra.

G. Noiz die kaitatean kontra?

I. Hoitaz hausten denean Jinkoan eta Elizaen manamendu bat gauza handian.

G. Zer da urgulua?

I. Bertzeak baino gihioo izaiteko amodio desordenatu bat.

G. Zer da abarizioa?

I. Ontasunetako amodio desordenatu bat.

G. Zer da lohikeria?

I. Desoneskerietako plazer zikhinen amodio desordenatu bat.

G. Zer da kolera?

I. Mendekatzeko amodio desordenatu bat.

G. Zer da gormandiza?

I. Jateko eta edateko amodio desordenatu bat.

G. Zer da inbidia?

I. Bertzeen onan damua.

G. Zer da alferkeria?

I. Obra on eiteko gutizia eskasa.

Zazpi bizio hoien kontra badie zazpi berthute

Urguluaen kontra, humiltasuna.

Abarizioan kontra, jeneostasuna.

Lohikeriaen kontra, garbitasuna.

Koleraen kontra, pazientzia.

Gormandizaen kontra, jan xuhurra.

Inbidiaen kontra, kaitatea.

Alferkeriaen kontra, lanaen amodioa.

Arimaen etsaiak, zeinetaik ihes ein behar baituu hiru die

Lehenbizikoa, Mundua.

Bigarrena, Debrua.

Hirugarrena, Haragia.

G. Nola ihes eiten da munduaen ganik?

I. Mespexatuz harren handitasun eta banitateak.

G. Nola ihes eiten da debruaen ganik?

I. Othoitaz eta humiltasunaz.

G. Nola ihes eiten da haragiaen ganik?

I. Barur einez eta gorphutza mortifikatuz. Hau da Etsaiik handiena, zein haragia ezpaitzekeu aparta geonen ganik, baina bai debrua eta Mundua.

Berthute teologalak hiru die

Lehenbizikoa, Fedea.

Bigarrena, Espeantza.

Hirugarrena, Kaitatea.

Berthute kardinalak edo moralak hauk die

Lehenbizikoa, Prudentzia.

Bigarrena, Justizia.

Hirugarrena, Hazkartasuna.

Laugarrena, Modeazionea.

Gorphutzeko sentsuiak bortz die

Lehenbizikoa, begiez ikustea.

Bigarrena, beharriez aitzea.

Hirugarrena, ahoz jastatzea.

Laugarrena, sudurrez usaindatzea.

Bosgarrena, eskuz hunkitzea.



G. Zetako Jinkoak eman dazkiu sentsuiak eta bertze gaineko menbroak?

I. Orotaz zerbitza dezaun gauza guzietan.

Arimako ahalak hiru die

Lehenbizikoa, memoria.

Bigarrena, Adimenduia.

Hirugarrena, boondatea.

G. Zetako Jinkoak eman zukun Memoria?

I. Orhoitzeko hartaz eta haen fagorez.

G. Zetako adimenduia?

I. Ezautzeko Jinkoa eta hartaz pentsatzeko.

G. Zetako boondatea?

I. Maitatzeko Jinkoa gauza guzien gainetik, eta protsimo launa haen amorekatik.

Izpiitu Seinduaen Dohainak zazpi die

Lehenbizikoa, jakintasunaen Dohaina.

Bigarrena, adimenduiaen Dohaina.

Hirugarrena, kontseiluiaen Dohaina.

Laugarrena, ezautzaen Dohaina.

Bosgarrena, indarraen Dohaina.

Seigarrena, pietateaen Dohaina.

Zazpigarrena, Jinkoan beldurtasunaen Dohaina.

Izpiitu Seinduaen fruituak hamabi die

Lehenbizikoa, Kaitatea.

Bigarrena, Bakea.

Hirugarrena, bihotzeko handitasuna.

Laugarrena, urrikalmendutsutasuna.

Bosgarrena, Fedea.

Seigarrena, sentsuien beirapena.

Zazpigarrena, gozo ispiituala.

Zortzigarrena, Pazientzia.

Bedeatzigarrena, Ontasuna.

Hamargarrena, bihoz beraztasuna.

Hamekagarrena, Modestia.

Hamabigarrena, Garbitasuna.

Dohatsutasunak zortzi die

1. Dohatsu die izpiituz probe dienak, zeen hekintzat baita zeruietako erresuma.

2. Dohatsu die eztiak, zeen hek izanen baitie lurreko premu.

3. Dohatsu die nigar eite-utenak, zeen hek kontsolatuiak izaen baitie.

4. Dohatsu die justiziaz gose eta egarri dienak, zeen hek aseko baitie.

5. Dohatsu die urrikalmendutsuiak, zeen miseriakordia eina izaen baitzaio.

6. Dohatsu die bihotzez garbi dienak, zeen hek Jinkoa ikhusiko baitute.

7. Dohatsu die bakea ekhartze-utenak, zeen hek Jinkoan haur deithuiak izaen baitie.

8. Dohatsu die justiziaen gatik pertsekutatuiak dienak, zeen hekintzat izaen baita zeruietako erresuma.

G. Zer erran dituu orai?

I. Zortzi dohatsutasunak edo zoriontasunak.

G. Zer gauza die hoik?

I. Izpiitu seinduaen dohain eta berthuteen obraik hobeena.

G. Nor die izpiituz probe dienak?

I. Ohoreik eta abeastasunik nahi eztutenak, ttipiak izanikan ee.

G. Nor die eztiak?

I. Hasarrekor eztiak eta hasarredurak kasik higitzen ezititnak.

G. Nola die lurraen jabe?

I. Beren buruien jabe dielakotz.

G. Nor die nigar eite-utenak?

I. Beren gostuei ukho eite-utenak, ttipiak izanikan ere.

G. Nor die justiziaz gose eta egarri dienak?

I. Obligazionez duten guzia arthaekin eite-utenak.

G. Nor die urrikalmendutsuiak?

I. Pietatez betheak dienak arrotzekin ee.

G. Nor die bihotzez garbi dienak?

I. Beren pasionetan osoki mortifikatzen dienak.

G. Nor die bakea ekhartzeutenak?

I. Beren eta bertzen artean bakea ezartzeutenak.

G. Nor die justiziaen gatik pertsekutatuiak dienak?



- I. Gauza onetan goortzen dienak, nahiz izanik ee pertsekutatuak.
 G. Zertako deitzen die Dohatsutasunak edo zoriontasunak?
 I. Zeen hoitan baitao bizitze huntako urustasuna eta bertzeko espeantza.

Gizonaen lau azken finak

- G. Zein die gizonaen lau azken finak?
 I. Heriotzea, juiamendua, paraisua eta ifernua.
 G. Zer da heriotzea?
 I. Arima gorphutzetik athaatzea.
 G. Zer da juiamendua?
 I. Juiamendua da Jinkoaen aintzinean agertzea ein den ongiaen sariaen edo gaizkiaen gaztiguien errezeitzeko.
 G. Noat joaan da arima juiatua izan ondoan?
 I. Joaan da bethikotz paraisurat edo ifernurat, edo denbora batentzat purgatorioetaat, gero paraisuan sartzeko.
 G. Eta gorphutza zer einen da?
 I. Gorphutza geldituko da lurrean munduiaen akhabantzaaino, beinen orduian juntatuko da lehenauko arima beraakin hunen zorthe berain izaiteko.
 G. Zer da paraisua?
 I. Paraisua da aingeruien eta Jinkoaen grazian hil dien gizonentzat beezi dohatsutasuneko lekhu bat.
 G. Zer da ifernua?
 I. Ifernua da debriuen eta bekhatu mortaleko estatuian hil dien gizonentzat beezi dohakabetasuneko lekhu bat.
 G. Zer da purgatorioa?
 I. Purgatorioa da graziazko estatuian hil dien arimak dohazin lekhu bat, non mundu huntako phartez ematen baitute satisfazione osoa.
 G. Satisfazioneik eman dezakeu guk purgatorioetan dauden arimen penen laburtzeko?
 I. Ba-Jauna: arima justu hekin penak labur detzakeu, bai eta ere akhaba gure othoitzez, barurez, amoinez, indulijentziaz eta partikulazki meza-ko sakrifizio seinduiatz.

Indulijentziaz

- G. Zer da indulijentzia?
 I. Mundu huntan edo purgatorioetan penitentziaz Jinkoai bekhatu-ien gatik eman behar zaion satisfazionean barkhamendua.

- G. Nola iraahten da indulijentzia?

- I. Hunen iraahteko manatzen dien gauzak einez graziazko estatuian.
 G. Nola barkhatzen ditu Elizak bekhatuak zor zaizkon pena denborakoak?
 I. Iatxikiz Elizaen izenean Jesu Kristoen pasionea eta seinduien meezimendu sobratuak.

Inkarnazioneko mixterioak

- G. Zer da inkarnazioneko mixterioa?
 I. Trinitate seinduko bigarren presuna, zeina beita Jinkoan semea, gizon eitea Maria Birjinaen sabelean Izpiitu Seinduiaren obraz eta berthutetz, Andre hau gelditzen zelaik Birjina erdi aintzinean, erditzean eta erdi ondoan.
 G. Zenbat natualetza-itu Jesu-Kristok?
 I. Baitu bi natualetza Jinkoana eta gizonaana; baitu bi adimendu ee eta bi boondate; Presuna-at Jinko bezala, eta memorio-at gizon bezala. Gizon bezala, zeen ez beita kausitzen Kristoen baithan presuna humanoik, eta Jinko bezala gauza guziak dauzkalakoz gogoan; Aita at Jinko bezala, zeina beita Aita eternala, eta Ama at gizon bezala, hura baita Andre dena Maria, ez dilakotz aitaik gizon bezala, eta amaik Jinko bezala.
 G. Non da Kristo?
 I. Jinko bezala lekhu eta gauza guzietan, eta Gizon bezala bakharrik zeruian eta Aldareko Sakramendu Seinduiaren.
 G. Zein egunez kontzebitua izan da Jesu-Kristo Ama Birjinaen sabelean?
 I. Martxoaren hoi-ta-bortzean; hil-t-zen Ortziale seinduz; piztu zen Bazko egunean eta igorri zin Izpiitu Seindua Apostoluiei Mendekoste egunean.

Koosioaz

- G. Zenbat gauza behar die koosio on baten eiteko?
 I. Bortz, Jauna.
 G. Zein die?
 I. Lehenbizikoa: Kontzientziain etsaminatzea.
 Bigarrena: Bekhatuiek damu eta urriki surnatural bat hartzea.
 Hirugarrena: Gihioo bekhatuik ez eiteko delibeazione fermu-at hartzea.
 Laugarrena: Bekhatuak dien bezala koosatzea.



Bosgarrena: Penitentziaen konplitzea.

G. Zer da kontzientziaen etsaminatzea?

I. Azken koosio onaz geoztik ein bekhatuiez orroitzeta.

G. Nondik etsaminatzen da kontzientzia?

I. Jinkoan legeko hamar manamenduietaik, Eliz'Ama seinduiaren bortzetaik, miserikordiazko obretaik, bekhatu kapitaletaik, eta bakhotxak bee estatuko obliazionetaik.

G. Nola behar da etsaminatu kontzientzia?

I. Jinkoai graziak galdein ondoan, orroitu behar da non eta noekin ibili den, eta zer okasionetan kausitu den, zer bekhatu in din manamendu bakhotxaen kontra eta bee estatuko obliazionetan.

G. Zenbat denbora behar da kontzientziaen etsaminatzeko?

I. Ez da denbora zeinalatuik; bakhotxak hartu behar du kausitzen den sirkonstantzien arabera, hau delakotz eitekoik inportantena.

G. Zer da Dolorea?

I. Hura da damu eta urriki surnatual bat Jinkoa ofentsatuik.

G. Zenbat gisetaa da dolorea?

I. Bietaa, Jauna.

G. Zein die?

I. Kontrizionea et atrizionea.

G. Zer da kontrizionea?

I. Hura da damu eta urriki surnatual bat Jinkoa ofentsatuik, zein den guziz ona eta maithagarria, koosatzeko eta gihioo bekhatuik ez eiteko delibeazione fermu-atekin.

G. Zer da atrizionea?

I. Hura da damu eta urriki surnatual bat Jinkoa ofentsatuik, bekhatuaren itsusitasunaz, zeruaren galtzeaz, edo ifernuiaren meezitzeaz koosatzeko eta gihioo bekhatuik ez eiteko delibeazione fermu-atekin.

G. Zein da bi dolore hautaiek hobeena?

I. Kontrizionea, Jauna.

G. Zetako?

I. Zeen kontrizioneak berak koosatu baino lehen barkhatzen baititu bekhatuak, bainan atrizioneak ez koosatu ondoaino.

G. Zer da delibeazionea?

I. Gihioo bekhatuik ez eiteko delibeazione fermu-aten hartzea.

G. Zer da koosioa?

I. Coosioa da apez koosorai erraitea bekhatu mortal guziak kontzientzian kausitzen dien bezala batez utzi gabe.

G. Nola behar die koosatu bekhatuak?

I. Behar die garbiki deklaatu pentsamenduz, hitzez eta obraz manamendu bakhotxaen kontra ein bekhatu mortal guziak, bai-eta-ee sirkonstantzia bekhatuak handiao eiten edo xanjatzen duten guziak.

G. Kontzientzia etsaminatu faltaz behar bezala, ahalkeaz, beldurrez edo maleziaz uzten bada bekhatu mortal bat koosatzeko, koosioa on izaen da?

I. E-Jauna, leheneko bekhatuak gaine'at einen du sakrilio-at, eta gelditzen da obliatuia koosio beraen erreberritze'a.

G. Coosio ona izaen da, bere nahiik gabe ahanzten bazaio deklaatzeko bekhatu mortal bat?

I. Ba-Jauna, bainan orroitzen delaik, lehenbiziko koosioan deklaatu behar du nola aintzinean ahantziik utzi zin bekhatu hura.

G. Baldin bekhatu mortal bat koosatzen badu dudazko gisaa eta gero orroitzen bada seurki ein zila, behar du berriz koosatu bekhatu bera seur gisaa?

I. Ba-Jauna, zein bekhatuak, orroitzen denaz geoztik, barkhatuak izaiteko koosatu behar die seur gisaa.

G. Bekhatu benialak koosatu behar die?

I. On leitate, bainan ezta nesesario.

G. Zer da satisfazionea?

I. Apez koosorak emaiten din penitentziaen konplitzea.

G. Noiz behar da konplitu penitentzia?

I. Seinalatzen bada denbora, denbora hartan berean, seinalatzen ezipada ahal bezen laster.

G. Zer bekhatu izaen da penitentziaen ez konplitzea?

I. Penitentzia handia balinbada, eta uzten parte handi bat, izaen da bekhatu mortala; penitentzia ttipia bada, edo penitentzia handitik uzten parte ttipi bat, izaen da bekhatu beniala.

G. Noiz izaen da penitentzia handia?

I. Emaiten denean bekhatu mortalaren gatik, edo bekhatu mortaleko bidetik urrunteza-atik.

M. Coosio onan eiteko behar dien borz gauzetaik bat bakharra falta balinbada maleziaz, koosio gaixtoa izaen da; eta salbatzekotz, obliatuia da koosio gaixto guzien erreberritze'a koosio jeneal batez.

Koosatzeko moldeaz

G. Nola behar da koosatu?

I. Coosoraen oinetaa baino lehen belhaunikatuik einen da guutzean seinalea, eta ahuspez jarriik erraen «Ni bekhatuosa», hau finitu ondoan,



jaiki eta heltzen delaik koosoraen oinetaa, erraiten da: Laudatuia eta benedikatuia izan bedi aldareko sakramendu seinduia, edo, Aita, benedika nezazu, zeen ein baitut bekhatu.

G. Zer ein behar da gero?

I. Erran ondoan berak zenbat denbora din azken aldian koosatuik eta atsolutziona izanik deklaatuko ditu bee bekhatu guziak humiltasun handienaakin.

G. Zer erran behar da bekhatuiak deklaatu ondoan?

I. Bekhatuiak xanjazka deklaatu ondoan, erraen da: «Gisa berean akusatzen naiz oai eta bethi Jinkoai ein bekhatu guziez eta galdeiten diot barkhamenduia, eta zuri, ene aita ispiituala, penitentzia eta atsolutziona baldin komeni bazaut».

G. Baldin penitentak ezpadu bekhatu mortalik akusatzeko, zer ein behar du?

I. Lehenao ein bekhatu mortal koosatuietaik bat akusatuko du, eta ezpadu, gutienik eiten den bekhatu benial bat.

G. Zer ein behar da gero?

I. Humiltasun eta errespetuekin entzun ondoan koosoraen abisak eta errezeitu penitentzia, erraiten da ahuspekatuik (sic), bulharrak joz, kontrizionezko ata.

G. Zer ein behar da koosatu ondoan?

I. Maiz ibili gogoan koosoraen erranak, gihioo bekhatuik ez eiteko delibeaziona berritu, penitentziak hitzeman bezala konplitu eta Jinkoai eskerrak bihurtu.

Kominioneaz

G. Zer da ostian?

I. Apezak kontsekratzioneko hitzak erran arteo ogia, Jauna; apezak kontsekratzioneko hitzak erran ondoan Jesu-Kristoen gorputz preziatuia hain egiazki eta erreialki nola baitao zeruian.

G. Zer da kalitzan?

I. Apezak kontsekratzioneko hitzak erran arteo arnoa ur-t-xortaatekin; Apezak kontsekratzioneko hitzak erran ondoan, Jesu-Kristoen odol preziatuia hain egiazki eta erreialki nola baita zeruian.

G. Ostia kontsekratuian othe dao Jesu-Kristoen gorputza bezala odola ee, eta kalitza kontsekratuian odola bezala gorputza ee?

I. Ba-Jauna, batean eta bertzean kausitzen die gorputza, odola, arima, Jinkotasuna eta hiru presuna dibinoak, halako maneran non guziak baitie ostian eta guziak kalitzan.

G. Ogitik eta arnotik ezta deus gelditzen kontsekratzionean ondoan?

I. Ez, ezta gelditzen ogiaen eta arnoaren itxurak eta manerak baizik, zeinak baitie moldea, kolorea, usaina eta gustuia.

G. Apezak ogi eta arno kontsekratuian moldeak partitzen ditilaik, hausten da Jesu-Kristoen gorputza edo odola?

I. Ez, Jesu-Kristo kausitzen da den guzia beexi den parte bakotxean; eta hala ostia parte-at baizik errezeitzen ez tinak, errezeitzen du Jesu-Kristo guzia nola eiten baitu ostia osoa izaiten dinak.

Kominiatzeko dispozizionez

G. Zenbat gauza behar die kominione on baten eiteko?

I. Hiru, Jauna.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa, jakitea zer behar den errezeitu.

Bigarrena, barur natuanean joaitea.

Hirugarrena, Graziazko estatuian eitea.

G. Zer errezeitzen du kominiatzen dinak?

I. Jesu-Kristo gue Jauna, Jinko eta gizon egiazkoa, zeruian eta alda-reko Sakramendu senduian daona.

G. Zer aitze uzu barur natuanean eiteaz?

I. Izan behar da gauherdiz geroz jan eta edan gabea, non ez tin kominiatu behar eri bezala.

G. Zer aitze uzu graziazko estatuian eiteaz?

I. Ez da izan behar bekhatu mortaleko estatuian, eta hortakotz, kontzientzia ongi etsaminatu ondoan, estatu triste huntan kausitzen badu bee buruia, garbitu behar du koosio on batez.

G. Bekhatu mortaleko estatuian kominiatzen dutenek errezeitzeute Jesu-Kristo?

I. Ba-Jauna, bainan beren buruuen kondenzioneko, zeen eiten baitute sakriliozko bekhatu izigarri bat.

G. Nola hurbildu behar da kominiatze'a?

I. Onheski beztituia, humilitate, errespetu eta egiazko debozionatekin.

Kominioneko mementoaz

G. Zer erran behar da apezak ostia seinduia hartzen dinean?

I. Jauna, ni es naiz dine zue errezeitzeko, bainan errazu xoilki hiz bat, eta ene arima izaen da sendatuia eta salbatuia.

G. Zenbat aldiz erran behar da?



I. Hiruetan, Jauna.

G. Eta gero zer erraiten da?

I. «Jauna, zure esku dibinoetan gomendatze-ut ene arima» .

G. Nola egon behar da kominiatzeko mementoan?

I. Belhaunikatuik eta begiak aphalduiak, bainan itzuliak ostia seinduaen ganat, eta mihia azpiko ezpeinaen gaineat erdi athaatuia.

G. Zer ein behar da ostia seindua errezeitu ondoan?

I. Apezak eskuia gibelatu dinean, ahoa hetsi behar da eta ostia seindua iretsi hezatu denean.

Koosatzeko eta kominiatzeko othoitzak

Koosio aintzineko othoitza

Jesu-Kristo, ene Jauna, ene salbamenduiaen espeantza bakharra, othoizten zaitut zure pasioneaen eta heriotzeain gatik eman detzaatzun kontrizionea eta dolamenak ene bekhatuiez nigar eitea. Munduiaen Salbatzailea beha zozu bekhatos miseable huni, zue Ama Seinduaen eta bertze Seindu guzien meezimenduien gatik igor dezaazun, Jauna, zue argia, iakuts detzaan ene falta guziak eta laun nezan zue zerbitzu saindura heltzen. Damu-ut, Jauna, zu ofentsatuik, zeen zaen guziz ona eta osoki maithagarria; damu-ut hoin dispozizione guti izanez ene falten koosatzeko; damu-ut ene bizi pasatuian egin bekhatuiez eta damu-ut ez damu gihio ez izanez. Hitzemaiten dautut, Jauna, osoki zuegana bihurtzea, eta ihes itea bekhatuko okasione guzietatik. Bada holetan othoizten zaitut eman dezaazun grazia koosio huntaik aintzinat, bizi nain zue boondate seinduaiekin, ez einez, ez erranez, ez eta pentsatuz zue loriako eta ene zorioneko denik baizik. Halabiz.

Koosio ondoko othoitza

Jauna, zue Ama Seinduaen eta bertze seindu guzien meezimenduien gatik izan dakizun agreable ene koosio hau, eta huts in tuan gauza guziak barkha dietzaala zue pietateak eta haen arabera urrikal zaite ene idukitze-ko atsolutuia eta borthizteko ene xede onen atxikitze-ko, bizi eta erreinatzen zaena Aitaikin eta Izpiitu Seinduakin batean. Halabiz.

Kominione aintzineko othoitza

Oi Aita guziz botheetsuia, ene Jinko eta Kreatzaile seindua, errespetu ta humiltasun handienekin hurbiltzen naiz Aldare seindu hortaat, nahiz indine kausitzen naizen, zue maiestate adoragarriaen errezeitze-ko. Ene bihotze-ko hoztasuna da, Jaun soberanoa, indine iten nauena behar den amodioaakin zue ganat hurbiltze-ko, bainen zue hitz eztiak die konfientziaakin hurbilaazten nautenak Aingeruiein janhari seindu hortan partalier izaite'a. Zue boondate denaz geoztik, Jesus ezti, desiatzeut zure gorphutz dibinoaren errezeitzea, Birjina zure Ama Seinduiak eta zeruko Seinduek errezeitu zintuzten fede bizi, izpiitu garbi eta khartsu berekin. Halabiz.

Kominione ondoko othoitza

Eskerrak daukitzut, ene Salbatzaile maitea, zuk niri eman grazia guziez, eta beeziki zeen nahi izan duzun zue egoitza in ene baithan kominione seindu huntaz. Emaiten natzautzu naizen guzia zu niri osoki eman zaen bezala. Othoizten zaitut, Jesus ona, kominione seindu hau izan dain enetzat bekhatuiein barkhamendua fedeaen defentsa, ene bizio guzien heriotzea, amodio desordenatuiein desterrua, eta berthute guzien hazgarria; izan bedi ene izpiituaen sosegu, etsai guzien azote eta bakharrik zurekilako unionea, ene egiazko Jauna eta Jinkoa. Halabiz.

Othoitzak

Jan aintzineko othoitza

Aitain eta Semeain eta Izpiitu Seinduaen izenean. Halabiz.

Gue Jauna eta Jinkoa zue baithan duu gue espeantza, eta jateko behar dena zuk emaite-uzu; zuk eskuia zabaldu eta guziak beneizionez bethetzen gaitutzu. Gure Aita. Agur Maria.

Dohain guzien emaile zaen Jauna zure eskutik hartu eta jan behar duun guzia benedika zazu, Jesu Kristo zue semeain amoreakatik. Aitak eta Semeak eta Izpiitu Seinduiak benedika gaitzatela eta gero Loriako mahainera bethiko ereman gaitzatela. Halabiz.

Jan ondoko othoitza

Aitain eta Semeain eta Izpiitu Seinduaen izenean. Halabiz.

Eskerrak bihurtzen daukitzuzu, Jinko guziz botheetsuia, oai eta bethi zue ong'in guziez, zeina bizi baitzae eta erreinatzen mendetako mendetan. Gure Aita. Agur Maria.



Gue ongile guziak, Jauna, zue beneizioneaz paga zatzu, zue izen seinduiain gatik; eta arima fidel guziak zerura zure laudatzeat ereman zatzu, eta oai hemen bilduik gaen guziak zeruko lorian kausiaaz gaitzatzu. Halabiz.

Orenek emaitan

Laudatuia eta benedikatuia izan bedi Andre Dena Maria haragi bizi-tan Zaragozaat ethorri zen orena. Agur Maria.

Anjeluseko ezkila joitean

Jaunaen aingeruiak berri on bat eman dio Mariai eta hunek kontze-bitu du Izpiitu Seinduiain ganik. Agur Maria.

Huna Jaunaen neskatoa, ein dakiala zue hitzaen arabera. Agur Maria.

Eta Berboak hartu du haragizko gorphutz bat eta egon izan da gue artean. Agur Maria.

Othoitza

Iguzu othoi, Jauna, gue arimetaat zure grazia, aingeruiak guri berri onak ekharri eta Kristo zue semeaen gizon eitea ezautu duun hauk haren pasioneaen eta guutzeain gatik, bethiko loriaat eremanak izan gaitezin. Halabiz.

Fedezko ata

Ene Jinkoa, sineste-ut zaela Aita, Semea eta Izpiitu Seinduia, Jinko bakharra eta hiru presunetan distingatuia. Sineste-ut Trinitateko bigarren presuna ein zela gizon Izpiitu Seinduiain berthutez; sorthu zela Maria Birjinaen ganik, eta hil zela guutze batean gue salbatzea-atik; igan zela zeruietaat eta azken egunean jeen dela bizien eta hilen juiatze'a, emaiteko justuei bethiko loria eta gaixtoei sekulako ifernuia. Sineste-ut aldareko sakramendu seinduiain daola Jesu-Kristoen gorphutz preziatuia, hain erreialki nola baitao zeruian. Gisa berean sinesten-ut zuk Eliz'Ama seinduiain erran eta agertu diozkatzun Sakramendu, artikulua eta egia sinesgarri guziak eta sineste huntan bizi eta hil na-hut.

Espeantzazko ata

Oi ene Jinkoa! Zure seme Jesusen meezimenduiak eta heriotzea aarteko ditualaik eta haen graziaikin batean in-ahal guziak iten ditualaik, espeantza ut zue miseikordian izaen duala ene bekhatuien barkhamendui zeruko loria eta haat heltzeko grazia guziak.

Amodiozko ata

Ene Jinkoa, maite zaitut ene bihoz guziaz eta gauza guzien gainetik, zaelakoz guziz ona eta osoki maithagarria. Halaber maite ut ene protsimo launa, ene buruia bezala zure amoreakatik. Damu-ut eta dolu zu ofentsatuik; barkhatzen diotet ene etsai guziei zure gatik eta zue izenean.

Ofreimenduzko ata

Ene Jinkoa, eskerrak bihurtzen daukitzut zure esku dibinoetaik izan tudan graziez eta dohainez, eta beeziki zeen utzi nauzun heltzera egun seindu huntaat, zeintan zure loriaen ohoretan ofreitzen baitaukitzut ene pentsamendu, hitz eta obra guziak, nahigabe, onthasun eta bizia Jesu Kristoen meezimendu eta odol preziatuiaekin; eta hitzemaiten dau-tzut fermuki gihioo ez ofentsatzea zure graziaikin batean. Emazkiatzu beez, Jauna, zue launtzak hola goorna nain Jesu-Kristoen, bere Ama seinduiain eta zeruko bertze seindu guzien meezimenduien gatik.



AINHOAKO DOTRINA

(Dialecte d'Ainhoa)

**Giixtino Dotrina, Aita Gazpar Aztete Jesuixtak
erdaraz ixkribatua, Eskuaraat itzulia Iruñeko Diosesako
Jaun bikario batek, emendatuik zenbeit othoitz eta bertze gauzez,
Giixtino fidelen ixtrutzioneko**

Behar den premisioneaikin

**Iruñen,
Gartziain inprimerian,
1853**

Irakurtzailiari

Nahiz hainitz gizetaa itzulia kausitzen den eskuaraz aita Gazpar Aztete jesuixtak erdaraz ixkribatu Giixtino Dotrina, bada oino Iruñeko diosesan zenbeit eskaldun herri konpreni ez dezaketenak liburu hetako eskuara guzia mintzatzeko manera hainitz difeenta delakotz batzuetatik bertzeetara; eta nola nesesario baita Giixtino guziak salbamenduain ardies-teko izan daitezkin behar den bezala ixtuituak Jinkoain lege sainduain publikatzen da dotrina hau herri hetan eta bertze hainitzetan kostumatzen den eskuaraz, leku hautako Giixtinoak errexkiago ixtruituak izaitea gatik Erli-xioneko inbidetan, zeinetan aurkhituko baitie emendatuik zenbeit othoitz et gauza bertze dotrinako liburuetan eztenak. Ikhasen baduzu ongi dotrina saindu hau eta apartatuz bekhatu iteko okasione suerte guzietatik, segitzen hunek erakhusten dautzun bidea, ardietsiko duzu zeruko loria bai eta desiratzen dautzuna zure zerbitza umilak.

Bekhatore guzientzat abisu ona

Utzazu, bekhatorea,
Gaur beretik bekhatua;
Urrun zaite okasionetik
Zeintan baitzaude sarthua.

Izan ditake gaurko gabea
Zure ohean hiltzea,
Bai eta bihar baino lehen
Ifernuan sartzea.

Utz detzaun bizio hek
Zeinek baikauzkate galduik,
Eta galda barkhamendu
Jinkoai (Jeinkoai) damu hartuik.

Liburu huntan erraiten dena
Sinhets eta in (ein) zazu,
Ardietsiz zeruko loria
Han zaitezkin deskantsa.

Khurutze sainduain seinaleain gatik gure etsaietaik libru gaitzatzu,
gure Jauna eta Jinkoa.
Aitain eta Semiaian eta Ispiitu Sainduain izenean. Halabiz.

Gure Aita

Gure Aita zeruetan zaudena, erail bedi sainduki zure izena, ethor bedi zure erresuma; in (ein) bedi zure boondatea zeruan bezala lurrean ere. Iguzu egun gure eguneko ogia; barkha diezagutzu gure zorrak guk gure ganat zordun dienei barkhatzen diozkateun bezala eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortzera, bainan gaitz guzietatik beira gaitzatzu. Halabiz.



Agur Maria

Agur, Maria, graziaz bethea, Jauna da zuekin; benedikatua zaa emazte guzien artean eta benedikatua da zure sabeleko fruitua Jesus. Maria Saindua Jinkoain ama, eizu othoitz gure bekhatuentzat orai eta bethi gure heriotzeko orenean. Halabiz.

Credo

Sinhesten dut Jeinko Aita bothere guzia duenain baithan, zeruain eta lurrain Kreatzailea eta Jesu-Kristo hain Seme bakhar gure Jaunain baithan, zeen kontzebitu baitzen Izpiitu sainduain berthutez, sorthu zen Maria Birjinain ganik, pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuain azpian; khuutzeфикату zuten, hil eta ehortzi zuten jautsi zen ifernuetaa, hirugarren egunean jaiki zen biziik hilen artetik, igan zen zeruetaat, han jarria baitao bere Aita Jinkoain eskuineko aldean, handik ethorriko da bizien eta hilen juiatzeat. Sinhesten dut Izpiitu Sainduain baithan, Eliza Katoliko Sainduan Sainduen partaliertasunean, bekhatuen barkhamenduan, haragiain piztean bethi iraunen duen bizitzean. Halabiz.

Salbe

Agur, zeruko erregina, miserikordian ama, gure bizitze, eztitasun eta espeantza, agur. Zuri oihuz gauzi Ebain ume desterratuak, zuri suspiraka gaude, auhenetan eta nigarrez nigarrezko lekhu hautan. Hean bada, andrea, gure aartekua, itzul zatzu gure gana zure begi miserikordios hoik. Eta desterru hunen onduan erakuts dezaguzu Jesus zure sabeleko fruitu benedikatua. Oi barkhamendutsua, oi pietatetsua, oi Birjina Maria ezta! Othoitz eizu guretzat Jinkoain Ama Saindua, izan gaitezin dino ardieste-ko Jesu-Kristoin agintzak. Halabiz.

Kobesio jeneala

Ni bekhatuea kobesatzen nitzαιο Jinko aita bothere guzia duenai, Maria Birjina bethi dohatsuai, Mikael Arkanjelu dohatsuai, Juanes Batixta dohatsuai, Petri eta Paulo apostolu sainduei, saindu guziei, eta zuri, ene

aita, zeren ein baitut sobera bekhatu, gogoz, hitzez eta obraz, ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hartaakotz othoitz iten diot Maria bethi Birjina dohatsuai, Mikael arkenjelu dohatsuai, Juanes Batixta dohatsuai, Petri eta Paulo apostolu sainduei, saindu guziei, eta zuri, ene aita, in dezazun enetzat othoitz gure Jinko Jaunari.

Kontrizionezko ata

Jesu-kristo ene Jauna, Jinko eta gizon egiazkoa, ene Kreatzailea eta erredemtorea. Zu zarenaen gatik eta zeen maithatzen zaitudan gauza guzien gainetik, damu dut, Jauna, bihoz guzitik zu ofensaturik, hartzen dut boondate fermubat ez gehiau bekhatuik iteko, kobesatzeko eta eman zautan penitentziain konplitzeko eta apartatzeko bekhatu iteko okasione guzietatik. Eskeintzen dauzkitzut ene bizia, obra eta nekhe guziak ene bekhatuen satisfazionetan, konfidentzia hartzen dut zure ontasun eta miserikordia finik gabekoan barkhatuko dazkidatzula zure odol preziatu, pasio- ne eta heriotzeain meezimenduen gatik eta emain dautazula grazia hobeki bizitzeko eta irauteko zure zerbitzu sainduan heriotzeko orduraino. Halabiz.

Kontrizionezko ata Frantziako gisan

Ene Jinko maitea, barkhamendu eske nagotzu umilki ene bekhatu guziez, damu dut et (sic) urriki zeren guziz ona zaelaik ofentsatu zaitudan, eta hartzen dut boondate fermu bat ez gehiago bekhatuik iteko zure graziakin batean; halaber hartzen dut boondatea ene bekhatu guziez osoki kobesatzeko eta emaiten zautan penitentziain konplitzeko. Halabiz.

Hamar manamenduak

Jinkoain legeko manamenduak dira hamar. Lehenbiziko hiruak Jinkoain ohoreai dohazkonak eta bertze zazpiak protsimo lagunain prootxuai.

Lehenbizikoa. Jinkoa maithatzea gauza guzien gainetik. Bigarrena. Haen izenaz juramentu ez eitea banoki.



Hirugarrena. Igandeak eta bestak santifikatzea.
 Laugarrena. Aita eta ama ohoratzea.
 Bosgarrena. Nihor ez hiltzea.
 Seigarrena. Pallardizaik ez itea.
 Zazpigarrena. Ez ebastea.
 Zortzigarrena. Lekhukotasun faltsurik ez itea ez eta gezurrik eraitea.
 Bederatzigarrena. Bertzeen esposik ez desiratzea.
 Hamargarrena. Bertzeen gauzaik ez gaizki desiratzea.

Manamendu berak Frantziako gisan

1. Jinko bat adora zazu,
Halaber maitha osoki.
2. Juramentuik zuk ez tuzu
Ez zinik einen faltsuki.
3. Igandeak beira zatzu
Jauna ere zerbitza deboki.
4. Aita eta Ama ohora zatzu
Bizi zaitezin luzeki.
5. Nihor obraz hilen ez tuzu
Ez boondatez gaixtoki.
6. Pallardizaik inen ez tuzu
Obraz ez gogoz likhiski.
7. Bertzeena ebatsiko ez tuzu
Ez atxikiko injustuki.
8. Lekhukotasunik ez tuzu
Ez hitz errain faltsuki.
9. Bertzeen esposik ez tuzu
Desiratuko lizunki.
10. Gutiziaik izanen ez tuzu
Bertzeen onain gaizki.

Hamar manamendu hauk zerraten die bietan; Jinkoain zerbitzatzen eta maithatzea gauza guzien gainetik eta protsimo laguna gure buruak bezala. Halabiz.

Fedezko artikuluak

Fedezko artikuluak die hamalau.
 Lehenbiziko zazpiak Jinkotasunai dohazkonak, eta bertze zazpiak Jesu Kristo Jinko eta Gizon egiazkoain Gizontasun Sainduai.

Jinkotasunai dohaskonak die hauk

Lehenbizikoa. Sinhestea Jinko bakhar guziz botheretsuan:

Bigarrena. Sinhestea dela Aita.
 Hirugarrena. Sinhestea dela Semea.
 Laugarrena. Sinhestea dela Izpiritu Saindua.
 Bosgarrena. Sinhestea dela Kreatzailea.
 Seigarrena. Sinhestea dela Salbatzailea.
 Zazpigarrena. Sinhestea dela Lorifikatzailea.

Gizontasun sainduari dohazkonak die hauk:

Lehenbizikoa. Sinhestea Jesu Kristo, gure Jauna gizon bezala izan zela kontzebitua Izpiritu Sainduain obraz eta graziaz.

Bigarrena. Sinhestea sorthu zela Birjina Maria sainduain ganik, gel-ditzen zelaik hau Birjina erdi aintzinean, erditzean eta erdi ondoan.

Hirugarrena. Sinhestea errezibitu zituela heriotzea eta pasionea gu bekhatoreen salbatzea gatik.

Laugarrena. Sinhestea jautsi zela ifernuetaa, eta athera zituela hain ethortze sainduain beira zauden arimak.

Bosgarrena. Sinhestea piztu zela hilen artetik hirugarren egunean.

Seigarrena. Sinhestea igan zela zeruetaa dagola jarririk Jinko aita guziz botheretsuain aldean.

Zazpigarrena. Sinhestea ethorriko dela bizien eta hilen juiatzera, onei emaitako loria, zeren beiratu zituzten hain manamendu sainduak; eta gaixtoei sekulako pena, zeren etzituzten beiratu.

Giixtino-Dotrina

**Giixtino Dotrinain deklaazionea
galdeinez eta ihardetsiz**

GALDEITEN DUT. Giixtinoa zaa?

I HARDESTEN DUT. Ba, Jinkoain graziaz.



G. Noen ganik izan zinuen giixtinoain izen saindu hoi?
 I. Jesu Kristo gure Jaunain ganik.
 G. Zer erran nahi da giixtinoa?
 I. Kristoin gizona.
 G. Zer aitzen duzu Kristoin gizonaz?
 I. Jesu-Kristoin fedea duena bathaioan errezibituik, eta obligatua dena hain zerbitzu saindura.
 G. Zein da giixtinoain seinalea?
 I. Khuutze saindua.
 G. Zergatik?
 I. Zeren baita Kristo khuutzeфикatuan itxura zeintan erosi baikin-tuen.
 G. Zenbat gisetaa Giixtinoak iten du seinale hoi?
 I. Bietaa, Jauna.
 G. Zein dire?
 I. Zeinatzea eta.
 G. Zer da zeinatzea?
 I. Eskuineko eskuko erhi handiaz hiru khuutze itea, lehenbizikoa kopetan, bigarrena ahoan, hirugarrena bulharretan, mintzatzen gaelaik gure Jinko Jaunaikin.
 G. Erakutsazu nola.
 I. Khuutze sainduain seinalearen gatik gure etsaietaik libra gaitzatzu gure Jauna eta Jinkoa.
 G. Zertako zeinatzen zaa kopetan?
 I. Jinkoak libra gaitzan pentsamendu gaixtoetaik.
 G. Zertako ahoan?
 I. Jinkoak libra gaitzan hitz gaixtoetaik.
 G. Zertako bulharretan?
 I. Jinkoak libra gaitzan obra eta desio gaixtoetaik.
 G. Zer da zeinatzea?
 I. Eskuineko eskuko bi erhiz khuutze bat itea, kopetatik bulharretaino, ezkerreko soinetik eskunekoraino, mintzatzen gaelaik Trinitate guziz sainduaikin.
 G. Erakuts nola?
 I. Aitain eta Semeain eta Izpiitu Sainduain izenean. Halabiz.
 G. Noiz ein behauzu khuutzeain seinale hoi?
 I. Zerbeit obra on eiten hasten gaelaik, edo aurkhitzen gaenean behar, tentamendu edo peiletan, partikulaski ohetik jaikitzean, etxetik atheatzean, Elizan sartzean edo lokhartzerakoan.

G. Zertako hainbertze aldiz?
 I. Zeren lekhu eta denbora guzietan gure etsaiek atakutzen eta persegitzen baikaituzte.
 G. Zer etsai dire hoik?
 I. Mundua, debrua eta haragia.
 G. Beraz khuutzeak badu berthutea etsai hoiien kontra?
 I. Ba-Jauna.
 G. Nondik du berthute hoi?
 I. Jesu Kristok khurutzean garaitu zituelakotz.
 G. Adoratzen duzulaik khuutzea nola erraiten duzu?
 I. Adoratzen zaitugu, Kristo, eta benedikatzten zeren zure Khuutze Sainduaz erosi duzun mundua.

Giixtino Dotrinain xehetasuna

Ikusi dugu Giixtinoa zaela Giixtinoain izen eta seinaleaz; errazu orai:
 G. Zenbat gauzen jakitera obligatua da giixtinoa heltzen delaik adimendura?
 I. Lau gauza.
 G. Zein die?
 I. Jakitea zer behar duen sinhetsi, zer galdein, zer obratu eta zer errezibitu.
 G. Nola jakinen du zer behar duen sinhetsi?
 I. Jakinez Kredoa edo fedezko artikuluak.
 G. Nola jakinen du zer behar duen galdein?
 I. Jakinez Jinkoain Legeko manamenduak, Eliza Ama Sainduarenak eta obra miserikordiazkoak.
 G. Nola jakinen du zer behar duen errezibitu?
 I. Jakinez Eliza Ama Sainduain sakramenduak.

Dotrinain lehenbiziko partea

zeintan erakusten baitie Kredoa eta fedezko artikuluak

G. Errazu: Nork erran zuen Kredoa?
 I. Apostoluek, Jauna.
 G. Zertako?
 I. fede sainduan gu argitzeko.
 G. Eta zuk zertako erraiten duzu?



- I. Giixtinoek duun fede hunen aithortzeko.
 G. Zer da fedea?
 I. Ikusi ez duuna sinhestea.
 G. Ikusi zinuen zuk Jesu Kristo sortzen?
 I. Ez, jauna.
 G. Ikusi zinuen hiltzen edo zeruetat igaiten?
 I. Ez, Jauna.
 G. Sinhesten duzu?
 I. Ba-Jauna, sinhesten dut.
 G. Zergatik?
 I. Zeen Jinkoak hortaz argitu baitu Eliza Ama Saindua eta hunek hala erakusten guri.
 G. Zer gauza dire Giixtino zaen bezala dauzkatzunak eta sinhesten ditutzunak?
 I. Erromako Eliza Ama Sainduak dauzkanak eta sinhesten dituenak.
 G. Zer gauza dire zuk eta hark dauzkatzuenak eta sinhesten ditutzuenak?
 I. Fedezko artikulua printzipalki, Kredoan dauden bezala.
 G. Zer gauza die fedezko artikulua?
 I. Die fedein mixterioik printzipalenak.
 G. Zertako die fedezko artikulua?
 I. Ezagutzeko Jinko gure Jauna eta Jesu-Kristo gure Erredentorea.
 G. Nor da Jinkoa?
 I. Hura da gauzaik hobeena eta miragarriena, erran eta pentsa ez dai-tekeena; Jaun bat guziz ona, botheretsua, jakintsuna, justua, gauza guzien hastapena eta akhabantza.
 G. Nor da Trinitate Saindua?
 I. Hura da Jinko bera, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, hiru presu-na distingoak, eta egiazko Jinko bat bakharra.
 G. Aita Jinko da?
 I. Ba-Jauna.
 G. Semea Jinko da?
 I. Ba Jauna.
 G. Izpiritu Saindua Jinko da?
 I. Ba-Jauna.
 G. Hiru Jinko dire?
 I. Ez Jauna, Jinko egiazko bakhar bat baizik.
 G. Aita Semea da?
 I. Ez Jauna.

- G. Izpiritu Saindua da Aita edo Semea?
 I. Ez Jauna.
 G. Zergatik?
 I. Zeren presunak distingoak baitie, egiazko Jinko bakhar bat izana-gatik ere.
 G. Nola da Jinkoa guziz botheretsua?
 I. Zeen bere bothereaikin eiten duen nahi duen guzia.
 G. Nola da Kreatzailea?
 I. Zeren ez deusetaik in zituen gauza guziak.
 G. Nola da Salbatzailea?
 I. Zeen emaiten baitu grazia eta barkhatzen bekhatuak.
 G. Nola da Lorifikatzailea?
 I. Zeen emaiten baitu loria irauten duenari haren grazian.
 G. Jinkoak badu guk bezala gorphutz itxuraik?
 I. Jinko bezala ez, zeen baita Izpiritu hura, baina bai gizon bezala.
 G. Trinitateko presunetaik zein intzen gizon?
 I. Bigarrena, zeina baita Semea.
 G. Aita intzen gizon?
 I. Ez, Jauna.
 G. Izpiitu Saindua eintzen gizon?
 I. Ez, Jauna.
 G. Zein bada?
 I. Bakharrik Semea, zeina gizon einik deitzen beita Jesu-Kristo.
 G. Beraz hau, nor da Jesu Kristo?
 I. Hau da Jinko biziain Semea, guri bizitzen erakustea gatik eta gure erospenain eiteko gizon eintzena.
 G. Zer erran nahi du Jesusek?
 I. Salbatzailea.
 G. Zertaik salbatu gintuen?
 I. Gure bekhatutik eta debruain esklabotasunetik.
 G. Zer erran nahi du Kristok?
 I. Gantzutua.
 G. Zertaz izan da gantzutua?
 I. Izpiitu Sainduain dohainez eta graziez.
 G. Jesu Kristo gure Jauna nola izan-tzen kontzebitua eta sorthu zen Ama Birjinaen ganik?
 I. Jinkoain obra surnatural eta mirakuluzkoaz.
 G. Nola izan-tzen obra mirakuluzko hura?



I. Izpiritu Sainduak Ama Birjinain errainetan odolik garbienaz formatu zuen gorphutz bat, ezdeusetaik kreatu zuen arima-at; arima eta gorphutz hura elkharrekin baturik juntatu ziren Trinitateko bigarren presunari, eta orduarteo Jinko baizik etzena gelditu zen Jinko et (sic) Gizon einik.

G. Kristoin Ama bethi bizi izan-t-zen Brijina?

I. Ba-Jauna, bethi Brijina.

G. Zergatik hil nahi izan zuen khuutzean?

I. Bekhatutik eta heriotzetik gure libratzea gatik.

G. Zer aitzeuzu Jesu Kristo hil ondoan jautsi zen ifernuaz?

I. Ez dut aitzen kondenatuak dauden lekhu hura, baizik Justuak zauden Linboa, zeina deitzen baita Abrahamen galtzarra.

G. Nola jautsi zen?

I. Arima baturik Jinkotasunari.

G. Eta hain gorphutza nola gelditu zen?

I. Batuik Jinkotasun beraikin.

G. Nola piztu zen hirugarren egunean?

I. Hain Gorphutza eta Arima loriaz betheak juntatzen zirelaik elkharrekin, gehiau ez hiltzeko.

G. Nola igan-t-zen zeruetaat?

I. Bere berthutez.

G. Zer erran nahi du «han jarriik daola Aita Erternalain eskuineko aldean?».

I. Jinko bezala Aitak bezenbat loria baduela, eta Gizon bezala bertze gizon guziek baino gutiago.

G. Noiz ethorriko da bizien eta hilen juiatzerat?

I. Munduain akhabantzan.

G. Eta orduan behar dute hil guziek berriz piztu?

I. Ba-Jauna, izan zituzten gorphutz eta arima berekin.

G. Zer sinhesten duzu erraiten duzunean «Sinhesten dut Sainduen kominionean?».

I. Giixtino fidel guziek dutela parte bertzeen ontasun izpiitualetan, gorphutz baten menbruak dien bezala, hura baita Eliza.

G. Zer da Eliza?

I. Hura da Giixtino fidel guzien junta, zeinen burua baita Erromako Aita Saindua.

G. Nor da Aita Saindua?

I. Hura da Erromako Apez Nausia, zeini guziak baikaa obligatuak obeditzera.

G. Kredoaz eta artikuluez bertzalde sinhesten duzu bertze zenbeit gauza?

I. Ba-Jauna Iskritura Sainduan daon guzia eta Jinkoak bere Elizai erakutsi dion guzia.

G. Zer gauza die hoik?

I. Hoi ez niri galda, iñoranta naizelako Eliza Ama Sainduak baitu dotorrak jakinen dutenak ihardesten.

M. Ongi diozu, dotorrei zaiotela, eta ez zuri kontu emaita fedezko gauza guziez. Aski da zuretzat fedezko artikuluen emaita Kredoan dauden bezala.

Dotrinain bigarren partea zeintan erakusten baitie zer behar den galdein, eta Eliza Ama Sainduain othoitzak

Ikusi duu nola dakizun zer behar duzun sinhetsi, hura baita lehenbiziko gauza; goazin bigarrenera, zeina baita jakitea zer behar den galdein.

G. Errazu, nork erran zuen Gure Aita?

I. Jesu-Kristok, Jauna.

G. Zertako?

I. Guri othoitz iten erakusteko.

G. Zer da othoitz?

I. Hura da Jinkoai bihotza altxatzea eta fagoreak galdatzea.

G. Gure Aita erraiten noekin mintzo zaa?

I. Gure Jinko Jaunaikin.

G. Non da gure Jinko Jauna?

I. Lekhu guzietan: partikulaski zeruan eta aldareko sakramendu sainduan.

G. Zein da othoitzetan hobeena?

I. Gure Aita, Jauna.

G. Zergatik?

I. Zeren Jesu-Kristok berak erran baitzuen bere ahoz, Apostoluek galdetuik.

G. Zergatik gehiau?

I. Zeen baititu zazpi galde mota karitateain gaineen asentatuak.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa erabil bedi sainduki zure izena.



G. Zer galdeiten duzu galde mota hortan?
 I. Jinkoain izena izan dadiela ezagutua eta ohoratua mundu guzian.
 G. Zein da bigarrena?
 I. Ethor bedi zure erresuma.
 G. Zer galdeiten duzu galde hortan?
 I. Jinkoa erregina dadiela hemen lurrian gure arimetan graziaz, eta gero eman dezagula bere loria.
 G. Zein da hirugarrena?
 I. Ein bedi zure boondatea zeruan bezala lurrian ere.
 G. Zer galdeiten duzu galde hortan?
 I. Jinkoain boondatea ein dezaüla, lurrian gaudenek zeruan doha-tsuek iten duten bezala.
 G. Zein da laugarrena?
 I. Iguzu egun gure eguneko ogia.
 G. Zer galdeiteuzu galde hortan?
 I. Eman detagula Jinkoak gorputzeko komeni den mantenua, arima-ko grazia izpiitualak eta sakramenduak.
 G. Zein da bosgarrena?
 I. Barkha diezagutzu gure zorrak guk gure ganat zordun dienei bark-hatzen dieztegun bezala.
 G. Zer galdeiten duzu galde hortan?
 I. Jinkoak barkha detzagula geurren bekhatuak, halanola guk bark-hatzen baitituu gure gaizki-eilei.
 G. Zein da seigarrena?
 I. Ez gaitzatzula utz tentamendutan erortzera.
 G. Zer galdeiten duzu galde hortan?
 I. Jinkoak ez gaitzala utz erortzeat ez eta ere konsentitzeat debruak bekhatuan erorraaztea gatik ekhartzen dauzkun pentsamendu eta tenta-zione gaixtoetan.
 G. Zein da zazpigarrena?
 I. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik.
 G. Zer galdeiten duzu galde hortan?
 I. Jinkoak libra gaitzala arimako eta gorputzeko lanjer eta gaitz-guzietaik.
 G. Zertako erraiten duzu lehenik: «Gure Aita, zeruetan zaudena».
 I. Jinkoai bihotzain altxatzeko, eta galdeiteko umilitatea eta konfien-tziakin.
 G. Zer erran nahi da Amen azkenean erraten duzun hitz hura.
 I. Hala izan dadiela.

G. Zer othoitz eiten diozu printzipalki Ama Birjinari?
 I. Agur, Maria, eta Salbe.
 G. Nork erran zuen Agur Maria?
 I. Aingeru San Grabielek ethorri zenean Ama Birjinain salutatzeraz.
 G. Nork erran zuen Salbe?
 I. Eliza Ama Sainduak du errezibitua.
 G. Zertako?
 I. Ama Birjinai fagoreen galdetzeko.
 G. Agur Maria edo Salbe erraiten duzunean noekin mintzo zaa?
 I. Birjina Maria sainduaikin.
 G. Nor da Birjina Maria Saindua?
 I. Hura da Andre bat bethutez (sic) bethea, Jinkoan Ama dena eta daona zeruan.
 G. Eta aldarean daona nor da?
 I. Hura da zeruan dagonaen itxura eta imajina.
 G. Zertako dago aldarean?
 I. Hura ikustiaikin orhoit gaitezin zeruan daonaz, eta haren itxura eta iduria delakotz ekhar diotzogun gure errespetuak.
 M. Bada hau bera in behar duzu bertze sainduen imajinei eta erlakiei ee.
 G. In behar dugu othoitz aingeruei eta sainduei?
 I. Ba-Jauna, gure aartekoei bezala.
 G. Zer gauza die aingeruak?
 I. Die Izpiitu dohatsu batzu Jinkoaz zeruan gozatzen daudenak.
 G. Zertako Jinkoak kreatu zituen?
 I. Eternitate guzian laudatzeko eta benedikatzeko.
 G. Zertako gehiau?
 I. Hain ministro bezala goberna dezaten Eliza, eta gizonak zain.
 G. Beraz, bauzu zuk aingeru beiralea?
 I. Ba-Jauna, eta bakotxak badu berea.
 M. Bada, debozione handia izan diozazu eta hari gomenda zaite egun oroz.

Dotrinain hirugarren partea zeintan erakusten baita zer behar den obratu

Ikusi dugu zer behar duzun sinhetsi eta galdein; ikus dezaun orai zer behar duzun obratu.



- G. Errazu: zein da Jinkoain lehenbiziko manamendua?
- I. Jinko bat adora zazu halaber maitha osoki.
- G. Nork maithatzen du Jinkoa osoki?
- I. Hain manamenduak beiratzten dituenak.
- G. Zer da Jinkoain maithatzea osoki?
- I. Nahiau izaita gauza guziak galdu ezenetz Jinkoa ofentsatu.
- G. Zertaat gehiago obligatzen gaitu manamendu horrek?
- I. Haen baxharrik adoratzet gorputzeko eta arimako errespetu handienaz, sinhetsiz eta esperantza hartuz haen baithan fede biziain.
- G. Nork bekhatu iten du manamendu hunen kontra?
- I. Sinhesten edo arotatzen dituenak idolak edo Jinko faltsuak.
- G. Nork gehiao?
- I. Supertizione edo sorginkerietan sinheste hartzen duenak eta hetaz baliatzen.
- G. Zein da bigarrena?
- I. Juramentuik zuk ez duzu ez zinik einen banoki.
- G. Nork eiten du juramentu banoki?
- I. Juramentu eiten duenak egiaik, justiziaik eta beharrik gabe.
- G. Eta bekhatu da kreaturain gatik juramentu itea banoki?
- I. Ba-Jauna, zeen hetan iten baitzaio juramentu Kreatzaileai.
- G. Zer erremedio da juramentu banoik ez eiteko?
- I. Kostumatzea erraitera ez, edo ba, Jesu-Kristok erakusten daukun bezala.
- G. Zein da hirugarrena?
- I. Igandeak beira zatzu, Jauna ere zerbitza deboki.
- G. Nork beiratzten ditu igandeak eta bestak?
- I. Meza osoa entzuten duenak eta beharrik gabe lanean haitzen ez denak.
- G. Zein da laugarrena?
- I. Aita eta ama ohora zatzu bizi zaitezin luzeki.
- G. Nork ohoratzen ditu Aita eta Ama?
- I. Obeditzen, sokorritzen eta errespetatzen dituenak.
- G. Nor bertzei aitzen duzu Aitain eta Amain izenean?
- I. Nausiao dienak adinean, dinitatean eta gobernuan.
- G. Zein da bosgarrena?
- I. Nihor obraz hilen ez duzu ez boondatez gaixtoki.
- G. Zer manatzen da manamendu huntan?
- I. Nihori gaizkiik ez itea ez hiltzez, ez obraz ez etare desirez.
- G. Zein da seigarrena?

- I. Pallardiza einen ez duzu obraz ez gogoz likhiski.
- G. Zer manatzen da manamendu huntan?
- I. Izan gaitezila garbiak hitzez, obraz eta pentsamenduz.
- G. Zein da zazpigarrena?
- I. Bertzeena ebatsiko ez duzu ez atxikiko injustuki.
- G. Zer manatzen da manamendu huntan?
- I. Ez khentzea, ez idukitzea, ez etare nahi izaita bertzeen gauzaik jabearen boondateain kontra.
- G. Zein da zortzigarrena?
- I. Lekhukotasunik ez duzu ez hitz errain faltsuki.
- G. Zer manatzen da manamendu huntan?
- I. Ez arinki protsimo lagunaz juiatzea; ez erraita ez etare aitzea haren faltak.
- G. Nork bekhatu eiten du manamendu hunen kontra?
- I. Arrazoinik gabe juiamendu gaixtoak iten dituenak, fama khentzen, sekretua agertzen eta gezurra erraiten.
- G. Zer debekatzen da bederatzigarren eta hamargarren manamenduetan?
- I. Haragizko plazer eta bertzeen ontasunen gutizia gaixtoak.

Eliza Ama Sainduain manamenduak bortz die

- Lehenbizikoa: Igande eta bestetan meza osoa entzutea.
- Bigarrena: Urthean behin bedeen kobesatzea, edo lehenao heriotzeko lanjerik uste badu, edo kominiatu behar badu.
- Hirugarrena: Bazko gaizumetan kominiatzea.
- Laugarrena: Eliza Ama Sainduak manatzen duenean barur itea.
- Bosgarrena: Detxumak.

Manamendu berak Frantziako gisan

1. Meza Saindua entzun zazu Besta igandetean deboki.
2. Bekhatuak kobesa zatzu Urthean behin osoki.
3. Gorputz Saindua errezibi zazu Bazkoz bedeen umilki.
4. Gartha bixiliak barur zatzu Gaizuma ere osoki.
5. Detxumak eta... paga zatzu Elizari xuxenki.



- G. Zertako die manamendu hauk?
I. Jinkoain legekoen hobeki beiratzeko.

**Miserikordiazko obrak die hamalau
Zazpi izpiitualak, edo arimai dohazkonak; eta
bertze zazpi korporalak, edo gorputzai dohazkonak**

Zazpi izpiitualak, edo arimai dohazkonak die hauk:

Lehenbizikoa: eztakienai erakustea.

Bigarrena: Behar duenai kontseilu ona ematea.

Hirugarrena: Gaizki dabilanain korreitzea.

Laugarrena: Afrontuen barkhatzea.

Bosgarrena: Tristeen kontsolatzea.

Seigarrena: Protsimo lagunain faltak eta flakeziak pazientziaikin
sofritzea.

Zazpigarrena: Hilez eta biziez Jinkoai othoitz itea.

Zazpi korporalak, edo gorputzai dohazkonak die hauk:

Lehenbizikoa: Eriak bisitatzea.

Bigarrena: Gose denai jateat ematea.

Hirugarrena: Egarri denai edateat ematea.

Laugarrena: Esklaboak gibelat erostea.

Bosgarrena: Biluziak beztitzea.

Seigarrena: Pobre eta pelegrinei ostatu ematea.

Zazpigarrena: Hilen ehorztea.

G. Zergatik deitzen die obra miserikordiazkoak?

I. Zeen ezpaitie zor justiziaz.

G. Noiz obligatuko-ute bekhatuain azpian?

I. Gizon jakintsunek behar handia dela juiatze-utenean.

**Dotrinain laugarren partea
zeintan erakutzen baitie
errezibitu behar dien sakramenduak**

Ikusi duu zer behar duzun sinhetsi, galdein eta obratu, ikus dezaun
orai zer behar duzun errezibitu.

G. Erran zatzu sakramenduak.

I. Eliz-amain sakramenduak die zazpi. Lehenbiziko bortzak dire
beharrezkoak, obraz edo desirez errezibitu behar dienak, zeinak gabe ez

baititake salba gizona uzten baitu mesprezios; bertze biak boondatezko-
ak die.

Lehenbizikoa: Bathaioa.

Bigarrena: Konfirmazionea.

Hirugarrena: Penitentzia.

Laugarrena: Kominionea.

Bosgarrena: Anontzioa.

Seigarrena: Ordena.

Zazpigarrena: Ezkontza.

G. Zer die sakramenduak?

I. Hek die seinale ageri batzu Jesukristo gure Jaunak establituak,
hetaz guri emateko bere grazia eta berthuteak.

G. Zer da grazia?

I. Izaite dibino-at iten duena gizona Jinkoain seme eta zeruko
premu.

G. Zer berthute emaiten dituzte sakramenduek graziain batean?

I. Printzipalki hiru teologalak eta dibinoak.

G. Zein die?

I. Fedea, Esperantza eta Karitatea.

G. Zer da Fedea?

I. Ikusi eztuunain sinhestea, Jinkoak hala erakutsi duelakotz.

G. Nork bekhatu iten du Fedean kontra?

I. Gure erlixioneko egia guziak sinhesten eztituenak, edo dudatzen
dituenak; edo bere faltaz ikhasten eztituenak.

G. Zer da Esperantza?

I. Esperantzatzea Zeruko loria Jinkoain graziain eta gure obra onen
medioz.

G. Nork bekhatu eiten du Esperantzain kontra?

I. Jinkoain baithan esperantza galtzen duenak, zeruain iraazteat
entseiatzen eztenak, eta Jinkoa miserikordiosa delakotz bekhatu iten due-
nak.

G. Zer da kaïtatea?

I. Jinkoain maithatzea gauza guzien gainetik, eta protsimo laguna
gure burua bezala hari einez hark guri eitea nahi ginukeena.

G. Zertako da bathaioko sakramendua?

I. Bekhatu orisinalain khentzeko edo bertze edozein bekhatu aurk-
hitzen dien bathaiatzen denain baithan.

G. Zer da bekhatu orisinala?



I. Hura da gure aita Adam eta gure Ama Ebain ganik dathorkigun bekhatu bat.

G. Nornahik bathaia dezake behar-orduan?

I. Ba-Jauna.

G. Zer in behar da ontsa bathaiatzeko?

I. Ur naturala ixuri behar du bathaiatua izan behar duenain buruain gainera, erraiten delaik denbora berean: Nik bathaiatzen zaitut: Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.

G. Zertako da konfirmazioneko sakramendua?

I. Hura da hazkartzeko eta borthizteko bathaioan errezibitu ginuen fedean.

G. Zertako da penitentziako sakramendua?

I. Bathaiatuz geroztik ein bekhatuen barkhatzeko.

G. Zer bekhatu die hoik?

I. Die mortalak edo benialak.

G. Zer da bekhatu mortala?

I. Hura da erraitea, eitea, pentsatzea, edo desiratzea Jinkoain legeain kontra gauza handitan.

G. Zergatik deitzen da mortala?

I. Zeen hiltzen baitu eiten duenaen arima.

G. Zer parte ditu Penitentziako sakramenduak bekhatu mortalain khentzeko?

I. Hiru, Jauna.

G. Zein die?

I. Bihotzeko dolorea, ahozko kobesia eta obrazko satisfazionea.

G. Bekhatu mortalean erortzen den aldi guzietz behar othe da kobe-satu berehala bekhatua barkhatzekotz?

I. On litake, bainan ez da nesario.

G. Zer ein behar da beraz?

I. Izan behar da bere bekhatuaz egiazki urriki bat hobeki bizitzeko deliberazioneaikin kobesatzeko Elis-Ama Sainduak manatzen duen denboran.

G. Zer da bekhatu beniala?

I. Hura da erraitea, itea, pentsatzea, edo desiratzea Jinkoain legeain kontra gauza ttipian.

G. Zergatik deitzen da beniala?

I. Zeen hartan gizona aise erortzen baita eta aise barkhatzen baitzaio.

G. Zenbat gauzaz barkhatzen zaio?

I. Bedeatziz, Jauna.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: Meza entzuteaz.

Bigarrena: Kominiatzeaz.

Hirugarrena: Ni bekhatorea erraiteaz.

Laugarrena: Aphezpikuain benedizioneaz.

Bosgarrena: Ur benedikatuaz.

Seigarrena: Ogi benedikatuaz.

Zazpigarrena: Gure Aita erraiteaz.

Zortzigarrena: Prediku aitziaz.

Bederatzigarrena: Bulharrak joz Jinkoai barkhamendu galdeiteaz.

G. Zertako da kominioneko sakramendua?

I. Errezibitzen delaik dinoki, izan dain gure arimen hazgarri eta emenda dezan grazia.

G. Zer errezibitzen duzu kominioneko sakramendu sainduan?

I. Jesu-Kristo, Jinko eta gizon egiazkoa, aldareko sakramendu sainduan errealki daona.

G. Zertako da Anontzioko sakramendua?

I. Hiru gauzetako.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: Bekhatuain tatxa eta khutsuen khentzeko.

Bigarrena: Arimai indar emaitako etsaia tentazionen kontra.

Hirugarrena: Gorputzai osasuna emaitako komeni bazaio.

G. Zertako da Ordenako sakramendua?

I. Ordenatzeko eta kontsekratzeko Elizako ministroak, nola baitie aphezak, diakreak eta sudiakreak.

G. Zertako da ezkontzako sakramendua?

I. Ezkontzeko eta ezkondui emaitako bizi daiteziz elkarrekin bakean eta umeak haz detzaten zeruko.

Bekhatu kapitalak zazpi die

Lehenbizikoa: Urgulua.

Bigarrena: Abarizioa.

Hirugarrena: Lohikeria.

Laugarrena: Kolera.

Bosgarrena: Gormandiza.

Seigarrena: Inbidia.

Zazpigarrena: Alferkeria.



G. Zertako deitzen ditutzu kapitalak, gahienean mortalak deitzen dien zazpiak?

I. Deitzen die kapitalak, zeen diren hoitaik sortzen diren bizioen buruak, ithurriak eta erroak bezala; ez dohakote ongi mortalak deitzea, zeen hainitz aldiz ezpaitie benialak baizik.

G. Noiz die mortalak?

I. Dienean Jinkoain eta protsimo lagunain kaïtateain kontra.

G. Noiz die kaïtateain kontra?

I. Hoitaz hausten denean Jinkoain edo Elizain manamendu bat gauza handian.

G. Zer da urgulua?

I. Bertzeak baino gehiau izaiteko amodio desordenatu bat.

G. Zer da abarizioa?

I. Onthasunetako amodio desordenatu bat.

G. Zer da lohikeria?

I. Desoneskerietako plazer zikhinen amodio desordenatu bat.

G. Zer da kolera?

I. Mendekatzeko amodio desordenatu bat.

G. Zer da gormandiza?

I. Jateko eta edateko amodio desordenatu bat.

G. Zer da inbidia?

I. Bertzeen onaz izaiten den damua.

G. Zer da alferkeria?

I. Obra on iteko gutizia eskasa.

Zazpi bizio hoien kontra badie zazpi Berthute

Urguluain kontra, Umiltasuna.

Abarizioain kontra, Jenerostasuna.

Lohikeriain kontra, Garbitasuna.

Kolerain kontra, Pazientzia.

Gormandizain kontra, Jan edanetako xuhurtasuna.

Inbidiaian kontra, Karitatea.

Alferkeriain kontra, Lanain amodioa.

Arimain etsaiak, zeinetarik ihes in behar baituu, badie hiru

Lehenbizikoa: Mundua.

Bigarrena: Debrua.

Hirugarrena: Haragia.

G. Nola ihes eiten da munduain ganik?

I. Mespreziatuz hain handitasun eta banitateak.

G. Nola ihes eiten da debruain ganik?

I. Othoitaz eta umiltasunaz.

G. Nola ihes iten da haragiain ganik?

I. Barur einez eta gorputza mortifikatuz: hau da etsaiik handiena, zeren haragia ez baitezaken aparta geurren ganik, bainan bai mundua eta Debrua.

Berthute teologalak hiru die

Lehenbizikoa: Fedea.

Bigarrena: Esperantza.

Hirugarrena: Karitatea.

Berthute kardinalak edo moralak die lau

Lehenbizikoa: Prudentzia.

Bigarrena: Justizia.

Hirugarrena: Haskartasuna.

Laugarrena: Zuhurtzia jan edanetakoa.

Gorputzeko sentsuak bortz die

Lehenbizikoa: Begiez ikustea.

Bigarrena: Beharriez aitzea.

Hirugarrena: Ahoz jastatzea.

Laugarrena: Sudurrez usaindatzea.

Bosgarrena: Eskuz hunkitzea.

G. Zertako Jinkoak eman dauzku sentsuak eta bertze gainerako menbroak?

I. Orotaz zerbitza dezaun gauza guzietan.

Arimako ahalak hiru die

Lehenbiziko: Memoria.

Bigarrena: Adimendua.

Hirugarrena: Boondatea.

G. Zertako Jinkoak eman zaukun memoria?

I. Orhoitzeko hartaz eta hain fagorez.

G. Zertako adimendua?

I. Jinkoain ezagutzeko eta pentsatzeko haen baithan.

G. Zertako boondatea?



I. Maithatzeko Jinkoa gauza guzien gainetik, eta protsimo laguna hain amorea katik.

Izpiitu Sainduain dohainak die zazpi

Lehenbizikoa: Jakintasunain dohaina.

Bigarrena: Adimenduain dohaina.

Hirugarrena: Kontseiluain dohaina.

Laugarrena: Ezagutzain dohaina.

Bosgarrena: Hazkartasunain dohaina.

Seigarrena: Pietateain dohaina.

Zazpigarrena: Jinkoain beldurtasunain dohaina.

Izpiitu Sainduain fruituak die hamabi

Lehenbizikoa: Kaitatea.

Bigarrena: Bakea.

Hirugarrena: Bihotzeko handitasuna.

Laugarrena: Urrikaritasuna.

Bosgarrena: Fedea.

Seigarrena: Sentsuen begirapen eta beirakortasuna.

Zazpigarrena: Gozo izpiituala.

Zortzigarrena: Pazientzia.

Bedeatzigarrena: Ontasuna.

Hamargarrena: Beraztasuna.

Hamekagarrena: Modestia.

Hamabigarrena: Garbitasuna.

Dohatsutasunak die zortzi

1. Dohatsu die izpiituz pobre dienak, zein heientzat baita zeruetako erresuma.

2. Dohatsu die eztiak, zein hek lurreko premu izanen baitie.

3. Dohatsu die nigar ite-utenak, zein hek kontsolatuak izanen baitie.

4. Dohatsu die justiziaz gose eta egarri dienak, zein hek aseko baitie.

5. Dohatsu die miseriak, zein miseriak eina izain baitaiote.

6. Dohatsu die bihotzez garbi dienak, zein heiek Jinkoa ikusiko baitute.

7. Dohatsu die bakea ekhartze-utenak, zein hek Jinkoain haur deitua izain baitie.

8. Dohatsu die justizian gatik pertsekutatuak dienak, zein heientzat baita zeruetako erresuma.

G. Zer erran dituu orai?

I. Zortzi dohatsutasunak edo zoriontasunak.

G. Zer gauza die hauk?

I. Izpiitu Sainduain dohain eta berthuteen obraik hobeena.

G. Nor die izpiituz pobre dienak?

I. Nahi ez tutenak ohoreik eta aberastasunik, ttipiak izana gatik ere.

G. Nor die eztiak?

I. Hasarretasunik ez tutenak ez etare kasik hain khexaduraik.

G. Nola die lurraen jabe?

I. Beren buruen nautsi bezala.

G. Nor die nigar eite utenak.

I. Gostuak uzten dituztenak, ttipiak izanak gatik ee.

G. Nor die justiziaz gose eta egarri dienak?

I. Obligazionez duten guzia arthakin eiten dutenak.

G. Nor die miseriak?

I. Pietatez betheak dienak arrotzekin ee.

G. Nor die bihotzez garbi dienak?

I. Beren pasionetan osoki mortifikatzen dienak.

G. Nor die bakea ekhartzen dutenak?

I. Beren eta bertzen artean bakea ezartzen dutenak.

G. Nor die justizian gatik pertsekutatuak dienak?

I. Gauza onetan sustengatzen dutenak, pertsekutatuak izanik ee.

G. Zertako deitzen die dohain hoik dohatsutasunak edo zoriontasunak?

I. Zein hoitan baitago bizitze huntako eta bertzeko esperantza.

Gizonain lau azken finak

G. Zein die gizonain lau azken finak?

I. Heriotzea, juiamendua, parabisua eta ifernua.

G. Zer da heriotzea?

I. Gorputzetik arimain berextea.

G. Zer da juiamendua?

I. Juiamendua da Jinkoain aintzinean presentatzea, egin den ongian sariain edo gaizkiain gatziguaren errezibitzeko.

G. Noat joanen da arima juiatua izan ondoan?

I. Joanen da bethikoz Parabisurat edo Ifernurat, edo denbora baten-tzat Purgatorioetaat gero Parabisuan sartzeko.



G. Eta gorputza zer inen da?

I. Gorputza geldituko da lurrean munduain akhabantzaino; bainan orduan juntatuko da lehenagoko arima beraikin hunen zorte berain izaiteko.

G. Zer da Parabisua?

I. Parabisua da Aingeruen eta Jinkoain grazian hil diren gizonentzat destinatu dohatsutasuneko lekhu bat.

G. Zer da ifernua?

I. Ifernua da Debruen eta bekhatu mortaleko estatuan hil dien gizonentzat destinatu dohakabetasunezko lekhu bat.

G. Zer da Purgatorioa?

I. Purgatorioa da graziazko estatuan hil dien arimak doazin lekhu bat, non mundu huntako partez emain baitute beren bekhatuez satisfazio-ne osoa.

G. Satisfazioneik eman dezakeu guk Purgatorioetan dauden arimen penen laburtzeko?

I. Ba-Jauna: Arima justu hoi en penak labur detzakeu, bai eta ere akhaba gure othoitzez, barurez, karitatez, induljenziez eta partikulaski mezako sakrifizio sailduaz.

Induljenziez

G. Zer da induljenzia?

I. Mundu huntan edo Purgatorioetan penitentziaz Jinkoai bekhatuen gatik eman behar zaion satisfazioneain barkhamendua.

G. Nola irazten da induljenzia?

I. Hunen irazteko manutzen dien gauzak einez graziazko estatuan.

G. Nola barkhatzen ditu Elizak bekhatuak zor zaizkon pena denborakoak?

I. Aplikatuz Elizain izenean Jesu Kristoin Pasionea eta sailduen meezimenduen sobrakinak.

Inkarnazioneko mixterioak

G. Zer da inkarnazioneko mixterioa?

I. Trinitate Sailduko bigarren presuna, zeina baita Jinkoain Semea, gizon eitea Maria Birjinain sabelean, Izpiritu Sailduain obrak eta berthutez, Andre hau gelditzen delaik Birjina erdi aintzinean, erditzean, eta erdi ondoan.

G. Zenbat naturaleza ditu Jesu-Kristok.

I. Baditu bi naturaleza: Jinkoaina eta gizonaina; baditu ere bi adimendu eta bi boondate; presuna bat, Jinko bezala; eta memoria bat gizon bezala; zeren ezpaita kausitzen Kristoin baithan gizonkizko presunaik, eta Jinko bezala gauza guziak baitauzka gogoan: Aita-at Jinko bezala, hura baita Aita eternala, eta Ama-at gizon bezala, hura baita Andreana Maria, eztuelaik Aitaik gizon bezala, ez amaik Jinko bezala.

G. Non da Kristo?

I. Jinko bezala lekhu eta gauza guzietan, eta gizon bezala bakharrik zeruan eta aldareko sakramendu sailduan.

G. Zein egunez kontzebitua izan da Jesu-Kristo Ama Birjinain sabelean?

I. Martxuain hoi-ta-bortzean; hil-t-zen Ortziale Sailduz; piztu zen bazko egunean; eta igorri zuen Izpiitu Saildua Apostoluei Mendekoste egunean.

Kobesioak

G. Zenbat gauza behar die kobesio on baten eiteko?

I. Bortz, Jauna.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: Kontzientziain etsaminatzea.

Bigarrena: Bekhatuez damu eta urriki perfet pat hartzea.

Hirugarrena: Gehiao bekhatuik ez iteko deliberazione fermu bat hartzea.

Laugarrena: Bekhatuak dien bezala kobesatzea.

Bosgarrena: Penitentziain konplitea.

G. Zer da kontzientziain etsaminatzea?

I. Azkeneko kobesioak geroztik egin bekhatuez orhoitzea.

G. Nondik etsaminatzen da kontzientzia?

I. Jinkoain legeko hamar manamenduetaik, Eliz-Ama sailduko bortzetaik; miseriakordiazko obretaik, bekhatu kapitaletaik, eta bakhotxak bere estatuko obligazionetaik.

G. Nola behar da etsaminatu kontzientzia?

I. Jinkoai graziaik galdein ondoan orhoitu behar da non eta noikin ibili den, eta zer okasionetan kausitu den; zer bekhatu egin duen manamendu bakhotxean eta bere estatuko obligazionetan.

G. Zenbat denbora behar da kontzientziain etsaminatzeko?

I. Ez ta denbora seinalatuik, bapederak hartu behar du aurkhitzen den zirkonstantzien arabera, hau delakotz eitekorik premiena.

G. Zer da doloreak?



- I. Hura da damu eta urriki naturalezaz gaineko bat, Jinkoa ofentsatu duelakoz.
- G. Zenbat gizetaat da dolorea?
- I. Bietaa, Jauna.
- G. Zein die?
- I. Kontrizionea eta atrizionea.
- G. Zer da kontrizionea?
- I. Hura da damu eta urriki naturalezaz gaineko bat Jinkoa ofentsatuik, zeren den guziz ona eta maithagarria, kobesatzeko et gehiau bekhatuik ez eiteko deliberazione fermu batekin.
- G. Zer da atrizionea?
- I. Hura da damu eta urriki naturalezaz gaineko bat Jinkoa ofentsatuik, bekhatuain itsusitasunaz, zeruain galtzeaz, edo ifernuain merezitzeaz, kobesatzeko eta gehiau bekhatuik ez iteko deliberazione fermu batekin.
- G. Zein da dolore hautaik hobeena?
- I. Kontrizionea, Jauna.
- G. Zertako?
- I. Zeren kontrizioneak kobesatu baino lehen barkhatzen baititu bekhatuak, bainan atrizioneak ez, kobesatu ondoraino.
- G. Zer da deliberazionea?
- I. Gehiau bekhatuik ez iteko xede fermu baten hartzea.
- G. Zer da kobesioa?
- I. Kobesioa da aphez kobosorrai erraitea bekhatu mortal guziak kontzientzian aurkitzen dien bezala batee utzi gabe.
- G. Nola behar die kobesatu bekhatuak?
- I. Behar die garbiki deklaratu pentsamenduz, hitzez eta obraz manamendu bakhotxean egin bekhatu mortal guziak, bai etare zironstantzia (sic), bekhatua handiago eiten edo khanbiatzen duten guziak.
- G. Kontzientzia etsaminatu faltaz behar bezala, ahalkez, beldurrez edo maleziaz uzten bada bekhatu mortal bat kobesatzeko, kobesioa ona izain da?
- I. Ez, Jauna: Leheneko bekhatuen gainera einen du sakrilio bat, eta gelditzen da obligatua kobesio berain errebertitzeat.
- G. Kobesioa ona izain da, bere nahiik gabe ahanzten bazaio deklaratzeko bekhatu mortal bat?
- I. Ba-Jauna, bainan orhoitzen delaik lehenbiziko kobesioan deklaratu behar du nola aintzinean ahantziik utzi zuen bekhatu hura.

G. Baldin bekhatu mortal bat kobesatzen badu dudazko gisan, eta gero orhoitzen bada segurki ein zuela, behar du berriz kobesatu bekhatu bera segur gisa?

- I. Ba-Jauna; zeen bekhatuak, orhoitzen denaz geroz, barkhatuak izaiteko kobesatu behar die segur gisa.
- G. Bekhatu benialak kobesatu behar dire?
- I. On litake, bainan ezta nesesario.
- G. Zer da satisfazionea?
- I. Aphez kobesorrak emaiten duen penitentziain konplitzea.
- G. Noiz behar da konplitu penitentzia?
- I. Seinalatzen bada denbora, denbora hartan berean; seinalatzen ezpada, ahal bezen laster.
- G. Zer bekhatu izanen da penitentziain ez konplitzea?
- I. Penitentzia handia bada eta uzten parte handi bat, izain da bekhatu mortala; Penitentzia ttipia bada, edo penitentzia handitik uzten parte ttipi bat, izain da bekhatu beniala.
- G. Noiz izain da penitentzia handia?
- I. Emaiten denean bekhatu mortalen gatik, edo bekhatu mortalen bidetik urruntzea gatik.
- M. Kobesio onain eiteko behar dien bortz gauzetaik bat bakharra falta bada, maleziaz, kobesio gaixtoa eta sakriliozkoa izain da, eta salbatzekotz obligatua da kobesio gaixto guzien errebertitzeat kobesio jeneal batean.
- G. Nola behar da kobesatu?
- I. Kobesorrain oinetaat baino lehen belhaunikatuik einen da khuutzeain seinalea, eta ahuspez jarriik errain: «Ni bekhatorea». Hau finitu ondoan eta heltzen delaik kobesorrain oinetaat, errain da: «Laudatua eta benedikatua izan bedi aldareko sakramendu saindua, edo, Aita, benedika nazazu zeen egin baitut bekhatu».
- G. Zer ein behar da gero?
- I. Erran ondoan berak zenbat denbora duen azken aldian kobesatuik, eta atsoluzionea izanik, deklaratu-tu bere bekhatu guziak umiltasun handienaikin.
- G. Zer erran behar da bekhatuak deklaratu ondoan?
- I. Bekhatuak ba-panazka deklaratu ondoan, errain da «Gisa berean akusatzen naz orai eta bethi Jinkoi egin bekhatu guziez eta galdeiten diot barkhamendua, eta zuri, ene Aita izpiituala, penitentzia eta atsoluzionea baldin komeni bazaut».



G. Baldin penitentak ezpadu bekhatu mortalik akusatzeke, zer ein behar du?

I. Lehenau ein bekhatu mortal kobesatuetaik bat akusatuko du; eta ezpadu, gutienik eiten duen bekhatu benial bat.

G. Zer ein behar da gero?

I. Umiltasun eta errespetuekin entzun ondoan kobesorraia abisuak, eta errebitu penitentzia, erraiten da ahuspekatuik bulharrak joz kontrizioezko ata.

G. Zer ein behar da kobesatu ondoan?

I. Naiz ibili gogoan kobesorraia abisuak; gehiao bekhatuik ez iteko deliberazionea berritu, penitentiak hitzeman bezala konplitu eta Jinkoai eskerrak bihurtu.

Kominioneaz

G. Zer da ostian?

I. Aphezak kontsekratzioneko hitzak erran arteo, ogia, Jauna. Aphezak kontsekratzioneko hitzak erran ondoan Jesu-Kristoin gorputz prezia-tua, hain egiazki eta errealki nola baita zeruan.

G. Zer da kalitzan?

I. Aphezak kontsekratzioneko hitzak erran arteo, arnoa ur xorta batekin; aphezak kontsekratzioneko hitzak erran ondoan, Jesu-Kristoin odol prezia-tua, hain egiazki eta errealki nola baita zeruan.

G. Ostia kontsekratuak bada Jesu-Kristoin gorputza bezala odola ee, eta kalitza kontsekratuak odola bezala gorputza ee?

I. Ba-Jauna, batean eta bertzean aurkitzen die Gorputza, Odola, Arima, Jinkotasuna eta hiru Presuna Dibinoak; halako moldetan non guziak kausitzen baitie ostian, eta guziak kalitzan.

G. Ogitik eta arnotik ezta deus gelditzen kontsekratzionean ondoan?

I. Ez; ezta gelditzen ogia eta arnoa itxurak edo baizik, zeinak baitie moldea, kolorea, usaina eta gostua.

G. Aphezak ogi eta arno kontsekratuak beexten dituenean, hausten da Jesu-Kristoin gorputza edo odola?

I. Ez. Jesu-Kristo aurkitzen da beexi den parte bakhotxean; eta hala ostia parte bat baizik ez-tuenak, errebitzen du Jesu-Kristo guzia nola eiten baitu ostia osoa eiten duenak.

Kominiatzeko disposizioez

G. Zenbat gauza behar die kominione on baten iteko?

I. Hiru, Jauna.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: jakitea zer behar duen errebitu.

Bigarrena: barur garbian joitea.

Hirugarrena: Graziazko estatuan egoitea.

G. Zer errebitzen du kominiatzen duenak?

I. Jesu-Kristo gure Jauna, Jinko eta gizon egiazkoa, Zeruan eta alda-reko sakramendu Sainduan daona.

G. Zer aitzen duzu barur garbian joiteaz?

I. Izan behar du gauherdiz geroz jan eta edan gabea, non ez-tuen kominiatu behar eri bezala.

G. Zer aitzen duzu graziazko estatuan egoiteaz?

I. Ez du izan behar bekhatu mortaleko estatuan, eta hortako kontzientzia ongi etsaminatu ondoan, estatu triste huntan aurkitzen badu bere burua, garbitu behar du kobesio on batez.

G. Bekhatu mortaleko estatuan kominiatzen dutenek errebitzen dute Jesu-Kristo?

I. Ba-Jauna, bainan beren buruen kondenazionetan, zeren eiten baitute sakriliozko bekhatu izigarri bat.

G. Nola hurbildu behar da kominiatzeat?

I. Onheski bezitua, umiltate, errespetu eta egiazko debozione batekin.

Kominioneko mementoaz

G. Zer erran behar da aphezak ostia saindua eskuan hartzen duenean?

I. «Jauna, ni ez naz dino zure errebitzeko, bainan errazu xoilki hitz bat, eta ene arima izain da sendatua eta salbatua».

G. Zenbat aldiz erran behar da?

I. Hiruetan, Jauna.

G. Eta gero zer erraiten da?

I. Jauna, zure esku dibinoetan gomendatzen dut ene arima.

G. Nola egon behar da kominiatzeko mementoan?

I. Belhaurikatuik eta begiak aphalduak, bainan itzuliak ostia sainduain ganat eta mihia azpiko ezpainain gainerat erdi atheatua.

G. Zer in behar da ostia saindua errebitu ondoan?

I. Aphezak eskua gibelatu duenean, ahoa hetsi behar da eta ostia saindua iretsi hezatu denean.



Kobesatzeko eta kominiatzeko othoitzak

Kobesio aintzineko othoitza

Jesu-Kristo, ene Jauna, ene salbamenduko esperantza bakharra, othoizten zaitut zure pasione eta heriotzeain gatik eman detzadatzun kontrizionea, eta auhenak ene bekhatuez nigar eiteko. Munduain salbatzailea, beha zozu bekhatore miserable huni, zure ama sainduain eta bertze saindu guzien merezimenduen gatik, igor dezadazun Jauna, zure argia, erakuts detzadan ene falta guziak eta lagun nezan zure zerbitzu saindura heltzen. Damu dut, Jauna, zu ofentsatuik, zeen zaren guziz ona eta osoki maithagarria. Damu dut hoin disposizione guti izanez ene falten kobesatzeko; damu dut ene bizi pasatuan egin bekhatuez, eta damu-ut ez damu gehiau izanez. Hitzemaiten dautzut, Jauna, osoki zure gana bihurtzea, eta ihes eitea bekhatuko okasione guzietatik; bada hala othoizten zaitut eman dezadazun grazia kobesio huntaik aintzina bizi nadin zure boondate sainduaikin, ez einez, ez erranez, ez pentsatuz zure loriako eta ene zorioneko denik baizik. Halabiz.

Kobesio ondoko othoitza

Jauna, zure Ama Sainduain eta bertze saindu guzien meezimenduen gatik dakizula agraable ene kobesio hau, eta faltatu izan zaizkidan gauza guziak barkha detzadala zure pietateak, eta haren arabera urrikal zaite zeruan ene atxikitzeiko atsolutua eta bortizteko ene xede onak iduk detzaan, bizi zaena eta erreginatzen Aitaikin eta Izpiitu Sainduaikin. Halabiz.

Kominione aintzineko othoitza

Oi Aita guziz botheretsua eta Kreatzaile Saindua, errespetu et umiltasunik handienaikin hurbiltzen naz aldare saindu hortaa, nahiz indino kausitzen naizen, zure Majestate adoragarriain errezibitzeko. Ene bihotzeko hostasuna da, Jaun soberanoa, indino eiten nauena behar den amodioaikin zure gana hurbiltzeko, bainan zure hitz eztiak die fidantziaikin hurbilaazten nautenak aingeruen janhari saindu hartan partalier izaitera. Zure boondatea denaz geroz, Jesus ezti, desiratzen dut zure gorputz dibinoain errezibitzea, Birjina zure Ama sainduak eta bertze zeruko sainduek errezibitu zintuzten fede bizi, izpiitu garbi eta khartsu beraikin. Halabiz.

Kominione ondoko othoitza

Eskerrak dauzkitzut, ene Salbatzaile maitea, zuk niri eman grazia guziez, eta beeziki zertako nahi izan duzun zure egoitza in ene baithan kominione saindu huntaz. Emaiten natzaitzu naizen guzia, zu niri osoki eman zaen bezala. Othoizten zaitut, Jesus ona, kominione saindu hau izan dain enetzat bekhatuen barkhamendua, fedelain defendioa, ene bizio guzien heriotzea, amodio desordenatuen desterrua, eta berthute guzien hazgarria; izan bedi ene izpiituain sosegua, etsai guzien azotea, eta bakharrik zurekilako unionea, ene egiazko Jauna eta Jinkoa. Halabiz.

Othoitzak

Jan aintzineko othoitza

Aitain eta Semeain eta Izpiitu Sainduain izenean. Halabiz.

Gure Jauna eta Jinkoa, zure baithan esperantza duu eta jateko behar dena zuk emaiten duzu; zuk eskua zabaldu eta guziak benedizionez bat hetzen gaitutzu. Gure Aita, Agur Maria.

Dohain guzien emaila zaen Jauna, zure eskutik hartu, eta jan behar duun guzia benedikika zazu, Jesu-Kristo zure semeain gatik. Aitak eta Semeak eta Izpiitu Sainduak benedikika gaitzatela, eta gero loriako mahai-neat bethiko ereman gaitzatela. Halabiz.

Jan ondoko othoitza

Aitain eta Semeain eta Izpiitu Sainduain izenean. Halabiz.

Eskerrak bihurtzen dauzkitzu Jinko guziz botheretsua, orai eta bethi zure ongi ein guziez, zeina bizi baitzaa eta erreginatzen mendetako mendetan. Gure Aita. Agur Maria.

Gure ongi eile guziak, Jauna, zure benedizioneaz paga zatzu zure izen sainduain gatik, eta arima fidel guziak zerura zure laudatzeat ereman zatzu, eta orai hemen bilduak gaen guziak zeruko lorian kausiaaz gaitzatzu. Halabiz.

Orenak emaitan

Laudatua eta benedikatua izan bedi Andredena Maria haragi bizian Zaragozat ethorri zen orena. Agur Maria.

Anjeluseko ezila jotzean



Jaunain aingeruak berri on bat eman dio Mariai eta kontzebitu du Izpiitu Sainduain ganik. Agur Maria.

Huna Jaunain neskatoa, ein dakiala zure hitzain arabera. Agur Maria.

Eta Berboak hartu du haragizko gorpuz bat, eta egon izan da gure artean. Agur Maria.

Othoitza

Iguzu othoi, Jauna gure arimetaat zure grazia; aingeruak berri onak ekharri eta Jesu-Kristo zure semain gizon itea ezagutu duun hauk, hain Pasioneain eta Khuutzeain gatik bethiko loriaat eremanak izan gaitezin. Halabiz.

Fedezko ata

Ene Jinkoa, sinhesten dut zaela Aita, Semea, eta Izpiitu- Saindua, Jinko bakharra eta hiru presunetan distingoa. Sinhesten dut Trinitate bigarren presuna in zela gizon Izpiitu Sainduain berthutez; sorthu zela Maria Birjinain ganik, eta hil-t-zela khuutze batean gure salbatzea gatik, igan zela zeruetaat, eta azken egunean ethorriko dela hilen eta bizien juia-tzeat, emaiteko justuei bethiko loria eta gaixtoei sekulako ifernua. Sinhesten dut aldareko Sakramendu sainduan daola Jesu-Kristoin gorputz pre-ziatua, hain errealki nola baitau zeruan. Gisa berean sinhesten ditut zuk Eliz-Ama Sainduai erran eta agertu diozkotzun sakramendu, artikulu eta egia sinhesteko dien guziak, eta sinheste huntan bizi eta hil nahi ut.

Esperantzazko ata

Oi ene Jinkoa! Zure Seme Jesusen meezimenduak, eta heriotzea aar-teko ditualaik, eta hain graziaikin in ahala eiten dutalaik, esperantza ut zure miseriakordian izain dutala ene bekhatuen barkhamendua, zeruko loria eta haat heltzeko grazia guziak.

Amodiozko ata

Ene Jinkoa, maite zaitut ene bihoz guziaz eta gauza guzien gainetik, zaelakoz guziz ona eta osoki maithagarria. Halaber maite ut ene protsimo laguna, ene burua bezala zure amorea katik. Damu ut eta dolu zu ofen-tsatuik; barkhatzen diotet ene etsai guziei zure gatik eta zure izenean.

Ofreimenduzko ata

Ene Jinkoa, eskerrak bihurtzen dauzkitzut zure esku dibinoetaik errezibitu izan ditutan graziez eta dohainez, eta beeziki zeen utzi nauzun

heltzera egun saindu huntaat, zeintan zure loriain ohoretan ofreitzen baitauzkitzut ene pentsamendu, hitz eta obra guziak, nahigabe, onthasun eta bizia, Jesu- Kristoin meezimendu eta odol preziatuaikin; eta hitzemaiten dautzut fermuki gehiau ez ofentsatzea zure graziaikin batean; eman detza-utzu beraz, Jauna, zure laguntzak hola goberna nain Jesu-Kristoin, bere Ama sainduain eta zeruko bertze saindu guzien meezimenduen gatik.



AINHOAKO DOTRINA

(Dialecte d'Ainhoa)

**Giixtino Dotrina, Aita Gazpar Aztete Jesuixtak
erdaraz ixkribatua, Eskuaraat itzulia Iruñeko Diosesako
Jaun bikario batek, emendatuik zenbeit othoitz eta bertze gauzez,
Giixtino fidelen ixtrutzioneko**

Behar den premisioneaikin

**Iruñen,
Gartziain inprimerian,
1853**

Irakurtzailiari

Nahiz hainitz gizetaa itzulia kausitzen den eskuaraz aita Gazpar Aztete jesuixtak erdaraz ixkribatu Giixtino Dotrina, bada oino Iruñeko diosesan zenbeit eskaldun herri konpreni ez dezaketenak liburu hetako eskuara guzia mintzatzeko manera hainitz difeenta delakotz batzuetatik bertzeeta; eta nola nesesario baita Giixtino guziak salbamenduain ardies-teko izan daitezin behar den bezala ixtuituak Jinkoain lege sainduan publikatzen da dotrina hau herri hetan eta bertze hainitzetan kostumatzen den eskuaraz, leku hautako Giixtinoak errexiako ixtuituak izaitea gatik Erli-xioneko inbidetan, zeinetan aurkhituko baitie emendatuik zenbeit othoitz et gauza bertze dotrinako liburuetan eztenak. Ikhasen baduzu ongi dotrina saindu hau eta apartatuz bekhatu iteko okasione suerte guzietaik, segitzen hunek erakhusten dautzun bidea, ardietsiko duzu zeruko loria bai eta desiratzen dautzuna zure zerbitza umilak.

Bekhatore guzientzat abisu ona

Utzazu, bekhatorea,
Gaur beretik bekhatua;

Urrun zaite okasionetik
Zeintan baitzaude sarthua.

Izan ditake gaurko gabea
Zure ohean hiltzea,
Bai eta bihar baino lehen
Ifernuan sartzea.

Utz detzaun bizio hek
Zeinek baikauzkate galduik,
Eta galda barkhamendu
Jinkoai (Jeinkoai) damu hartuik.

Liburu huntan erraiten dena
Sinhets eta in (ein) zazu,
Ardietsiz zeruko loria
Han zaitezin deskantsa.

Khurutze sainduain seinaleain gatik gure etsaietaik libru gaitzatu,
gure Jauna eta Jinkoa.
Aitain eta Semiaian eta Ispiitu Sainduain izenean. Halabiz.

Gure Aita

Gure Aita zeruetan zaudena, erail bedi sainduki zure izena, ethor bedi zure erresuma; in (ein) bedi zure boondatea zeruan bezala lurrean ere. Iguzu egun gure eguneko ogia; barkha diezagutzu gure zorrak guk gure ganat zordun dienei barkhatzen diozkateun bezala eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortzera, bainan gaitz guzietaik beira gaitzatzu. Halabiz.

Agur Maria

Agur, Maria, graziaz bethea, Jauna da zuekin; benedikatua zaa emazte guzien artean eta benedikatua da zure sabeleko fruitua Jesus. Maria Saindua Jinkoain ama, eizu othoitz gure bekhatuentzat orai eta bethi gure heriotzeko orenean. Halabiz.



Credo

Sinhesten dut Jeinko Aita bothere guzia duenain baithan, zeruain eta lurrain Kreatzailea eta Jesu-Kristo hain Seme bakhar gure Jaunain bait-han, zeen kontzebitu baitzen Izpiitu sainduain berthutez, sorthu zen Maria Birjinain ganik, pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuain azpian; khuutzeфикату zuten, hil eta ehortzi zuten jautsi zen ifernuetaa, hirugarren egunean jaiki zen biziik hilen artetik, igan zen zeruetaat, han jarria baitao bere Aita Jinkoain eskuineko aldean, handik ethorriko da bizien eta hilen juiatzeat. Sinhesten dut Izpiitu Sainduain baithan, Eliza Katoliko Sainduan Sainduen partaliertasunean, bekhatuen barkhamenduan, haragiain piztean bethi iraunen duen bizitzean. Halabiz.

Salbe

Agur, zeruko erregina, miserikordia in ama, gure bizitze, ez-titasun eta espeantza, agur. Zuri oihuz gauzi Ebain ume desterratuak, zuri suspiraka gaude, auhenetan eta nigarrez nigarrezko lekhu hautan. Hean bada, andrea, gure aartekua, itzul zatzu gure gana zure begi miserikordios hoik. Eta desterru hunen onduan erakuts dezaguzu Jesus zure sabeleko fruitu benedikatua. Oi barkhamendutsua, oi pietatetsua, oi Birjina Maria ez-tia! Othoitz eizu guretzat Jinkoain Ama Saindua, izan gaitez in dino ardieste-ko Jesu-Kristoin agintzak. Halabiz.

Kobesio jeneala

Ni bekhatuea kobesatzen nitzai o Jinko aita bothere guzia duenai, Maria Birjina bethi dohatsuai, Mikael Arkanjelu dohatsuai, Juanes Batixta dohatsuai, Petri eta Paulo apostolu sainduei, saindu guziei, eta zuri, ene aita, zeren ein baitut sobera bekhatu, gogoz, hitzez eta obraz, ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hartaakotz othoitz iten diot Maria bethi Birjina dohatsuai, Mikael arkanjelu dohatsuai, Juanes Batixta dohatsuai, Petri eta Paulo apostolu sainduei, saindu guziei, eta zuri, ene aita, in dezazun enetzat othoitz gure Jinko Jaunari.

Kontrizionezko ata

Jesu-kristo ene Jauna, Jinko eta gizon egiazkoa, ene Kreatzailea eta errede-mtoea. Zu zarenaen gatik eta zeen maithatzen zaitudan gauza guzien gainetik, damu dut, Jauna, bihoz guzitik zu ofensaturik, hartzen dut boondate fermubat ez gehiau bekhatuik iteko, kobesatzeko eta eman zautan penitentzia in konplitzeko eta apartatzeko bekhatu iteko okasione guzietaik. Eskeintzen dauzkitzuten ene bizia, obra eta nekhe guziak ene bekhatuen satifazionetan, konfidentzia hartzen dut zure ontasun eta miserikordia finik gabekoan barkhatuko dazkidatzula zure odol preziatu, pasione eta heriotze in meezimenduen gatik eta emain dautazula grazia hobeki bizitzeko eta irauteko zure zerbitzu sainduan heriotzeko orduraino. Halabiz.

Kontrizionezko ata Frantziako gisan

Ene Jinko maitea, barkhamendu eske nagotzu umilki ene bekhatu guziez, damu dut et (sic) urriki zeren guziz ona zaelaik ofentsatu zaitudan, eta hartzen dut boondate fermu bat ez gehiag o bekhatuik iteko zure graziakin batean; halaber hartzen dut boondate ene bekhatu guziez osoki kobesatzeko eta emaiten zautan penitentzia in konplitzeko. Halabiz.

Hamar manamenduak

Jinkoain legeko manamenduak dira hamar. Lehenbiziko hiruak Jinkoain ohoreai dohazkonak eta bertze zazpiak protsimo lagunain prootxuai.

Lehenbizikoa. Jinko maithatzea gauza guzien gainetik.

Bigarrena. Haen izenaz juramentu ez eitea banoki.

Hirugarrena. Igandeak eta bestak santifikatzea.

Laugarrena. Aita eta ama ohoratzea.

Bosgarrena. Nihor ez hiltzea.

Seigarrena. Pallardizaik ez itea.

Zazpigarrena. Ez ebastea.

Zortzigarrena. Lekhukotasun faltsurik ez itea ez eta gezurrik eraitea.



Bederatzigarrena. Bertzeen esposik ez desiratzea.
Hamargarrena. Bertzeen gauzaik ez gaizki desiratzea.

Manamendu berak Frantziako gisan

1. Jinko bat adora zazu,
Halaber maitha osoki.
2. Juramentuik zuk ez tuzu
Ez zinik einen faltsuki.
3. Igandeak beira zatzu
Jauna ere zerbitza deboki.
4. Aita eta Ama ohora zatzu
Bizi zaitezin luzeki.
5. Nihor obraz hilen ez tuzu
Ez boondatez gaixtoki.
6. Pallardizaik inen ez tuzu
Obraz ez gogoz likhiski.
7. Bertzeena ebatsiko ez tuzu
Ez atxikiko injustuki.
8. Lekhukotasunik ez tuzu
Ez hitz errain faltsuki.
9. Bertzeen esposik ez tuzu
Desiratuko lizunki.
10. Gutiziaik izanen ez tuzu
Bertzeen onain gaizki.

Hamar manamendu hauk zerraten die bietan; Jinkoain zerbitzatzan eta maithatzea gauza guzien gainetik eta protsimo laguna gure buruak bezala. Halabiz.

Fedezko artikuluak

Fedezko artikuluak die hamalau.
Lehenbiziko zazpiak Jinkotasunai dohazkonak, eta bertze zazpiak Jesu Kristo Jinko eta Gizon egiazkoain Gizontasun Sainduai.

Jinkotasunai dohaskonak die hauk

Lehenbizikoa. Sinhestea Jinko bakhar guziz botheretsuan:
Bigarra. Sinhestea dela Aita.
Hirugarrena. Sinhestea dela Semea.
Laugarrena. Sinhestea dela Izpiritu Saindua.
Bosgarrena. Sinhestea dela Kreatzailea.
Seigarrena. Sinhestea dela Salbatzailea.
Zazpigarrena. Sinhestea dela Lorifikatzailea.

Gizontasun sainduari dohazkonak die hauk:
Lehenbizikoa. Sinhestea Jesu Kristo, gure Jauna gizon bezala izan zela kontzebitu Izpiritu Sainduain obraz eta graziaz.
Bigarra. Sinhestea sorthu zela Birjina Maria sainduain ganik, geditzen zelaik hau Birjina erdi aintzinean, erditzean eta erdi ondoan.
Hirugarrena. Sinhestea errezibitu zituela heriotzea eta pasionea gu bekhatoreen salbatzea gatik.
Laugarrena. Sinhestea jautsi zela ifernuetaa, eta athera zituela hain ethortze sainduain beira zauden arimak.
Bosgarrena. Sinhestea piztu zela hilen artetik hirugarren egunean.
Seigarrena. Sinhestea igan zela zeruetaa dagola jarririk Jinko aita guziz botheretsuain aldean.
Zazpigarrena. Sinhestea ethorriko dela bizien eta hilen juiatzera, onei emaitako loria, zeren beiratu zituzten hain manamendu sainduak; eta gaixtoei sekulako pena, zeren etzituzten beiratu.

Giixtino-Dotrina Giixtino Dotrinain deklaazionea galdeinez eta ihardetsiz

GALDEITEN DUT. Giixtinoa zaa?
I HARDESTEN DUT. Ba, Jinkoain graziaz.
G. Noen ganik izan zinuen giixtinoain izen saindu hoi?
I. Jesu Kristo gure Jaunain ganik.
G. Zer erran nahi da giixtinoa?
I. Kristoin gizona.
G. Zer aitzen duzu Kristoin gizonaz?



- I. Jesu-Kristoin fedea duena bathaioan errezibituik, eta obligatua dena hain zerbitzu saildura.
- G. Zein da giixtinoain seinalea?
- I. Khuutze saildua.
- G. Zergatik?
- I. Zeren baita Kristo khuutzezikatua itxura zeintan erosi baikin-tuen.
- G. Zenbat gisetaa Giixtinoak iten du seinale hoi?
- I. Bietaa, Jauna.
- G. Zein dire?
- I. Zeinatzea eta.
- G. Zer da zeinatzea?
- I. Eskuineko eskuko erhi handiaz hiru khuutze itea, lehenbizikoa kopetan, bigarrena ahoan, hirugarrena bulharretan, mintzatzen gaelaik gure Jinko Jaunaikin.
- G. Erakutsazu nola.
- I. Khuutze sailduain seinalearen gatik gure etsaietaik libra gaitzatzu gure Jauna eta Jinkoa.
- G. Zertako zeinatzen zaa kopetan?
- I. Jinkoak libra gaitzan pentsamendu gaixtoetaik.
- G. Zertako ahoan?
- I. Jinkoak libra gaitzan hitz gaixtoetaik.
- G. Zertako bulharretan?
- I. Jinkoak libra gaitzan obra eta desio gaixtoetaik.
- G. Zer da zeinatzea?
- I. Eskuineko eskuko bi erhiz khuutze bat itea, kopetatik bulharretaino, ezkerreko soinetik eskunekoraino, mintzatzen gaelaik Trinitate guziz sailduaikin.
- G. Erakuts nola?
- I. Aitain eta Semeain eta Izpiitu Sailduain izenean. Halabiz.
- G. Noiz ein behauzu khuutzeain seinale hoi?
- I. Zerbeit obra on eiten hasten gaelaik, edo aurkhitzen gaenean behar, tentamendu edo peiletan, partikulaski ohetik jaikitzean, etxetik atheatzean, Elizan sartzean edo lokhartzerakoan.
- G. Zertako hainbertze aldiz?
- I. Zeren lekhu eta denbora guzietan gure etsaiek atakatzen eta per-segitzen baikaituzte.
- G. Zer etsai dire hoik?
- I. Mundua, debrua eta haragia.

G. Beraz khuutzeak badu berthutea etsai hoien kontra?

I. Ba-Jauna.

G. Nondik du berthute hoi?

I. Jesu Kristok khurutzean garaitu zituelakotz.

G. Adoratzen duzulaik khuutzea nola erraiten duzu?

I. Adoratzen zaitugu, Kristo, eta benedikatzten zeren zure Khuutze Sailduaz erosi duzun mundua.

Giixtino Dotrinain xehetasuna

Ikusi dugu Giixtinoa zaela Giixtinoain izen eta seinaleaz; errazu orai:

G. Zenbat gauzen jakitera obligatua da giixtinoa heltzen delaik adimendura?

I. Lau gauza.

G. Zein die?

I. Jakitea zer behar duen sinhetsi, zer galdein, zer obratu eta zer errezibitu.

G. Nola jakinen du zer behar duen sinhetsi?

I. Jakinez Kredoa edo fedezko artikulak.

G. Nola jakinen du zer behar duen galdein?

I. Jakinez Jinkoain Legeko manamenduak, Eliza Ama Sailduanenak eta obra miserikordiazkoak.

G. Nola jakinen du zer behar duen errezibitu?

I. Jakinez Eliza Ama Sailduain sakramenduak.

Dotrinain lehenbiziko partea

zeintan erakusten baitie Kredoa eta fedezko artikulak

G. Errazu: Nork erran zuen Kredoa?

I. Apostoluek, Jauna.

G. Zertako?

I. fede sailduan gu argitzeko.

G. Eta zuk zertako erraiten duzu?

I. Giixtinoek duun fede hunen aithortzeko.

G. Zer da fedea?

I. Ikusi ez duuna sinhestea.

G. Ikusi zinuen zuk Jesu Kristo sortzen?

I. Ez, jauna.



G. Ikusi zinuen hiltzen edo zeruetat igaiten?
 I. Ez, Jauna.
 G. Sinhesten duzu?
 I. Ba-Jauna, sinhesten dut.
 G. Zergatik?
 I. Zeen Jinkoak hortaz argitu baitu Eliza Ama Saindua eta hunek hala erakusten guri.
 G. Zer gauza dire Giixtino zaen bezala dauzkatzunak eta sinhesten ditutzunak?
 I. Erromako Eliza Ama Sainduak dauzkanak eta sinhesten dituenak.
 G. Zer gauza dire zuk eta hark dauzkatzuenak eta sinhesten dituzuenak?
 I. Fedezko artikulua printzipalki, Kredoan dauden bezala.
 G. Zer gauza die fedezko artikulua?
 I. Die fedein mixterioik printzipalenak.
 G. Zertako die fedezko artikulua?
 I. Ezagutzeko Jinko gure Jauna eta Jesu-Kristo gure Erredentorea.
 G. Nor da Jinkoa?
 I. Hura da gauzaik hobeena eta miragarriena, erran eta pentsa ez daitekeena; Jaun bat guziz ona, botheretsua, jakintsuna, justua, gauza guzien hastapena eta akhabantza.
 G. Nor da Trinitate Saindua?
 I. Hura da Jinko bera, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, hiru presunak distingoa, eta egiazko Jinko bat bakharra.
 G. Aita Jinko da?
 I. Ba-Jauna.
 G. Semea Jinko da?
 I. Ba Jauna.
 G. Izpiritu Saindua Jinko da?
 I. Ba-Jauna.
 G. Hiru Jinko dire?
 I. Ez Jauna, Jinko egiazko bakhar bat baizik.
 G. Aita Semea da?
 I. Ez Jauna.
 G. Izpiritu Saindua da Aita edo Semea?
 I. Ez Jauna.
 G. Zergatik?
 I. Zeren presunak distingoa baitie, egiazko Jinko bakhar bat izanagatik ere.

G. Nola da Jinkoa guziz botheretsua?
 I. Zeen bere bothereaikin eiten duen nahi duen guzia.
 G. Nola da Kreatzailea?
 I. Zeren ez deusetaik in zituen gauza guziak.
 G. Nola da Salbatzailea?
 I. Zeen emaiten baitu grazia eta barkhatzen bekhatuak.
 G. Nola da Lorifikatzailea?
 I. Zeen emaiten baitu loria irauten duenari haren grazian.
 G. Jinkoak badu guk bezala gorphutz itxuraik?
 I. Jinko bezala ez, zeen baita Izpiritu hura, bainan bai gizon bezala.
 G. Trinitateko presunetaik zein intzen gizon?
 I. Bigarrena, zeina baita Semea.
 G. Aita intzen gizon?
 I. Ez, Jauna.
 G. Izpiitu Saindua eintzen gizon?
 I. Ez, Jauna.
 G. Zein bada?
 I. Bakharrik Semea, zeina gizon einik deitzen beita Jesu-Kristo.
 G. Beraz hau, nor da Jesu Kristo?
 I. Hau da Jinko biziain Semea, guri bizitzen erakustea gatik eta gure erospenain eiteko gizon eintzena.
 G. Zer erran nahi du Jesusek?
 I. Salbatzailea.
 G. Zertaik salbatu gintuen?
 I. Gure bekhatutik eta debruain esklabotasunetik.
 G. Zer erran nahi du Kristok?
 I. Gantzutua.
 G. Zertaz izan da gantzutua?
 I. Izpiitu Sainduain dohainez eta graziez.
 G. Jesu Kristo gure Jauna nola izan-tzen kontzebitua eta sorthu zen Ama Birjinaen ganik?
 I. Jinkoain obra surnatural eta mirakuluzkoaz.
 G. Nola izan-tzen obra mirakuluzko hura?
 I. Izpiritu Sainduak Ama Birjinain errainetan odolik garbienaz formatu zuen gorphutz bat, ezdeusetaik kreatu zuen arima-at; arima eta gorphutz hura elkharrekin baturik juntatu ziren Trinitateko bigarren presunari, eta orduarteo Jinko baizik etzena gelditu zen Jinko et (sic) Gizon einik.
 G. Kristoin Ama bethi bizi izan-t-zen Brijina?



- I. Ba-Jauna, bethi Brijina.
 G. Zergatik hil nahi izan zuen khuutzean?
 I. Bekhatutik eta heriotzetik gure libratzea gatik.
 G. Zer aitzeuzu Jesu Kristo hil ondoan jautsi zen ifernuaz?
 I. Ez dut aitzen kondenatuak dauden lekhu hura, baizik Justuak zauden Linboa, zeina deitzen baita Abrahamen galtzarra.
 G. Nola jautsi zen?
 I. Arima baturik Jinkotasunari.
 G. Eta hain gorphutza nola gelditu zen?
 I. Batuik Jinkotasun beraikin.
 G. Nola piztu zen hirugarren egunean?
 I. Hain Gorphutza eta Arima loriaz betheak juntatzen zirelaik elkharrekin, gehiau ez hiltzeko.
 G. Nola igan-t-zen zeruetat?
 I. Bere berthutez.
 G. Zer erran nahi du «han jarriik daola Aita Erternalain eskuineko aldean?».
 I. Jinko bezala Aitak bezenbat loria baduela, eta Gizon bezala bertze gizon guziek baino gutiago.
 G. Noiz ethorriko da bizien eta hilen juiatzerat?
 I. Munduain akhabantzan.
 G. Eta orduan behar dute hil guziek berriz piztu?
 I. Ba-Jauna, izan zituzten gorphutz eta arima berekin.
 G. Zer sinhesten duzu erraiten duzunean «Sinhesten dut Sainduen kominionean?».
 I. Giixtino fidel guziek dutela parte bertzeen ontasun izpiitualetan, gorphutz baten menbruak dien bezala, hura baita Eliza.
 G. Zer da Eliza?
 I. Hura da Giixtino fidel guzien junta, zeinen burua baita Erromako Aita Saindua.
 G. Nor da Aita Saindua?
 I. Hura da Erromako Aphez Nausia, zeini guziak baikaa obligatuak obeditzera.
 G. Kredoaz eta artikuluez bertzalde sinhesten duzu bertze zenbeit gauza?
 I. Ba-Jauna Iskritura Sainduan daon guzia eta Jinkoak bere Elizai erakutsi dion guzia.
 G. Zer gauza die hoik?

I. Hoi ez niri galda, iñoranta naizelako Eliza Ama Sainduak baitu dotorrek jakinen dutenak ihardesten.

M. Ongi diozu, dotorrei zaiotela, eta ez zuri kontu emaita fedezko gauza guziez. Aski da zuretzat fedezko artikuluen emaita Kredoan dauden bezala.

Dotrinain bigarren partea zeintan erakusten baitie zer behar den galdein, eta Eliza Ama Sainduain othoitzak

Ikusi duu nola dakizun zer behar duzun sinhetsi, hura baita lehenbiziko gauza; goazin bigarrenera, zeina baita jakitea zer behar den galdein.

G. Errazu, nork erran zuen Gure Aita?

I. Jesu-Kristok, Jauna.

G. Zertako?

I. Guri othoitz iten erakusteko.

G. Zer da othoitz?

I. Hura da Jinkoai bihotza altxatzea eta fagoreak galdatzea.

G. Gure Aita erraiten noekin mintzo zaa?

I. Gure Jinko Jaunaikin.

G. Non da gure Jinko Jauna?

I. Lekhu guzietan: partikulaski zeruan eta aldareko sakramendu sainduan.

G. Zein da othoitzetan hobeena?

I. Gure Aita, Jauna.

G. Zergatik?

I. Zeren Jesu-Kristok berak erran baitzuen bere ahoz, Apostoluek galdetuik.

G. Zergatik gehiau?

I. Zeen baititu zazpi galde mota karitateain gaineen asentatuak.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa erabil bedi sainduki zure izena.

G. Zer galdeiten duzu galde mota hortan?

I. Jinkoain izena izan dadiela ezagutua eta ohoratua mundu guzian.

G. Zein da bigarrena?

I. Ethor bedi zure erresuma.

G. Zer galdeiten duzu galde hortan?



- I. Jinkoa erregina dadiela hemen lurrean gure arimetan graziaz, eta gero eman dezagula bere loria.
- G. Zein da hirugarrena?
- I. Ein bedi zure boondatea zeruan bezala lurrean ere.
- G. Zer galdeiten duzu galde hortan?
- I. Jinkoain boondatea ein dezaüla, lurrean gaudenek zeruan doha-tsuek iten duten bezala.
- G. Zein da laugarrena?
- I. Iguzu egun gure eguneko ogia.
- G. Zer galdeiteuzu galde hortan?
- I. Eman detagula Jinkoak gorputzeko komeni den mantenua, arima-ko grazia izpiitualak eta sakramenduak.
- G. Zein da bosgarrena?
- I. Barkha diezagutzu gure zorrak guk gure ganat zordun dienei bark-hatzen dieztegun bezala.
- G. Zer galdeiten duzu galde hortan?
- I. Jinkoak barkha detzagula geurren bekhatuak, halanola guk bark-hatzen baitituu gure gaizki-eilei.
- G. Zein da seigarrena?
- I. Ez gaitzatzula utz tentamendutan erortzera.
- G. Zer galdeiten duzu galde hortan?
- I. Jinkoak ez gaitzala utz erortzeat ez eta ere konsentitzeat debruak bekhatuan erorraaztea gatik ekhartzen dauzkun pentsamendu eta tenta-zione gaixtoetan.
- G. Zein da zazpigarrena?
- I. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik.
- G. Zer galdeiten duzu galde hortan?
- I. Jinkoak libra gaitzala arimako eta gorputzeko lanjer eta gaitz-guzietak.
- G. Zertako erraiten duzu lehenik: «Gure Aita, zeruetan zaudena».
- I. Jinkoai bihotzain altxatzeko, eta galdeiteko umilitatea eta konfien-tziakin.
- G. Zer erran nahi da Amen azkenean erraten duzun hitz hura.
- I. Hala izan dadiela.
- G. Zer othoitz eiten diozu printzipalki Ama Birjinari?
- I. Agur, Maria, eta Salbe.
- G. Nork erran zuen Agur Maria?
- I. Aingeru San Grabielek ethorri zenean Ama Birjinain salutatzer.
- G. Nork erran zuen Salbe?

- I. Eliza Ama Sainduak du errezibitua.
- G. Zertako?
- I. Ama Birjinai fagoreen galdetzeko.
- G. Agur Maria edo Salbe erraiten duzunean noekin mintzo zaa?
- I. Birjina Maria sainduaikin.
- G. Nor da Birjina Maria Saindua?
- I. Hura da Andre bat bethutez (sic) bethea, Jinkoan Ama dena eta daona zeruan.
- G. Eta aldarean daona nor da?
- I. Hura da zeruan dagonaen itxura eta imajina.
- G. Zertako dago aldarean?
- I. Hura ikustiaikin orhoit gaitezin zeruan daonaz, eta haren itxura eta iduria delakotz ekhar diotzogun gure errespetuak.
- M. Bada hau bera in behar duzu bertze sainduen imajinei eta erlakiei ee.
- G. In behar dugu othoitz aingeruei eta sainduei?
- I. Ba-Jauna, gure aartekoei bezala.
- G. Zer gauza die aingeruak?
- I. Die Izpiitu dohasu batzu Jinkoaz zeruan gozatzen daudenak.
- G. Zertako Jinkoak kreatu zituen?
- I. Eternitate guzian laudatzeko eta benedikatzeko.
- G. Zertako gehiau?
- I. Hain ministro bezala goberna dezaten Eliza, eta gizonak zain.
- G. Beraz, bauzu zuk aingeru beiralea?
- I. Ba-Jauna, eta bakotxak badu berea.
- M. Bada, debozione handia izan diozazu eta hari gomenda zaite egun oroz.

Dotrinain hirugarren partea zeintan erakusten baita zer behar den obratu

- Ikusi dugu zer behar duzun sinhetsi eta galdein; ikus dezaun orai zer behar duzun obratu.
- G. Errazu: zein da Jinkoain lehenbiziko manamendua?
- I. Jinko bat adora zazu halaber maitha osoki.
- G. Nork maithatzen du Jinkoa osoki?
- I. Hain manamenduak beiratzen dituenak.
- G. Zer da Jinkoain maithatzea osoki?



- I. Nahiau izaitea guzia guziak galdu ezenetz Jinkoa ofentsatu.
 G. Zertaat gehiago obligatzen gaitu manamendu horrek?
 I. Haen bakharrik adoratzat gorputzeko eta arimako errespetu handienaz, sinhetsiz eta esperantza hartuz haen baithan fede biziain.
 G. Nork bekhatu iten du manamendu hunen kontra?
 I. Sinhesten edo arotatzen dituenak idolak edo Jinko faltsuak.
 G. Nork gehiao?
 I. Supertizione edo sorginkerietan sinheste hartzen duenak eta hetaz baliatzen.
 G. Zein da bigarrena?
 I. Juramentuik zuk ez duzu ez zinik einen banoki.
 G. Nork eiten du juramentu banoki?
 I. Juramentu eiten duenak egiaik, justiziaik eta beharrik gabe.
 G. Eta bekhatu da kreaturain gatik juramentu itea banoki?
 I. Ba-Jauna, zeen hetan iten baitzaio juramentu Kreatzaileai.
 G. Zer erremedio da juramentu banoik ez eiteko?
 I. Kostumatzea erraitera ez, edo ba, Jesu-Kristok erakusten daukun bezala.
 G. Zein da hirugarrena?
 I. Igandeak beira zatzu, Jauna ere zerbitza deboki.
 G. Nork beirutzen ditu igandeak eta bestak?
 I. Meza osoa entzuten duenak eta beharrik gabe lanean haitzen ez denak.
 G. Zein da laugarrena?
 I. Aita eta ama ohora zatzu bizi zaitezin luzeki.
 G. Nork ohoratzen ditu Aita eta Ama?
 I. Obeditzen, sokorritzen eta errespetatzen dituenak.
 G. Nor bertzei aitzen duzu Aitain eta Amain izenean?
 I. Nausiao dienak adinean, dinitatean eta gobernuan.
 G. Zein da bosgarrena?
 I. Nihor obraz hilen ez duzu ez boondatez gaixtoki.
 G. Zer manatzen da manamendu huntan?
 I. Nihori gaizkiik ez itea ez hiltzez, ez obraz ez etare desirez.
 G. Zein da seigarrena?
 I. Pallardiza einen ez duzu obraz ez gogoz likhiski.
 G. Zer manatzen da manamendu huntan?
 I. Izan gaitezila garbiak hitzez, obraz eta pentsamenduz.
 G. Zein da zazpigarrena?
 I. Bertzeena ebatsiko ez duzu ez atxikiko injustuki.

- G. Zer manatzen da manamendu huntan?
 I. Ez khentzea, ez idukitzea, ez etare nahi izaitea bertzeen gauzaik jabearen boondateain kontra.
 G. Zein da zortzigarrena?
 I. Lekhukotasunik ez duzu ez hitz errain faltsuki.
 G. Zer manatzen da manamendu huntan?
 I. Ez arinki protsimo lagunaz juiatzea; ez erraitea ez etare aitzea haren faltak.
 G. Nork bekhatu eiten du manamendu hunen kontra?
 I. Arrazoinik gabe juiamendu gaixtoak iten dituenak, fama khentzen, sekretua agertzen eta gezurra erraiten.
 G. Zer debekatzen da bederatzigarren eta hamargarren manamenduetan?
 I. Haragizko plazer eta bertzeen ontasunen gutizia gaixtoak.

Eliza Ama Sainduain manamenduak borts die

- Lehenbizikoa: Igande eta bestetan meza osoa entzutea.
 Bigarrena: Urthean behin bedeen kobesatzea, edo lehenao heriotzeko lanjerik uste badu, edo kominiatu behar badu.
 Hirugarrena: Bazko gaizumetan kominiatzea.
 Laugarrena: Eliza Ama Sainduak manatzen duenean barur itea.
 Bosgarrena: Detxumak.

Manamendu berak Frantziako gisan

1. Meza Saindua entzun zazu
Besta igandetan deboki.
 2. Bekhatuak kobesa zatzu
Urthean behin osoki.
 3. Gorputz Saindua errezibi zazu
Bazkoz bedeen umilki.
 4. Gartha bixiliak barur zatzu
Gaizuma ere osoki.
 5. Detxumak eta... paga zatzu
Elizari xuxenki.
- G. Zertako die manamendu hauk?
 I. Jinkoain legekoe hobeki beiratzeko.



Miserikordiazko obrak die hamalau
Zazpi izpiitualak, edo arimai dohazkonak; eta
bertze zazpi korporalak, edo gorputzai dohazkonak

Zazpi izpiitualak, edo arimai dohazkonak die hauk:

Lehenbizikoa: eztakienai erakustea.

Bigarrena: Behar duenai kontseilu ona ematea.

Hirugarrena: Gaizki dabilanain korreitzea.

Laugarrena: Afrontuen barkhatzea.

Bosgarrena: Tristeen kontsolatzea.

Seigarrena: Protsimo lagunain faltak eta flakeziak pazientziaikin sofritzea.

Zazpigarrena: Hilez eta biziez Jinkoai othoitz itea.

Zazpi korporalak, edo gorputzai dohazkonak die hauk:

Lehenbizikoa: Eriak bisitatzea.

Bigarrena: Gose denai jateat ematea.

Hirugarrena: Egarki denai edateat ematea.

Laugarrena: Esklaboak gibelat erostea.

Bosgarrena: Biluziak beztitzea.

Seigarrena: Pobre eta pelegrinei ostatu ematea.

Zazpigarrena: Hilan ehorztea.

G. Zergatik deitzen die obra miserikordiazkoak?

I. Zeen ezpaitie zor justiziaz.

G. Noiz obligatuko-ute bekhatuain azpian?

I. Gizon jakintsunek behar handia dela juiatze-utenean.

Dotrinain laugarren partea
zeintan erakuzten baitie
errezibitu behar dien sakramenduak

Ikusi duu zer behar duzun sinhetsi, galdein eta obratu, ikus dezaun orai zer behar duzun errezibitu.

G. Erran zatzu sakramenduak.

I. Eliz-amain sakramenduak die zazpi. Lehenbiziko bortzak dire beharrezkoak, obrak edo desirez errezibitu behar dienak, zeinak gabe ez baititake salba gizona uzten baitu mesprezioz; bertze biak boondatezkoak die.

Lehenbizikoa: Bathaioa.

Bigarrena: Konfirmazionea.

Hirugarrena: Penitentzia.

Laugarrena: Kominionea.

Bosgarrena: Anontzioa.

Seigarrena: Ordena.

Zazpigarrena: Ezkontza.

G. Zer die sakramenduak?

I. Hek die seinale ageri batzu Jesukristo gure Jaunak establituak, hetaz guri emaitako bere grazia eta berthuteak.

G. Zer da grazia?

I. Izaite dibino-at iten duena gizona Jinkoain seme eta zeruko premu.

G. Zer berthute emaiten dituzte sakramenduek graziaikin batean?

I. Printzipalki hiru teologalak eta dibinoak.

G. Zein die?

I. Fedea, Esperantza eta Karitatea.

G. Zer da Fedea?

I. Ikusi eztuunain sinhestea, Jinkoak hala erakutsi duelakotz.

G. Nork bekhatu iten du Fedeain kontra?

I. Gure erlixioneko egia guziak sinhesten eztituenak, edo dudatzen dituenak; edo bere faltaz ikhasten eztituenak.

G. Zer da Esperantza?

I. Esperantzatzea Zeruko loria Jinkoain grazia in eta gure obra onen medioz.

G. Nork bekhatu eiten du Esperantzain kontra?

I. Jinkoain baithan esperantza galtzen duenak, zeruain iraazteat entseiatzen eztenak, eta Jinkoa miserikordiosa delakotz bekhatu iten duenak.

G. Zer da kaïtatea?

I. Jinkoain maithatzea gauza guzien gainetik, eta protsimo laguna gure burua bezala hari einez hark guri eitea nahi ginukeena.

G. Zertako da bathaioko sakramendua?

I. Bekhatu orisinalain khentzeko edo bertze edozein bekhatu aurk-hitzen dien bathaiatzen denain baithan.

G. Zer da bekhatu orisinala?

I. Hura da gure aita Adam eta gure Ama Ebain ganik dathorkigun bekhatu bat.

G. Nornahik bathaia dezake behar-orduan?



I. Ba-Jauna.

G. Zer in behar da ontsa bathaiatzeko?

I. Ur naturala ixuri behar du bathaiatua izan behar duenain buruain gainera, erraiten delaik denbora berean: Nik bathaiatzen zaitut: Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.

G. Zertako da konfirmazioneko sakramendua?

I. Hura da hazkartzeko eta borthizteko bathaioan errezibitu ginuen fedean.

G. Zertako da penitentziako sakramendua?

I. Bathaiatuz geroztik ein bekhatuen barkhatzeko.

G. Zer bekhatu die hoik?

I. Die mortalak edo benialak.

G. Zer da bekhatu mortala?

I. Hura da erraitea, eitea, pentsatzea, edo desiratzea Jinkoain legeain kontra gauza handitan.

G. Zergatik deitzen da mortala?

I. Zeen hiltzen baitu eiten duenaen arima.

G. Zer parte ditu Penitentziako sakramenduak bekhatu mortalain khentzeko?

I. Hiru, Jauna.

G. Zein die?

I. Bihotzeko dolorea, ahozko kobesia eta obrazko satisfazionea.

G. Bekhatu mortalean erortzen den aldi guzietz behar othe da kobe-satu berehala bekhatua barkhatzekotz?

I. On litake, bainan ez da nesesario.

G. Zer ein behar da beraz?

I. Izan behar da bere bekhatuaz egiazki urriki bat hobeki bizitzeko deliberazioneaikin kobesatzeko Elis-Ama Sainduak manatzen duen denboran.

G. Zer da bekhatu beniala?

I. Hura da erraitea, itea, pentsatzea, edo desiratzea Jinkoain legeain kontra gauza ttipian.

G. Zergatik deitzen da beniala?

I. Zeen hartan gizona aise erortzen baita eta aise barkhatzen baitzaio.

G. Zenbat gauzaz barkhatzen zaio?

I. Bedeatziz, Jauna.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: Meza entzuteaz.

Bigarra: Kominiatzeaz.

Hirugarrena: Ni bekhatorea erraiteaz.

Laugarrena: Aphezpikuain benedizioneaz.

Bosgarrena: Ur benedikatuaz.

Seigarrena: Ogi benedikatuaz.

Zazpigarrena: Gure Aita erraiteaz.

Zortzigarrena: Prediku aitzeaz.

Bederatzigarrena: Bulharak joz Jinkoai barkhamendu galdeiteaz.

G. Zertako da kominioneko sakramendua?

I. Errezibitzen delaik dinoki, izan dain gure arimen hazgarri eta emenda dezan grazia.

G. Zer errezibitzen duzu kominioneko sakramendu sainduan?

I. Jesu-Kristo, Jinko eta gizon egiazkoa, aldareko sakramendu sainduan errealki daona.

G. Zertako da Anontzioko sakramendua?

I. Hiru gauzetako.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: Bekhatuain tatxa eta khutsuen khentzeko.

Bigarra: Arimai indar emaitako etsaiain tentazionen kontra.

Hirugarrena: Gorputzai osasuna emaitako komeni bazaio.

G. Zertako da Ordenako sakramendua?

I. Ordenatzeko eta kontsekratzeko Elizako ministroak, nola baitie aphezak, diakreak eta sudiakreak.

G. Zertako da ezkontzako sakramendua?

I. Ezkontzeko eta ezkondui emaitako bizi daiteziz elkarrekin bakean eta umeak haz detzaten zeruko.

Bekhatu kapitalak zazpi die

Lehenbizikoa: Urgulua.

Bigarra: Abarizioa.

Hirugarrena: Lohikeria.

Laugarrena: Kolera.

Bosgarrena: Gormandiza.

Seigarrena: Inbidia.

Zazpigarrena: Alferkeria.

G. Zertako deitzen ditutzu kapitalak, gahienean mortalak deitzen dien zazpiak?

I. Deitzen die kapitalak, zeen diren hoitaik sortzen diren bizioen buruak, ithurriak eta erroak bezala; ez dohakote ongi mortalak deitzea, zeen hainitz aldiz ezpaitie benialak baizik.



G. Noiz die mortalak?

I. Dienean Jinkoain eta protsimo lagunain kaïtateain kontra.

G. Noiz die kaïtateain kontra?

I. Hoitaz hausten denean Jinkoain edo Elizain manamendu bat gauza handian.

G. Zer da urgulua?

I. Bertzeak baino gehiau izaiteko amodio desordenatu bat.

G. Zer da abarizioa?

I. Onthasunetako amodio desordenatu bat.

G. Zer da lohikeria?

I. Desoneskerietako plazer zikhinen amodio desordenatu bat.

G. Zer da kolera?

I. Mendekatzeko amodio desordenatu bat.

G. Zer da gormandiza?

I. Jateko eta edateko amodio desordenatu bat.

G. Zer da inbidia?

I. Bertzeen onaz izaiten den damua.

G. Zer da alferkeria?

I. Obra on iteko gutizia eskasa.

Zazpi bizio hoien kontra badie zazpi Berthute

Urguluain kontra, Umiltasuna.

Abarizioain kontra, Jenerostasuna.

Lohikeriain kontra, Garbitasuna.

Kolerain kontra, Pazientzia.

Gormandizain kontra, Jan edanetako xuhurtasuna.

Inbidiaian kontra, Karitatea.

Alferkeriain kontra, Lanain amodioa.

Arimain etsaiak, zeinetarik ihes in behar baituu, badie hiru

Lehenbizikoa: Mundua.

Bigarrena: Debrua.

Hirugarrena: Haragia.

G. Nola ihes eiten da munduain ganik?

I. Mespreziatuz hain handitasun eta banitateak.

G. Nola ihes eiten da debruain ganik?

I. Othoitzaz eta umiltasunaz.

G. Nola ihes iten da haragiain ganik?

I. Barur einz eta gorputza mortifikatuz: hau da etsaiik handiena, zeren haragia ez baitezaken aparta geurren ganik, bainan bai mundua eta Debrua.

Berthute teologalak hiru die

Lehenbizikoa: Fedea.

Bigarrena: Esperantza.

Hirugarrena: Karitatea.

Berthute kardinalak edo moralak die lau

Lehenbizikoa: Prudentzia.

Bigarrena: Justizia.

Hirugarrena: Haskartasuna.

Laugarrena: Zuhurtzia jan edanetakoa.

Gorputzeko sentsuak bortz die

Lehenbizikoa: Begiez ikustea.

Bigarrena: Beharriez aitzea.

Hirugarrena: Ahoz jastatzea.

Laugarrena: Sudurrez usaindatzea.

Bosgarrena: Eskuz hunkitzea.

G. Zertako Jinkoak eman dauzku sentsuak eta bertze gainerako menbroak?

I. Orotaz zerbitza dezaun gauza guzietan.

Arimako ahalak hiru die

Lehenbiziko: Memoria.

Bigarrena: Adimendua.

Hirugarrena: Boondatea.

G. Zertako Jinkoak eman zaukun memoria?

I. Orhoitzeko hartaz eta hain fagorez.

G. Zertako adimendua?

I. Jinkoain ezagutzeko eta pentsatzeko haen baithan.

G. Zertako boondatea?

I. Maithatzeko Jinkoa gauza guzien gainetik, eta protsimo laguna hain amorea katik.



Izpiitu Sainduain dohainak die zazpi

Lehenbizikoa: Jakintasunain dohaina.

Bigarrena: Adimenduain dohaina.

Hirugarrena: Kontseiluain dohaina.

Laugarrena: Ezagutzain dohaina.

Bosgarrena: Hazkartasunain dohaina.

Seigarrena: Pietateain dohaina.

Zazpigarrena: Jinkoain beldurtasunain dohaina.

Izpiitu Sainduain fruituak die hamabi

Lehenbizikoa: Kaitatea.

Bigarrena: Bakea.

Hirugarrena: Bihotzeko handitasuna.

Laugarrena: Urrikaritasuna.

Bosgarrena: Fedea.

Seigarrena: Sentsuen begirapen eta beirakortasuna.

Zazpigarrena: Gozo izpiituala.

Zortzigarrena: Pazientzia.

Bedeatzigarrena: Ontasuna.

Hamargarrena: Beraztasuna.

Hamekagarrena: Modestia.

Hamabigarrena: Garbitasuna.

Dohatsutasunak die zortzi

1. Dohatsu die izpiituz pobre dienak, zeen heientzat baita zeruetako erresuma.

2. Dohatsu die eztiak, zeen hek lurreko premu izanen baitie.

3. Dohatsu die nigar ite-utenak, zeen hek kontsolatuak izanen baitie.

4. Dohatsu die justiziaz gose eta egarri dienak, zeren hek aseko baitie.

5. Dohatsu die miseriakordiosak, zeen miseriakordia eina izain baitzaiote.

6. Dohatsu die bihotzez garbi dienak, zeren heiek Jinkoa ikusiko baitute.

7. Dohatsu die bakea ekhartze-utenak, zeen hek Jinkoain haur deituak izain baitie.

8. Dohatsu die justizian gatik pertsekutatuak dienak, zeren heientzat baita zeruetako erresuma.

G. Zer erran dituu orai?

I. Zortzi dohatsutasunak edo zoriontasunak.

G. Zer gauza die hauk?

I. Izpiitu Sainduain dohain eta berthuteen obraik hobeena.

G. Nor die izpiituz pobre dienak?

I. Nahi eztutenak ohoreik eta aberastasunik, ttipiak izana gatik ere.

G. Nor die eztiak?

I. Hasarretasunik ez tutenak ez etare kasik hain khexadurak.

G. Nola die lurraen jabe?

I. Beren buruen nausi bezala.

G. Nor die nigar eite utenak.

I. Gostuak uzten dituztenak, ttipiak izanak gatik ee.

G. Nor die justiziaz gose eta egarri dienak?

I. Obligazionez duten guzia arthaikin eiten dutenak.

G. Nor die miseriakordiosak?

I. Pietatez betheak dienak arrotzekin ee.

G. Nor die bihotzez garbi dienak?

I. Beren pasionetan osoki mortifikatzen dienak.

G. Nor die bakea ekhartzen dutenak?

I. Beren eta bertzen artean bakea ezartzen dutenak.

G. Nor die justizian gatik pertsekutatuak dienak?

I. Gauza onetan sustengatzen dutenak, pertsekutatuak izanik ee.

G. Zertako deitzen die dohain hoik dohatsutasunak edo zoriontasunak?

I. Zeen hoitan baitago bizitze huntako eta bertzeko esperantza.

Gizonain lau azken finak

G. Zein die gizonain lau azken finak?

I. Heriotzea, juiamendua, parabisua eta ifernua.

G. Zer da heriotzea?

I. Gorputzetik arimain berextea.

G. Zer da juiamendua?

I. Juiamendua da Jinkoain aintzinean presentatzea, egin den ongiain sariain edo gaizkiain gaztiguaren errezibitzeko.

G. Noat joanen da arima juiatua izan ondoan?

I. Joanen da bethikoz Parabisurat edo Ifernurat, edo denbora baten-tzat Purgatorioetaat gero Parabisuan sartzeko.

G. Eta gorputza zer inen da?



I. Gorputza geldituko da lurrean munduain akhabantzaino; bainan orduan juntatuko da lehenagoko arima beraikin hunen zorte berain izaiteko.

G. Zer da Parabisua?

I. Parabisua da Aingeruen eta Jinkoain grazian hil diren gizonentzat destinatu dohatsutasuneko lekhu bat.

G. Zer da ifernua?

I. Ifernua da Debruen eta bekhatu mortaleko estatuan hil dien gizonentzat destinatu dohakabetasunezko lekhu bat.

G. Zer da Purgatorioa?

I. Purgatorioa da graziazko estatuan hil dien arimak doazin lekhu bat, non mundu huntako partez emain baitute beren bekhatuez satisfazio-ne osoa.

G. Satisfazioneik eman dezakeu guk Purgatorioetan dauden arimen penen laburtzeko?

I. Ba-Jauna: Arima justu hoién penak labur detzakeu, bai eta ere akhaba gure othoitzez, barurez, karitatez, induljenziez eta partikulaski mezako sakrifizio sainduaz.

Induljenziez

G. Zer da induljenzia?

I. Mundu huntan edo Purgatorioetan penitentziaz Jinkoai bekhatuen gatik eman behar zaion satisfazioneain barkhamendua.

G. Nola irazten da induljenzia?

I. Hunen irazteko manatzen dien gauzak einez graziazko estatuan.

G. Nola barkhatzen ditu Elizak bekhatuai zor zaizkon pena denborakoak?

I. Aplikatuz Elizain izenean Jesu Kristoin Pasionea eta sainduen meezimenduen sobrakinak.

Inkarnazioneko mixterioaz

G. Zer da inkarnazioneko mixterioa?

I. Trinitate Sainduko bigarren presuna, zeina baita Jinkoain Semea, gizon eitea Maria Birjinain sabelean, Izpiritu Sainduain obraz eta berthutez, Andre hau gelditzen delaik Birjina erdi aintzinean, erditzean, eta erdi ondoan.

G. Zenbat naturaleza ditu Jesu-Kristok.

I. Baditu bi naturaleza: Jinkoaina eta gizonaina; baditu ere bi adimendu eta bi boondate; presuna bat, Jinko bezala; eta memoria bat gizon

bezala; zeren ezpaita kausitzen Kristoin baithan gizonkizko presunaik, eta Jinko bezala gauza guziak baitauzka gogoan: Aita-at Jinko bezala, hura baita Aita eternala, eta Ama-at gizon bezala, hura baita Andredena Maria, eztuelaik Aitaik gizon bezala, ez amaik Jinko bezala.

G. Non da Kristo?

I. Jinko bezala lekhu eta gauza guzietan, eta gizon bezala bakharrik zeruan eta aldareko sakramendu sainduan.

G. Zein egunez kontzebitua izan da Jesu-Kristo Ama Birjinain sabelean?

I. Martxuain hoi-ta-bortzean; hil-t-zen Ortziale Sainduz; piztu zen bazko egunean; eta igorri zuen Izpiitu Saindua Apostoluei Mendekoste egunean.

Kobesioaz

G. Zenbat gauza behar die kobesio on baten eiteko?

I. Bortz, Jauna.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: Kontzientziain etsaminatzea.

Bigarrena: Bekhatuez damu eta urriki perfet pat hartzea.

Hirugarrena: Gehiao bekhatuik ez iteko deliberazione fermu bat hartzea.

Laugarrena: Bekhatuak dien bezala kobesatzea.

Bosgarrena: Penitentziain konplitea.

G. Zer da kontzientziain etsaminatzea?

I. Azkeneko kobesioaz geroztik egin bekhatuez orhoitzea.

G. Nondik etsaminatzen da kontzientzia?

I. Jinkoain legeko hamar manamenduetaik, Eliz-Ama sainduko bortzetaik; miserikordiazko obretaik, bekhatu kapitaletaik, eta bakhotsak bere estatuko obligazionetaik.

G. Nola behar da etsaminatu kontzientzia?

I. Jinkoai graziaik galdein ondoan orhoitu behar da non eta noikin ibili den, eta zer okasionetan kausitu den; zer bekhatu egin duen manamendu bakhotxean eta bere estatuko obligazionetan.

G. Zenbat denbora behar da kontzientziain etsaminatzeko?

I. Ez ta denbora seinalatuik, bapederak hartu behar du aurkhitzen den zirkonstantzien arabera, hau delakotz eitekorik premiena.

G. Zer da dolorea?

I. Hura da damu eta urriki naturalezaz gaineko bat, Jinkoa ofentsatu duelakoz.



G. Zenbat gizetaat da dolorea?

I. Bietaa, Jauna.

G. Zein die?

I. Kontrizioea eta atrizioea.

G. Zer da kontrizioea?

I. Hura da damu eta urriki naturalezaz gaineko bat Jinkoa ofensatuik, zeren den guziz ona eta maithagarria, kobesatzeko et gehiau bekhatuik ez eiteko deliberazione fermu batekin.

G. Zer da atrizioea?

I. Hura da damu eta urriki naturalezaz gaineko bat Jinkoa ofensatuik, bekhatuain itsusitasunaz, zeruain galtzeaz, edo ifernuain merezitzeaz, kobesatzeko eta gehiau bekhatuik ez iteko deliberazione fermu batekin.

G. Zein da dolore hautaik hobeena?

I. Kontrizioea, Jauna.

G. Zertako?

I. Zeren kontrizioeak kobesatu baino lehen barkhatzen baititu bekhatuak, bainan atrizioeak ez, kobesatu ondoraino.

G. Zer da deliberazionea?

I. Gehiau bekhatuik ez iteko xede fermu baten hartzea.

G. Zer da kobesioa?

I. Kobesioa da aphez kobosorrai erraitea bekhatu mortal guziak kontzientzian aurkitzen dien bezala batee utzi gabe.

G. Nola behar die kobesatu bekhatuak?

I. Behar die garbiki deklaratu pentsamenduz, hitzez eta obraz mana-mendu bakhotxean egin bekhatu mortal guziak, bai etare zironstantzia (sic), bekhatua handiago eiten edo khanbiatzen duten guziak.

G. Kontzientzia etsaminatu faltaz behar bezala, ahalke, beldurrez edo maleziaz uzten bada bekhatu mortal bat kobesatzeko, kobesioa ona izain da?

I. Ez, Jauna: Leheneko bekhatuen gainera einen du sakrilio bat, eta gelditzen da obligatua kobesio berain errebertitzeat.

G. Kobesioa ona izain da, bere nahiik gabe ahanzten bazaio deklaratzeko bekhatu mortal bat?

I. Ba-Jauna, bainan orhoitzen delaik lehenbiziko kobesioan deklaratu behar du nola aintzinean ahantziik utzi zuen bekhatu hura.

G. Baldin bekhatu mortal bat kobesatzen badu dudazko gisan, eta gero orhoitzen bada segurki ein zuela, behar du berriz kobesatu bekhatu bera segur gisa?

I. Ba-Jauna; zeen bekhatuak, orhoitzen denaz geroz, barkhatuak izaiteko kobesatu behar die segur gisa.

G. Bekhatu benialak kobesatu behar dire?

I. On litake, bainan ezta nesario.

G. Zer da satisfazionea?

I. Aphez kobesorrak emaiten duen penitentziain konplitzea.

G. Noiz behar da konplitu penitentzia?

I. Seinalatzen bada denbora, denbora hartan berean; seinalatzen ezpada, ahal bezen laster.

G. Zer bekhatu izanen da penitentziain ez konplitzea?

I. Penitentzia handia bada eta uzten parte handi bat, izain da bekhatu mortala; Penitentzia ttipia bada, edo penitentzia handitik uzten parte ttipi bat, izain da bekhatu beniala.

G. Noiz izain da penitentzia handia?

I. Emaiten denean bekhatu mortalen gatik, edo bekhatu mortalen bidetik urruntzea gatik.

M. Kobesio onain eiteko behar dien bortz gauzetaik bat bakharra falta bada, maleziaz, kobesio gaixtoa eta sakriliozkoa izain da, eta salbatzekotz obligatua da kobesio gaixto guzien errebertitzeat kobesio jeneal batean.

G. Nola behar da kobesatu?

I. Kobesorrain oinetaat baino lehen belhaunikatuik einen da khuutzeain seinalea, eta ahuspez jarriik errain: «Ni bekhatorea». Hau finitu ondoan eta heltzen delaik kobesorrain oinetaat, errain da: «Laudatua eta benedikatua izan bedi aldareko sakramendu saindua, edo, Aita, benedika nazazu zeen egin baitut bekhatu».

G. Zer ein behar da gero?

I. Erran ondoan berak zenbat denbora duen azken aldian kobesatuik, eta atsoluzioea izanik, deklaratu-tu bere bekhatu guziak umiltasun handienaikin.

G. Zer erran behar da bekhatuak deklaratu ondoan?

I. Bekhatuak ba-panazka deklaratu ondoan, errain da «Gisa berean akusatzen naz orai eta bethi Jinkoi egin bekhatu guziez eta galdeiten diot barkhamendua, eta zuri, ene Aita izpiituala, penitentzia eta atsoluzioea baldin komeni bazaut».

G. Baldin penitentak ezpadu bekhatu mortalik akusatzeko, zer ein behar du?



I. Lehenau ein bekhatu mortal kobesatuetaik bat akusatuko du; eta ezpadu, gutienik eiten duen bekhatu benial bat.

G. Zer ein behar da gero?

I. Umiltasun eta errespetuekin entzun ondoan kobesorraia abisuak, eta errezibitu penitentzia, erraiten da ahuspekatuik bulharrak joz kontrizionezko ata.

G. Zer ein behar da kobesatu ondoan?

I. Naiz ibili gogoan kobesorraia abisuak; gehiao bekhatuik ez iteko deliberazionea berritu, penitentiak hitzeman bezala konplitu eta Jinkoai eskerrak bihurtu.

Kominioneaz

G. Zer da ostian?

I. Aphezak kontsekrazioneko hitzak erran arteo, ogia, Jauna. Aphezak kontsekrazioneko hitzak erran ondoan Jesu-Kristoin gorputz prezia-tua, hain egiazki eta errealki nola baita zeruan.

G. Zer da kalitzan?

I. Aphezak kontsekrazioneko hitzak erran arteo, arnoa ur xorta batekin; aphezak kontsekrazioneko hitzak erran ondoan, Jesu-Kristoin odol prezia-tua, hain egiazki eta errealki nola baita zeruan.

G. Ostia kontsekratua bada Jesu-Kristoin gorputza bezala odola ee, eta kalitza kontsekratua odola bezala gorputza ee?

I. Ba-Jauna, batean eta bertzean aurkhitzen die Gorputza, Odola, Arima, Jinkotasuna eta hiru Presuna Dibinoak; halako moldetan non guziak kausitzen baitie ostian, eta guziak kalitzan.

G. Ogitik eta arnotik ezta deus gelditzen kontsekrazionean ondoan?

I. Ez; ezta gelditzen ogia eta arnoa itxurak edo baizik, zeinak baitie moldea, kolorea, usaina eta gostua.

G. Aphezak ogi eta arno kontsekratuak beexten dituenean, hausten da Jesu-Kristoin gorputza edo odola?

I. Ez. Jesu-Kristo aurkhitzen da beexi den parte bakhotxean; eta hala ostia parte bat baizik eztuenak, errezibitzen du Jesu-Kristo guzia nola eiten baitu ostia osoa eiten duenak.

Kominiatzeko dispozizionez

G. Zenbat gauza behar die kominione on baten iteko?

I. Hiru, Jauna.

G. Zein die?

I. Lehenbizikoa: jakitea zer behar duen errezibitu.

Bigarrena: barur garbian joitea.

Hirugarrena: Graziako estatuan egoitea.

G. Zer errezibitzen du kominiatzen duenak?

I. Jesu-Kristo gure Jauna, Jinko eta gizon egiazkoa, Zeruan eta alda-reko sakramendu Sainduan daona.

G. Zer aitzen duzu barur garbian joiteaz?

I. Izan behar du gauherdiz geroz jan eta edan gabea, non ez tuen kominiatu behar eri bezala.

G. Zer aitzen duzu graziako estatuan egoiteaz?

I. Ez du izan behar bekhatu mortaleko estatuan, eta hortako kontzientzia ongi etsaminatu ondoan, estatu triste huntan aurkhitzen badu bere burua, garbitu behar du kobesio on batez.

G. Bekhatu mortaleko estatuan kominiatzen dutenek errezibitzen dute Jesu-Kristo?

I. Ba-Jauna, baina beren buruen kondenazionetan, zeren eiten baitute sakriliozko bekhatu izigarri bat.

G. Nola hurbildu behar da kominiatzeat?

I. Onheski beztitua, umiltate, errespetu eta egiazko debozione batekin.

Kominioneko mementoaz

G. Zer erran behar da aphezak ostia saindua eskuan hartzen duenean?

I. «Jauna, ni ez naz dino zure errezibitzeko, baina errazu xoilki hitz bat, eta ene arima izain da sendatua eta salbatua».

G. Zenbat aldiz erran behar da?

I. Hiruetan, Jauna.

G. Eta gero zer erraiten da?

I. Jauna, zure esku dibinoetan gomendatzen dut ene arima.

G. Nola egon behar da kominiatzeko mementoan?

I. Belhaurikatuik eta begiak aphalduak, baina itzuliak ostia sainduan ganat eta mihia azpiko ezpainain gainerat erdi atheatua.

G. Zer in behar da ostia saindua errezibitu ondoan?

I. Aphezak eskua gibelatu duenean, ahoa hetsi behar da eta ostia saindua iretsi hezatu denean.



Kobesatzeko eta kominiatzeko othoitzak

Kobesio aintzineko othoitza

Jesu-Kristo, ene Jauna, ene salbamenduko esperantza bakharra, othoizten zaitut zure pasione eta heriotzeain gatik eman detzadatzun kontrizionea, eta auhenak ene bekhatuez nigar eiteko. Munduain salbatzailea, beha zozu bekhatore miserable huni, zure ama sainduain eta bertze saindu guzien merezimenduen gatik, igor dezadazun Jauna, zure argia, erakuts detzadan ene falta guziak eta lagun nezan zure zerbitzu saindura heltzen. Damu dut, Jauna, zu ofentsatuik, zeen zaren guziz ona eta osoki maithagarria. Damu dut hoin dispozizione guti izanez ene falten kobesatzeko; damu dut ene bizi pasatuan egin bekhatuez, eta damu-ut ez damu gehiau izanez. Hitzemaiten dautzut, Jauna, osoki zure gana bihurtzea, eta ihes eitea bekhatuko okasione guzietatik; bada hala othoizten zaitut eman dezadazun grazia kobesio huntaik aintzina bizi nadin zure boondate sainduaikin, ez einez, ez erranez, ez pentsatuz zure loriako eta ene zorioneko denik baizik. Halabiz.

Kobesio ondoko othoitza

Jauna, zure Ama Sainduain eta bertze saindu guzien meezimenduen gatik dakizula agrable ene kobesio hau, eta faltatu izan zaizkidan gauza guziak barkha detzadala zure pietateak, eta haren arabera urrikal zaite zeruan ene atxikitzeko atsolutua eta bortizteko ene xede onak iduk detzaan, bizi zaena eta erreginatzen Aitaikin eta Izpiitu Sainduaikin. Halabiz.

Kominione aintzineko othoitza

Oi Aita guziz botheretsua eta Kreatzaile Saindua, errespetu et umiltasunik handienaikin hurbiltzen naz aldare saindu hortaa, nahiz indino kausitzen naizen, zure Majestate adoragarriain errezibitzeko. Ene bihotzeko hoztasuna da, Jaun soberanoa, indino eiten nauena behar den amodioaikin zure gana hurbiltzeko, bainan zure hitz eztiak die fidantziaikin hurbilaazten nautenak aingeruen janhari saindu hartan partialier izaitera. Zure boondate denaz geroz, Jesus ezia, desiratzen dut zure gorputz dibinoain errezibitzea, Birjina zure Ama sainduak eta bertze zeruko sainduak errezibitu zintuzten fede bizi, izpiitu garbi eta khartsu beraikin. Halabiz.

Kominione ondoko othoitza

Eskerrak dauzkitzut, ene Salbatzaile maitea, zuk niri eman grazia guziez, eta beezi zertako nahi izan duzun zure egoitza in ene baithan kominione saindu huntaz. Emaiten natzaitzu naizen guzia, zu niri osoki eman zaen bezala. Othoizten zaitut, Jesus ona, kominione saindu hau izan dain enetzat bekhatuen barkhamendua, fedea defendioa, ene bizio guzien heriotzea, amodio desordenatuen desterrua, eta berthute guzien hazgarria; izan bedi ene izpiituain sosegua, etsai guzien azotea, eta bakharrik zurekilako unionea, ene egiazko Jauna eta Jinkoa. Halabiz.

Othoitzak

Jan aintzineko othoitza

Aitain eta Semeain eta Izpiitu Sainduain izenean. Halabiz.

Gure Jauna eta Jinkoa, zure baithan esperantza duu eta jateko behar dena zuk emaiten duzu; zuk eskua zabaldu eta guziak benedizionez bat hetzen gaitutzu. Gure Aita, Agur Maria.

Dohain guzien emaile zaen Jauna, zure eskutik hartu, eta jan behar duun guzia benedika zazu, Jesu-Kristo zure semeain gatik. Aitak eta Semeak eta Izpiitu Sainduak benedika gaitzatela, eta gero loriako mahai neat bethiko ereman gaitzatela. Halabiz.

Jan ondoko othoitza

Aitain eta Semeain eta Izpiitu Sainduain izenean. Halabiz.

Eskerrak bihurtzen dauzkitzue Jinko guziz botheretsua, orai eta bethi zure ongi ein guziez, zeina bizi baitzaa eta erreginatzen mendetako mendetan. Gure Aita, Agur Maria.

Gure ongi eile guziak, Jauna, zure benedizioneaz paga zatzu zure izen sainduain gatik, eta arima fidel guziak zerura zure laudatzeat ereman zatzu, eta orai hemen bilduak gaen guziak zeruko lorian kausiaaz gaitzatzu. Halabiz.

Orenak emaitan

Laudatua eta benedikatua izan bedi Andredena Maria haragi bizian Zaragozaat ethorri zen orena. Agur Maria.



Anjeluseko ezmila jotzean

Jaunain aingeruak berri on bat eman dio Mariai eta kontzebitu du Izpiitu Sainduain ganik. Agur Maria.

Huna Jaunain neskatoa, ein dakiala zure hitzain arabera. Agur Maria.

Eta Berboak hartu du haragizko gorpuz bat, eta egon izan da gure artean. Agur Maria.

Othoitza

Iguzu othoi, Jauna gure arimetaat zure grazia; aingeruak berri onak ekharri eta Jesu-Kristo zure semain gizon itea ezagutu duun hauk, hain Pasioneain eta Khuutzeain gatik bethiko loriaat eremanak izan gaitezin. Halabiz.

Fedezko ata

Ene Jinkoa, sinhesten dut zaela Aita, Semea, eta Izpiitu- Saindua, Jinko bakharra eta hiru presunetan distingoa. Sinhesten dut Trinitate bigarren presuna in zela gizon Izpiitu Sainduain berthutez; sorthu zela Maria Birjinain ganik, eta hil-t-zela khuutze batean gure salbatzea gatik, igan zela zeruetat, eta azken egunean ethorriko dela hilen eta bizien juia-tzeat, emaiteko justuei bethiko loria eta gaixtoei sekulako ifernua. Sinhesten dut aldareko Sakramendu sainduan daola Jesu-Kristoin gorputz preziatua, hain errealki nola baitau zeruan. Gisa berean sinhesten ditut zuk Eliz-Ama Sainduai erran eta agertu diozkotzun sakramendu, artikulu eta egia sinhesteko dien guziak, eta sinheste huntan bizi eta hil nahi ut.

Esperantzazko ata

Oi ene Jinkoa! Zure Seme Jesusen meezimenduak, eta heriotzea aarteko ditualaik, eta hain graziaikin in ahala eiten dutalaik, esperantza ut zure miserikordian izain dutala ene bekhatuen barkhamendua, zeruko loria eta haat heltzeko grazia guziak.

Amodiozko ata

Ene Jinkoa, maite zaitut ene bihoz guziaz eta gauza guzien gainetik, zaelakoz guziz ona eta osoki maithagarria. Halaber maite ut ene protsimo laguna, ene burua bezala zure amorea katik. Damu ut eta dolu zu ofentsatuik; barkhatzen diotet ene etsai guziei zure gatik eta zure izenean.

Ofreimenduzko ata

Ene Jinkoa, eskerrak bihurtzen daukitzut zure esku dibinoetaik errezibitu izan ditutan graziez eta dohainez, eta beeziki zeen utzi nauzun heltzera egun saindu huntaat, zeintan zure loriain ohoretan ofreitzen baitaukitzut ene pentsamendu, hitz eta obra guziak, nahigabe, onthasun eta bizia, Jesu- Kristoin meezimendu eta odol preziatuaikin; eta hitzemaiten dautzut fermuki gehiau ez ofentsatzea zure graziaikin batean; eman detza-utzu beraz, Jauna, zure laguntzak hola goberna nain Jesu-Kristoin, bere Ama sainduain eta zeruko bertze saindu guzien meezimenduen gatik.